goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-02-01
EGUBAKOITZA
539. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Lege onetik irabazitakoan sinesten dut nik"



**Jose Luis Korta**
Arraun entrenatzailea | 8

## Iñurrategi eta Irizar, 'Informe Robinson'-en

Markel Irizar asteon azaldu da; Iñurrategi, berriz, otsailean | 30

Eguerdian hasita girotuko du Txapel Txinek jaia bihar Aretxabaletan | 24



Amerikarrak txundituta Belcebluesen saioarekin | 34



Dena gertu Aramaion, biharko Santa Ageda batze herrikoienerako | 27

## Elorregin zirkulazioa moteldu egingo da, bi hilabetez

Bidegorriaren pasabidea eraikitzen hasiko dira | 5



Ingurua egokitzen. | AMAIA GARATE

## Austeritatea oinarri duen aurrekontua Aretxabaletan

Zorpetze maila ez igotzea izan da Udalaren helburua | 22

## Oñatiko Gizarte Zerbitzuek gailu teknikoak utziko dituzte

Aldundikoak iritsi bitartean, herritarrei lagundu gura diete | 19

## SINADURAK



Aukera bat atez atekoari | 6
JULEN ARRIOLABENGOA

6 | Sukar 'Inauterizalea'
JON BEREZIBAR





Elkartasuna | 24
OIER ETXEBARRIA

40 | Sinplea bezain gordina
AGURNE BARRUSO



## SAN BLASEN GOZOTASUNA GERO ETA GEUREAGO

Elgetan betidanik izan da indartsu opil zuria, eta Debagoienean indartzen ari da | 5



Ezkerretik hasita: Eli Arantzabal, Ainhoa Larrañaga, Itziar Arrieta, Nati Arrieta eta Mariasun Agirre elgetarrak, euren San Blasak erakusten. | LARRAITZ ZEBERIO

# Okerren daudenei lanera bidea ireki nahi die Oñatiko Bidebarri zentroak

Oñatiko Udalak, Caritasek eta oñatiar batek 1996an sortutakoa da | 2

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | | HERRIAK 10 | KIROLA 30 | KULTURA 32 | | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Okerren daudenei lanerako bidea ireki nahi die Bidebarri zentroak

- Laneratze eta gizarteratze enpresa da 2003tik
- Oñatiko Udala, Caritas eta oñatiar batek sortua da
- Lana ematen die bazterketa arriskuan daudenei


Ospitaleko jan–edanen makinak betetzen Bidebarriko bi langile. | LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** | OÑATI

Debagoieneko hainbat enpresa eta zerbitzu-lekuetako kafe eta janari-makinak betetzen, Oñatiko bi okindegitan saltzen edo zenbait udal zerbitzu garbitzen ikusiko zituen jende askok, batez ere oñatiarrek: Bidebarri enpresako langileak dira. Lan egiteaz gain, laneratze prozesua egiten dabiltza, eta hor dago euren berezitasuna. Izan ere, enplegu-zentro berezia da Bidebarri: gizarteratze eta laneratze enpresa izendapena dauka 2003tik hona. Egun hauetan albiste izan da, urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean Ficoban, Irunen egin den II. Inserciona azokan parte hartu duelako. Gainera, antolakuntzan ere ibili da Jon Igartua, Bidebarriko sortzaileetako bat eta gaur egungo arduraduna.

Jende askok badaki Zubillagako Bidebarri enpresa nolabait berezia dela. Hala, jabegoaren erdia Oñatiko Udalari dagokio; %40a, Caritasi, eta beste %10a, zuzendari eta sortzaile Jon Igartuari. Laneratze eta gizarteratze enpresa den aldetik, bere helburua ez da bakarrik bertan dabiltzanei lana ematea, Jon Igartua arduradunak azaltzen digun moduan: "Arazo pertsonal edo sozioekonomikoak dituztenek lana topatzeko dituzten aukerak hobetzea da gure helburua. Horretarako, Bidebarrin 6 eta 36 hilabete artean egon daitezke. Azken helburua da enpresa normalizatuetara salto egin dezaten".

### Lanbiderekin hitzarmena

Bere misioarekin urte asko daroa Bidebarrik: 1996a ezkero, hain zuzen ere. Oñatiko Udalak egin zuen ikerketa baten arabera, Oñatin bazegoen egoera sozioekonomiko bereziki txarrean zegoen jende multzoa, lana topatu ezin zutenak. Hainbat aukera aztertu eta gero, Oñatiko Udalak enpresa propioa sortzea erabaki zuen.

Zailtasun sozioekonomikoak dituen jende gehiago dagoen honetan ere, ezin du Bidebarrik edozeinek lan egin, eta langileak ez dituzte zuzenean eurek hartzen, baizik eta Lanbidek edo Udaleko Gizarte Zerbitzuek bidaltzen dizkiete. Jon Igartuak esaten digu ze multzoko jendeak izan dezakeen lekua Bidebarrin: "Gehienak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) jasotzen dutenak edo, jaso ez arren, baldintza bat edo bi ez betetzeagatik jasotzen ez dutenak dira; gero, droga-mendekotasun batetik datozenak; kartzelan edo adin txikikoen zentroetan egon direnak –baina horiek oso gutxi izaten ditugu–; eta Gizarte Zerbitzuetatik datozenak, gizarteratze arazo larriak dituztenak".

Bidebarrin hasi aurretik, langile berriak hitzarmena egiten du Lanbiderekin eta, gero, Bidebarrik kontratua egiten dio. Hasieratik garbi azaltzen dizkiote zeintzuk diren baldintzak, Bidebarriko akonpainamendu-teknikariak, Maite Uribarrenek esaten duen moduan: "Bakoitzarekin pertsonalizatutako itinerarioa egiten dugu: gaur egun ze egoera pertsonal, sozial eta ekonomikoan dagoen aztertu, eta elkarrekin bere ahuleziak eta indarrak ikusten ditugu. Eurek badakite lan-epe konkretu baterako daudela, eta helburua ez dela bakarrik lana egitea, baizik eta gizarteratze prozesuan daudela".

Beraz, langile bakoitzaren hasierako egoeraren arabera, bide bat edo beste bat planteatzen diote: "Batzuen kasuan, ikasketa batzuk egitea; edo norberaren arazo pertsonalak gainditzeko behar dituen erremintak ematea…", laburtzen du Maite Uribarrenek.

Lehenengo egitekoa "norberak arazoa duela onartzea" da, Uribarrenek gaineratzen duenez. "Hori kosta egiten da, batzuetan. Gero norberak berari dagokion ibilbidea egin behar du. Izan dira kasu batzuk non, saiatu arren, azkenean utzi egin behar izan dugun, ez delako pertsona hori gizarteratzea lortu; baina, kasu gehienetan, pazientziarekin eta euren borondatearekin, lortzen da".

### 200 makina baino gehiago

Bidebarrik berak, enpresa gisa, eboluzio bat izan du. Gaur egun bi dira finkatuta dauden bere negozioak: kafe, freskagarri eta jatekoak saltzen dituzten makinak kudeatzea, batetik; eta Oñatiko bi okindegi kudeatzea, bestetik. Kasu batean zein bestean, Bidebarrik ez du produkziorik egiten; makinak bete, dirua jaso, hondatuta daudenean konpondu… egiten ditu; eta okindegiak eurak eta bertako produktua ez dira bereak, baizik eta Bidebarrik denda horiek eramaten ditu soilik. Bi aktibitate horiek ondo errotuta daude –200 makina baino gehiago kudeatzen dituzte Bidebarriko langileek–, baina ez dira Bidebarriren historian bakarrak izan, eta gaur egun ere badituzte beste jarduera txikiago batzuk: bereziki, enpresek azpi-

## ESANAK


Jon Igartua eta Maite Uribarren. | LEIRE KORTABARRIA

**"Gure langile gehienak RGIa hartzen dutenak dira"**

**"Bidebarrik lan konpetitiboa eta kalitatezkoa egiten du"**

JON IGARTUA
BIDEBARRIKO ARDURADUNA

**"Langile bakoitzarekin, bere egoera aztertzen dugu"**

**"Eurek badakite gizarteratze prozesu baten daudela"**

MAITE URIBARREN
AKONPAINAMENDU-TEKNIKARIA

## Bidebarri, begirada baten

**LANBIDE** Bidebarriko langileak Lanbidek edo udaleko gizarte zerbitzuek bideratutako jendea dira.

**LARRIAK** Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak eta gizarte-arazo larriak dituztenak dira langile gehienak.

**HIRU URTE** Gutxienez 6 eta gehienez 36 hilabetean egon daitezke Bidebarrin; gero, 24 hilabetean ezin izango dira laneratze-enpresa baten izan.

**ITINERARIOA** Teknikariarekin, itinerario pertsonalizatua egiten du bakoitzak, beretako bide egokiena aukeratzeko: ikasketak, abilezia sozialak…

**HELBURUA** Laneratze-enpresatik irtendakoan, ohiko enpresetan lana lortzeko gai izatea da helburua.

ESANAK

## "Hiru urte lan barik egon eta gero, orain oso pozik nabil"

JOSE MANUEL VILARIÑO
BIDEBARRIKO LANGILEA



Jose Manuel Vilariño, Oñatiko Udalaren eskuorriak banatzen. | L.K.




Josebe Tome, Bidebarrik kudeatzen duen Kalegoieneko okindegian. | L.K.

DATUA

**%75**
LANERATZE
Orain urte batzuk, laneratze-enpresetatik irteten ziren langileen %75ek lana topatzen zuten ohiko enpresetan; gaur egun, %55ek.

**2**
JARDUERA
Bidebarrik bi jarduera ekonomiko nagusi ditu: jan-edanen makinak kudeatzea eta Oñatiko bi okindegi kudeatzea.

**4.500**
LANGILE
Euskadiko eta Espainiako gizarteratze-enpresek zailtasunak dituzten 4.500 laguni ematen diete lana, eta 83 milioi ingresatzen dituzte.

kontratatzen dizkieten lanak egiten dituzte. Izan zen ere gozogintzan sartzeko saiakera bat, baina hortxe geratu zen. Azpikontratatutako lanak egiten dituzte oraindik, baina krisiak eragina izan du eurengana jotzen duten enpresa pribatuengan, eta horien kopurua askoz txikiagoa da orain. Oñatiko Udalak azpikontratatzen dizkie zenbait zerbitzu: besteak beste, eskuorriak etxerik etxe buzoietan sartzea edo Azkoagain futbol zelaia txukuntzea. Bestalde, Gizarte Zerbitzuen bidez aurrez prestatutako otorduak jasotzeko izena emanda daudenei janari horiek ere Bidebarriko langileek eroaten dizkiete etxera. Otorduak ere ez dituzte eurek prestatzen, Sutondo enpresak baizik.

Hazten jarraitu gura du Bidebarrik, eta proiektu berriak aztertzen dabil. "Gaur egun txikiak diren aktibitateak indartzen joan gura dugu. Azpikontratazioen arloa indartu gura dugu, lan gehiago sortzeko", esaten du Jon Igartuak.

**Dirua, arazoaren erdia**

Egunotan, udalaren eskuorriak buzoietan banatzen ibili da Bidebarriko langile bat, Jose Manuel Vilariño. Berak esaten digunez, bost hilabete daroa Bidebarrin lanean, eta oso pozik dago: "Ia hiru urte eman nituen lana topatu barik, eta gero beste zortzi hilabete etxean, bajoiarekin, irten ere egin gabe ia. Orain sekulako energia daukat, oso pozik nabil. Lan honetaz gain, neska-mutikoak entrenatzen ditut zapatu goizetan. Umeek asko maite naute".

Maite Uribarrenek dioenez, Jose Manueli gertatzen zaion bezala, "langileei lasaitasuna ematen die gutxienez hiru urtean lana izateak, eta ekonomikoki, behintzat, babestuta gelditzen dira. Hori izaten da euren arazoen zati handi bat. Horrekin, arazoak dituzten beste arloei eusteko jarrera asko hobetzen zaie".

Edozein modutan, krisiak asko aldarazi du Lanbidera edo gizarte zerbitzuetara eta, zeharka, Bidebarrira ailegatzen den pertsonaren profila. Jon Igartuak baieztatzen du hori: "Azken boladan, Lanbidek bidaltzen digun jende gehiena Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak dira, eta horietako asko ikasketa maila handia dutenak edo beste lan batzuetan esperientzia dutenak izaten dira. Baita aurretik lan egin duten eta orain lana topatu ezin duten atzerritarrak ere; edo ikasketak dituzten eta horien homologazio-prozesu luze baten dauden atzerritarrak".

Lan eta laguntza ekonomikoaren premian daudenen artean, selekzio zorrotza egin behar da, gura edo ez; izan ere, Euskadin, gizarteratze eta laneratze enpresek 700 lanpostu baino gutxiago dituzte eskaintzeko, eta Euskadin, RGI errenta hartzen duten 55.000 pertsona dago. Krisiaren beste ondorio bat hau da: laneratze enpresetatik irteten diren langileek lehen baino zailagoa dutela enpresa arruntetara sartzea, lanpostu horietarako lehia handiagoa dagoelako. Horren eraginez, "orain urte batzuk arte, laneratze enpresetatik irteten zirenen %75 enpresa normalizatuetan sartzen ziren; gaur egun, %55 ingurukoa da tasa, eta datozen urteotan datua okertu egingo da", aurreratzen du Jon Igartuak.

### 1.300 lanpostu dituzten enpresak

Gizatearen irudia.

Euskadiko gizarteratze eta laneratze enpresen elkartea da Gizatea. Espainiako FAEDEI, halako enpresak batzen dituen federazioko kidea da.

2007an sortu zuten Gizatea, eta gaur egun 1.300 lanpostu batzen dituzten mota horretako 45 enpresa dira horko bazkide. 1.300 lanpostu horietatik 671 laneratze prozesuan dauden langileei dagozkie, eta gainerakoak, teknikariei eta orientatzaileei, batik bat.

Laneratze prozesuan dauden Euskadiko langileek 29,5 milioi euroko diru-sarrerak dituzte; %70 produktu eta zerbitzuen salmentatik dator, eta gainerako %30a, dirulaguntza publikoetatik. Bezeroen %80 enpresa pribatuak dira.

**"Krisia gainditu dugu"**

Inserciona azokak bere bigarren edizioa izan du egunotan. Lehenengoa, orain bi urte, Bartzelonan egin zuten. Aurtengoan, gainera, Gizatea elkarteko presidente gisa, Igartuak parte hartu du inaugurazio ekitaldian. Euskadiko eta Espainiako gizarterako erkidegoetako gizarteratze enpresek 4.500 lagun baino gehiagori ematen diete lana, eta urtero 83 milioiko diru-sarrera gordinak dituzte; horregatik, gizarteratze-enpresek "2012an krisia gainditu" dutela azpimarratu dute antolatzaileek.

Bidebarrirendako "oso inportantea" da azoka horretan egotea. Besteak beste, aurreiritziak apurtu gura dituzte; izan ere, "historikoki" laneratze enpresek ohiko enpresen eta bezeroen "mesfidantza" jasan dutela onartzen du Bidebarriko zuzendariak. Egunotako azokaren bidez, eta eguneroko jardueraren bidez, "modu konpetitiboan eta oso zerbitzu ona emanez lan egiteko gai" dela erakutsi gura du Bidebarrik; "gainera, laneratze prozesuak eginez, gizarte-lan bat egiteko gai" ere badela.

HABEko azterketak prestatzeko ikastaroak larunbatetan!




1., 2. eta 3. mailak; baita 4. maila ere!

Noiz: Larunbat goizetan, 08:30etik 14:00etara
Informazioa: Aratz Euskaltegia
945 15 43 41
aratz@ikanet.net
gasteiz.ikanet.net

ika
euskara errazago egiten



Anbulantzia ospitaleko lur-azpiko aparkalekutik irteten. | UBANE MADERA

# Lur-azpikoari esker errazago aparkatzen da ospitalean

## Azaroan zabaldu zuten lur-azpiko aparkalekua; 63 leku ditu (sei erreserbatuta), eta erabilera librekoa da

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Doakoa da, ospitalearen azpiko aldean bertan dago, erabilera aldetik denbora mugagabea dauka, eta ordutegi zabal askoa: 06:30etik 23:30ak arte.

Horiexek dira Debagoieneko Ospitaleko lur-azpiko aparkaleku berriaren ezaugarri nagusiak. Eta ezaugarri horiengatik, eta jakina, behar handia ere bazegoelako, zabalik daramatzan hiru hilabeteotan emaitza ona dabil ematen, bai ospitalearen erabiltzaileendako, baita bertara doazen langileendako ere. "Igartzen da, bai, eragina. Batez ere, ospitale ondoko aparkalekuan eta Gelmakoan (orain Fagor)", kontatu du Iñigo Mirandak ospitaleko mantenuko ingeniariak.

**Gauez, itxita**

Azaroan estreinatu zuten aparkaleku hori 63 leku ditu; horietatik lau gordeta daude Osakidetzako langileendako eta beste bi zailtasunak dituztenendako.

Gainontzekoak, berriz, erabilera librekoak dira. Eta aparkalekua gaueko hamaiketan itxi egiten badute ere, gaua ospitalean egin behar dutenek aukera dute autoa gau guztian bertan lagatzeko. "Aparkalekurako sarrerako arrapala erdian ate bate dago, eta hura itxi egiten da gauez, automatiko. Ospitaleko segurtasuna bermatzea da helburua. Izan ere, aparkalekura sartzen denak, aukera dauka eskailera zein igogailuak erabilita, ospitale barrura sartzeko. Hori saihesteko itxi egiten da atea, 23:30etik 06:30ak arte". azaldu du Mirandak.

**Itxaronez gero, lekua libre**

Funtzionamenduari dagokionez, berriz, aparkalekuan lekurik dagoen edo ez jakinarazteko seinale automatikoa dago ospitalerako sarreran; bide batez, jakinarazi digute seinale hori aldatu egin behar dutela laster, abisuak euskaraz ere ager daitezen.

Kontuak kontu, seinale horrez gainera, semaforoa ere badu. Izan ere, aparkalekuak errei bakarra dauka sartu-irtena egiteko. Eta gerta liteke aparkalekuan lekua egon arren, ibilgailuren bat irteten egotea, edo behean anbulantziaren bat zamalanak egiten ibiltzea.

Kontuak kontu, seinaleaz gainera, semaforoa ere badu aparkalekuak. Izan ere, Debagoieneko aparkaleku berriak errei bakarra dauka sartu-irtena egiteko. Eta gerta liteke aparkalekuan lekua egon arren, ibilgailuren bat irteten egotea, edo behean anbulantzia edo kamioiren bat zamalanak egiten ibiltzea.

Hain justu, hori tokatzen denean, kanpoko seinaleak esaten du aparkalekuan lekua badagoela, baina gero semaforoa gorri agertzen da.

Bada, halakoetan kanpoan itxaroten egotea da gomendagarriena, ezen aparkalekurako sarrera-irteeran dagoen automobil, kamioi edo anbulantzia mugitzen direnean, itxaroten dagoen horrek autoa sartu ahal izango du lur-azpiko aparkalekuan.

**Inguruan, 300dik gora**

Aparkaleku berria kontuan hartuta, gaur egun Debagoieneko Ospitalean 300dik gora leku daude ibilgailuak aparkatzeko. Gunerik handiena ospitale parean dagoen Fagorren orubean egokitutako aparkalekua da. Hiru urtetik hona edozeinek erabil dezake, eta 100 bat leku eskaintzen ditu. Horrekin batera, ospitalearen ondoan 80 bat leku daude, eta ospitale atzean, berriz, 85 urbanizazio berrian. Horrez gainera, ospitale atzean baita ere, baina mendiaren kontrara dagoen errepidean aparkaleku gehiago dago: batzuk legezkoak, eta beste batzuk Arrasateko Udalak baimendutakoak.



**MARIBEL MORENO**
LANGILEA

"Kafetegian egiten dut lan eta sarri sartzen naiz barruko aparkalekura. Merezi du. Kanpoan toki gehiago dagoela nabari da".



**M. PILAR LARRAÑAGA**
ERABILTZAILEA

"Kanpoan utzi ahal izan dugu autoa.Horrez gain, lagunak esan digu igarri egiten dela. Alde ederra dela etorri eta lekua aurkitzea".



**JESUS ESCALERA**
LANGILEA

"Igartzen da ireki dutela. Zonalde hau (ospitale ondoko aparkalekua) libreago ikusten dugu, eta guretzat noski, hobeto".

# Martxoan 52.000 langabe pasa izango da Gipuzkoan

## Hala iragarri zuen atzo Adegi patronalak, testuinguru ekonomikoaren analisia egitean

**LEIRE KORTABARRIA** | DEBAGOIENA

Testuinguru ekonomikoaren aurtengo analisia aurkeztu zuen atzo Adegi patronalak, eta ezin txarragoa da egin duen iragarpena: 2013an enpresa gehiago deuseztatuko direla eta 3.000 langabe gehiago izango direla iragarri du.

**Ez da suspertzeko urtea**

Krisia hasi zenetik, Gipuzkoan 2.000 enpresa eta 27.000 soldatapekoren lanpostu desagertu direla gogorarazi du Adegik. Eta, dirudienez, 2013a ere ez da suspertzearen urtea izango: Gipuzkoaren Barne Produktu Gordina %0,7 inguru txikituko da eta beste 3.000 pertsona lanik gabe geratuko dira; martxoan, 52.000 langabe baino gehiago izango dira Gipuzkoan. Gipuzkoako enpresen %21,4k esan dute langile gutxiago izatea aurreikusten dutela; %71,3k langile kopuru berbera izateko gai ikusten du bere burua.

Iazko azken hiruhilekoan, fakturazioa %3,3 txikitu da. Barne merkatua geldialdian dago eta, 2009ko abendutik lehenengo aldiz, esportazioak ere txikitu egin dira. Eta datu txar gehiago: inkestatutako enpresa gehienek (%66,5ek) eskaera-zorro "ahula" zutela esan zuten.

**Kezka, Espainiako ekonomia**

Finantziazioa lortzeko arazoak berriz larriagotu egin direla esan du Adegik: galdetutako enpresen %37k zirkulantea finantziatzeko baliabide gutxiago izan zituztela esan zuen, eta %30ek, inbertsioa finantzatzeko baliabide gutxiago.

Inbertsioa ere asko okertu zen: 2012an barrena, enpresen %41,5ek gutxiago inbertitu zuten. Era berean, urtean zehar, ikerkuntzan eta garapenean gutxiago inbertitu zuten Gipuzkoako enpresek.

Bukatzeko, enpresen erdiek baino gehiagok uste dute euren merkatuak krisian izango direla aurten; %33k, aldiz, egoera "normala" aurreikusten dute, eta bakarrik %9k diote suspertzea espero dutela.

**DATUAK**

**2.000**
ENPRESA

Krisia hasi zenetik, Gipuzkoan 2.000 enpresa eta 27.000 lanpostu desagertu dira.

**%21,4**
ENPRESA

Gipuzkoako enpresen %21,4k esan dute langile gutxiago izatea aurreikusten dutela.




UBANE MADERA

## Hitzarmena "blindatzeko" beharra

Hiru auto karabana eta elkarretaratzea egin zituzten atzo (eguena) LABeko ordezkariek, metal arloko lan hitzarmena blindatzearen alde. Bost hilabete falta dira indarrean dagoen hitzarmena bukatzeko, baina LABen ustez "alarma gorria" piztuta dago, momentuz, hitzarmena berritzeko asmorik ez dutelako antzematen Adegiren aldetik. Horrek langileen eskubide galera ekarriko duela diote.

# Garraio publikorako txartel bakarra martxoaren 4an

**U.M.** | DEBAGOIENA

Martxoaren 4tik aurrera Gipuzkoan txartel bakarra jarriko da martxan garraio publikoan, eta horrek aldaketak eragingo ditu Lurraldebusen txartelean. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri du erabiltzaile gehienek "gaur egun duten txartela erabiltzen jarraitu" ahalko dutela. Horrexegatik "lasaitasun mezua" bidali nahi diete erabiltzaileei. Eta iragarri dute aldaketa guztien berri emateko gutuna bidaliko dietela etxera Lurraldebus txartelaren erabiltzaileei.

**Errenta irizpidea aintzat**

Unai Erroitzeneak, Foru Aldundiko Mugikortasuneko zuzendariak, asteon emandako xehetasunen arabera, "Lurraldebus txartel arrunta dutenek, 18 urtetik beherako gazte eta ezinduek, eta sozialek ez dute ezer egin beharko. 18 urtetik gorako gazte eta ezinduek, eta adinduek errenta irizpidea betetzen duten egiaztatu behar dute. 5 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek Mugi txartela erabiliko dute martxoaren 4tik aurrera".

Kontuan hartuko duten errenta irizpidea da: zerga oinarria ez izatea IPREM (Ondorio Askotariko Errenta Adierazpen Publikoa) x 2,5 baino handiagoa: 15.975,32 euro.

**0-5 urteko haurrek, doan**

Eta bestelakoen artean, iragarri dute Haurrak txartela desagertu egingo dela, beraz, "Haurrak txartela duten 5-10 urtera arteko haurrek Mugi Gaztea atera beharko dute. 5-25 urte bitarterako balio du txartel horrek. 0-5 adin tartean bidaiatzea doan izango da".



Obrak hasteko elementuak ipintzen dihardute asteon Elorregin eta inguruan. | AMAIA GARATE

# Elorregin zirkulazioa moteldu egingo da, bidegorriaren lanek eraginda

Oñati eta Arrasate arteko bidegorriak Elorregi zeharkatu behar du lur azpitik, eta pasabide hori eraikitzen hasiko dira datorren astean

**G.A./U.M.** | DEBAGOIENA

Seinaleztapena ipinita. Makinak bertan. Eguraldia trankil. Guztia gertu dute Oñati eta Arrasate arteko bidegorriaren azken lan handi samarrak egiteko. Hain justu ere, Elorregiko biribilgunea traba da Oñati eta Arrasate bidegorri zatiaren arteko lotura egiteko. Eta hori saihesteko, bidegorriari biribilgunearen azpitik egingo diote pasabidea. Bada lan horiek dira datorren astean abiaraziko dituztenak.

Eta kontuan hartzekoak dira lanok, besteak beste, inguruko zirkulazioan eragina izango dutelako.

**Apirilerako bukatuta**

Ia 50 metro luze izango da lurpeko pasabidea, eta bi fasetan egingo dute. Zatirik handiena bigarren fasean egingo dute, baina lehengoan harkaitz gehiagorekin topo egitea espero dutenez, antzerako denbora beharko dute baterako zein besterako; bataz beste, hilabete, faseetako bakoitza egiteko.

Gauzak horrela, beraz, bi hilabeteko epea aurreikusi dute lanok bukatzeko. Hala jakinarazi du German Pozasek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra eta Errepide Saileko zerbitzuburuak.

**Bi erreiak estuago**

Otsailean barrena egingo dituzte lehen faseko lanak, eta irauten duten bitartean Arrasate-Bergara joan-etorria berdin-berdin egin ahal izango da, aldaketa bakarra izango da biribilguneko bi erreiak estutu egingo dituztela apur bat.

Lanek eragin zuzena izango dute, ordea, San Prudentziotik Oñatira arteko tartean: Oñatira joaterakoan, biribilgunea ezkerretarago egongo da, eta etortzerakoan, berriz, bide zaharra hartu beharko da, Gurutze Gorriko anbulantziak dauden tokitik, ia Tavex-eraino, hain zuzen ere. Edozein kasutan, Diputaziotik azpimarratu dute zirkulazioa ez dela moztuko.

**Bigarren fasea, martxoan**

Otsailean lehen fasea bukatuta, bigarrenari ekingo diote martxoan eta, lan horiek egin ahal izateko, zortzi moduko batean bihurtuko dute errotonda, Gurutze Gorriko anbulantziak dauden gune hori barne hartuta; eta orduan bide alternatibo hori Arrasate-Bergara ibilbidea egiteko ere hartuko beharko da. Beraz, bigarren fase horretan noranzko guztietako zirkulazioari eragingo diote lanek.

**Gero, errematеak**

Edozelan ere, apirilerako biribilgunearen azpitik pasako den bidegorri zatia bukatuta egotea aurreikusten dute eta, behin hori eginda, argiztapena jartzea (led argiekin) eta beste erremate batzuk egitea baino ez da faltako guztia bukatzeko.

**Maiatzaren 8rako gertu**

Hala, Oñati-Arrasate bidegorria, osorik, maiatzaren 8rako egongo da gertu, hori da data ofiziala, baina eguraldiak lagunduz gero oso litekeena da apirilean bertan egotea amaituta.

Lau kilometro eta erdi dituen bidegorri horrek guztiak 3,5 metro zabal izango du; bi metro bizikletendako, eta gainerakoa oinezkoendako. Bidearen tarterik handiena laua da.

Hain justu ere, bidea laua izateko, aldaketa handi bat egin zuten Zubillaga eta Oñati artean. Izan ere, hasierako asmoa zen Fagorren atzeko partetik pasatzea, baina gas hodiek arazoak sortu zituzten biribilgunean, eta, gainera, trazatua bera ere ez zela guztiz egokia iritzi zioten (%6tik gorako desnibela). Hala, sasoi baten tranbiarendako aurreikusitako ibilbidetik jotzea erabaki dute: biribilgunetik gasolindegi aurrera eta errepidea azpitik gurutzatuta Madalenako ermita aldera.

**DATUA**

**50**

METRO

Elorregiko biribilgunearen azpitik pasako den bidegorri zatia 50 metro luze izango da. Oñati eta Arrasate lotuko ditu.

# San Blasen tradizio gozoa geroago eta ezagunago egiten ari da Debagoienean

Berez, eztarriko gaitzen kontrako zaindaria da Armeniatik 320. urtean eratorritakoa den San Blas

**U.M.** | DEBAGOIENA

Egunotan Elgeta aldeko atariren batean sartuz gero, erraza da anis usain gozo eta erakargarria igartzea. Horren atzean, opil obalatu puntatxodunak aurkituko ditugu, otsailaren 3aren bueltan egiten diren San Blas opilak, alegia.

"Amaren izebak 105 urte hartu zituen eta hark beti egiten zituen obalatuak eta puntatxoekin. Ez dakit zergatik den horrela, baina nik ere hala egiten ditut. Opilari itxura borobila ematea eta gainean *San Blas* ipintzea uste dut gozodenda eta okindegietako ohitura dela", kontatu du Eli Arantzeta elgetarrak.

**Bedeinkatu, opilak eta...**

San Blasak egin eta jateaz gainera, tradizioaren barruan dago opilak bedeinkatzea. Elgetan, Aretxabaletan eta Bergaran, esaterako ohitura handia dago. Elgetan, gainera, San Blas egunean ez ezik (domekan, 12:00etan), zapatuan ere bedeinkatuko dituzte opilak (19:30ean). Eta parrokiaz gainera, San Blas ermitan ere botako diete ur bedeinkatua, opil eta bestelakoei (13:00).

Izan ere, San Blasen aitzakian, opilekin batera beste makina bat gauza (jaki, batez ere) bedeinkatzen dira: "Zaharrei entzunda, eta neuk ere hala egiten dut, gatza eramaten dut. Atzo (martitzena) erosita ditut hiru poltsatxo", esan du Nati Arrieta elgetarrak.

Gozokiak ere asko bedeinkatzen direla gogora ekarri digu hark, eta ikusita duela laranjak eramaten ere. Azken batean Blas zaindaria eztarriko gaitzen zaindari moduan iritsi zaigu gurera.



San Blas opilak, jateko gertu. | LABIBLIOTECADECARPANTA.WORDPRESS.COM

## ZABALIK



**JULEN ARRIOLABENGOA**
http://goiena.net/iritzia/

# Aukera bat atez atekoari

Etxeetako zaborra biltzeari 70eko hamarkadaren hasieran ekin jakon Aramaixon. Kale bazterretan hasi ziren pilatzen zabor poltsak eta Floren *Labia* pasatzen zan bere kamioiaz hareik jasotzen. Ordura arte, etxeko zaborra ortuetan zabaldu edo erretzen zan edo, bestela, errekara botatzen zan. Berehala ohitu ginen errekan *lejía conejo,* tomate latak eta ardau botilak ikusten, eta kaleetan zabor poltsak pilatuta.

Hasieran poltsa hareik Añebarriko presa gainean, errepide ondoan, hasi ziren pilatzen, bertan su emoteko. Segituan ikusi zan ha ez zala ideia ona: airean kiratsa, erreka zikin eta errepidean lainoa… eta fauna gora. Azkenean, Bolinburuko bide ertzean zabortegia zabaltzea erabaki zan eta hantxe pilatu ziren urteetan zehar Aramaixoko zaborrak oro, danetarikoak. Debekatua genduen hara hurreratzea, baina behin baino gehiagotan ibili ginen zabor pilo haren ke artean altxor txikien bila. Arta-ganbaran gordeta, *vasquitos y nesquitas* kaxa bat izan nuen hango altxorrez betea, egun batez desagertu zan arte. Gehienetan, ordea, karabinak hartuta joaten ginen hara, arratoi ehizan.

**"Segituan ikusi zan ha ez zala ideia ona: airean kiratsa, erreka zikin..."**

Baina zabortegi hark ere gainezka egin auen eta Aramaixoko zaborrak Arrasate aldera hasi ziren bidaltzen, hango errausteגira. Honek be ez euskun irtenbiderik emon; buruhausteak ugari bai, ordea. Aramaixoko zabortegia zein Arrasatekoa zigilatu egin zituzten, hau da, lurrez estali. Gaur egun Araba aldera bialketan dira zaborrak, han tratatuak izateko. Zabor mordoa, gero eta gehiago sortzen dugu. Sailkatu, ondigon erdia be ez. Eta sailkatu ezik, ezin birziklatu. Horretarako pauso bat izan leike atez atekoa. Helburua, berriz, zero zabor.

AHTren lanak Bolinburu ingurura iritsi zirenean, makinek lurrak mugitu eta zabortegi zaharreko altxorrak eguzkitara atera zituzten berriro. Han agertu zan nire *vasquitos y nesquitas* kaxa.

## USTEAK USTE

**JON BEREZIBAR** | jberezibar@goiena.com

# Sukar 'Inauterizalea'

Egia ote aurten Inauteriak "flojo samar" datozela Arrasaten? Hala entzun dut nik. Sukar *Inauterizaleak* gogor kolpatu zuen herria orain urte batzuk, *martitzen versus zapatu* eztabaidak ere eman zituen bereak, baina itxura behintzat zen zapatukoak bidea bazeukala egina. Eta aurten? Bazkari herrikoirako txartelak sobera daudela, mugimendu gutxi ikusten dela koadrilen artean, karrozarik ez dabilela inor egiten gaztetxean... Sukarra izan al zen, beste barik, eta Arrasatek gris fama hori ondo merezita dauka? Jaiok egutegian aurten hainbeste aurreratu izanak ere eragina izango zuen eta baita azken asteetako eguraldi ilunak ere. Hain zuzen, horregatik Inauteriak!

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Erromaren aztarrenak

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Baionako subprefektak Hendaiako alkateari bidali dio gutuna gogoratuz, 1850eko legeren baten arabera, ezin izango diola bertako ikastolari agindutako dirulaguntzarik eskaini. Gora Errepublika, gora modernitatea. Erromak dirau.

Subprefekta, XIX. mendeko legeria, funtzionarioak hautetsiari agindu beharra… bada honetan guztian giro zaharkitu samarra. Ez dut nik Frantziako Errepublika sakratuaren demokrazia zalantzan jarriko baina, horratik, zein kutsu geldoa darion guztiari!

Berrogeita hamar urtetik beherako “gazteek” ez dute segurutik gogoan izango, baina horrek guztiak oroitarazten dit niri frankismoaren garaian espainiar probintzietako gobernadore zibil ahalguztidunen jarrera.

Iparraldeko germaniarren eta anglosaxoien europar tradizioan ez bezala, hegoaldeko latin herrietan indarrean jarraitzen du oraindik erromatarren inperioaren eskolak. Probintziak *(pro vincia,* garaipenez alegia), gobernadoreak, prefektoak, subprefektoak eta inork hautatu gabeko gainerako sasi-agintemakilak.

Espainiar demokrazia zein Gernikako Estatutuaren eskuduntzak ez dira gero eredugarrienak izango, badute segurutik zertan hobetu, baina, ezin uka behintzat, Bidasoaz honaindi nekez uler genezakeela, honezkero, Paueko prefekta edo Baionako subprefekta bezalako agintari zuririk. Bai, badakit gurean Espainiako Gobernuaren Ordezkariak dirauela oraindik ere eta, horrez gainera, hiriburu bakoitzeko badirela, hor nonbait, nolabaiteko "ordezkari-orderen" batzuk. Baina, inork ezagutzen al ditu?

Beste modu batez esanda, ba al daki inork nor den, esaterako, Gipuzkoako "subprefekta"?

# Zurikeria

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Bizitzaren zebrabideetatik ibiltzeko agintzen diguten berak nonahitik ibiltzen dira, lasterbideak baliatzen dituzte. Ikasleari irakurketaren onurak predikatzen dizkion irakasle horixe ez duzu sekula ikusiko bere asignaturakoa ez den liburu baten aurrean. Alkohola kaltegarria dela eta asko edateak hondamen handienak dakartzala esan dio aitak semeari, kopatxoari tragotxoa eman eta gero. Sutu egiten zaituzte ustelkeria kasuek, baina zenbat aldiz ordaindu duzu BEZik gabeko faktura bat, zenbat aldiz egin diozu izkin ogasunak kontrolatuko ez dizun dirutxoren bati?

Diskurtsoek ez bezalako egiatasuna dute egintzek, predikatzen duguna ez dator beti bat praktikatzen dugunarekin.

Euskarari buruzko gure diskurtsoek gure egintzen egiarekin egiten dute talka. Eta seme-alabek imitatu egiten gaituzte: "Ikasle gehienak euskaraz aritzen dira gelan, baina gaztelaniaz patioan", irakurri genuen joan den asteburuan.

OHARRAK (Post scriptum): haurren gela (euskaraz egiten duten espazioa) gure *euskaldun irudia* jokatzen den esparrua da, diskurtsoa. Haurren patioa, berriz, gure hipokresia alboratu eta biluzik ageri garen espazioa (errealitatea).

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## '100 urte, eta osasuntsu'

**Carmen Oyarbide Acha (Leonardo Acharen biloba) eta Ana Carmen Etxeberria Oyarbide (Leonardo Acharen birbiloba)**
Bergara

Benetan gustura irakurri genuen *Goiena*-n 536. alean agertutako artikulua, Bergarako Zabala farmaziaren 100. urteurrenari buruz. Interesgarria iruditu zitzaizkigun XX. mendearen hasieran Bergarak erakusten zuen egoeraz bertan ematen diren xehetasunak. Artikuluan honela irakur dezakegu: "Zabalaz gainera, Bergaran beste bi farmazia zeuden joan den mende hasieran, Pantaleon Zabala eta Hermanos Atxa, biak Bidekurutzetan". Nahiz eta detaile oso txikia izan, xehetasun batzuk ematea gustatuko litzaidake:

Egia da Bidekurutzeta kaleko 12. zenbakian Atxa izeneko botika zegoela, baina farmazia honek ez zuen inoiz Hermanos Atxa izena eraman, baizik eta Leonardo Acha. Leonardo Achak ez zuen anai-arrebarik Bergaran, eta bera zen farmaziaren jabe bakarra. Markinatik etorri zen, Oñatitik igaro ondoren, farmazia jartzera. Ez dakigu oso ondo zein urtetan etorri zen, baina badakigu 1889. urtean (Carmen Acha, gure ama eta amama, bere alabaren jaiotze data) farmazia martxan bazegoela.

*Achaneko botika* (horrela entzun dugu askotan) Leonardo Acharen esku urte dezente egon zen. Seme-alabek ez zuten aitaren bidea jarraitu nahi izan eta beste batzuek hartu zuten honen ardura, azkena Eusebio Camacho izanik.

Oso atsegina da Zabala anaiak hain pozik eta "osasuntsu" ikustea eta jarraitzeko gogo handiz.

Zorionak, eta urte askotarako!

## Adierazpen askatasuna Oñatin

**Kepa Mendiluze**
Oñati

Oraingoan kalean ikusitakoarekin asko haserretu naizenez, ez zait beste erremediorik bururatu nire ondoeza kanporatzeko, eta etxera etorri eta honako gutun hau GOIENA paperera idaztea erabaki dut.

Hasteko, esango dut txikitatik borrokatu dudala Euskal Herriarengatik, adinez nagusia izan baino lehen manifestazioetara joaten, jaialdietan parte hartzen, eta abar, eta abar.

Borrokatze horren arrazoietako batzuen artean, bakoitzaren "adierazpen askatasuna" deritzogun hori erreklamatzen nuen, herriaren esana kontuan izatea edo erabakiak herriarekin batera hartzea, baita gezurrak eta inposaketak desagertzea ere.

Urte haietan, ez nuen ikusten gobernuburu ziren politikariek arrazoi horiek betetzen zituztenik; beraz, bozkatzeko aukera eman zidatenetik, konfiantza osoa nuen talde baten alde ibili naiz, nire konfiantza ematen.

Hara nolako poza! Azken hauteskundeetan, amestutako taldea agintean jarri zen.

Hasierako urratsak ez zitzaizkidan hain traketsak iruditu eta nahiko itxaropentsu nengoen gauzak oraingoan ondo egingo zituztelakoan.

Baina denbora pasa ahala, konturatu naiz talde hau ere besteen berdina edo oso antzekoa dela.

Azken esaldi hau argumentatzeko, ikusi edo entzun ditudan bi txorakerietan bakarrik ez naiz oinarritu, baizik eta uste dut dezente direla gertatutakoak, behintzat, nire herrian, Oñatin.

Esan bezala, batzuk aipatzearren, zaborren kontuarekin nator. Ez ditut ondo ikusten zakar poltsa asko ipini dituzten ateetan egin dituzten margoketak, eta, are gutxiago, gaur goizean ikusi ditudanean Udaleko langileak semaforo eta argindarreko kableetatik zakar poltsak kentzen. Beraz, orduan, non dago herri honetan, orain agintean daudenak horrenbeste borrokatu eta hain altu defendatzen duten "adierazpen askatasuna" eta errespetua besteekiko eta beste era batera pentsatzearena?

Hau da, plaza inguruan dauden *Fan hemendik*-eko maletek badaramate gutxienez lau hilabete edo gehiago, baina badirudi ez dutela molestatzen, beste hainbat gauzaren artean.

Beste gauza bat ere aipatuko nuke: legezkoa da agintean ez egoteak borrokatu beharra ekartzen duela, manifestazioz, margoketaz eta abarrekin, baina ez dudana ulertzen, inondik inora, orain agintean izanda nola jendea konbentzitzeko erabili behar diren pankartak, margoketak, eta abar, zeren hori ere kutsadura ez al da ba? Herria ikustea besterik ez dago.

Beste gauza asko daude, baina denak ezin ditut aipatu, bestela orrialde batzuk beharko nituzke-eta.

Honekin guztiarekin hausnarketa bat egin dut: politika talde guztiak berdinak direla, desberdin bat egongo zen esperantza nuela, baina denborak pikutara bidali dizkidala nire ilusioak, eta, gaur egungo gazteriaren gehiengoak bezala, ez dudala politikan sinesten, ez estatu mahaian, ezta Euskal Herrian ere.

Alde guztietan bezalaxe, inork ez du herriarengan pentsatzen; hau da, txiroa, erdalduna, ingelesa, PPkoa edo dena delakoa, guztiok gara herria eta gauzak ondo egitea da bidea, "denon artean lagunduz", ez norberarena begiratuz, eta gero, gainera, beste guztiena kritikatuz.

## Oñati, ikastetxeak... eta hondakinak

**Jose Mari Agirre Urzelai**
(Oñatiko guraso talde baten izenean)
Oñati

*Eman aukera bat atez atekoari* goiburuarekin, Oñatiko Kultur Etxean urtarrilaren 11n egindako agerpenaren berria jaso da komunikabideetan.

Alabaina, berri horretako argazkian lehen lerroan zutik zeintzuk dauden eta nola kokatu diren ikusita, bigarren mezu bat ere antzeman diogu agerpenari: "Eskoletan ere atez atekoaren alde egin da". Izan ere, herriko ikastetxeetako klaustroetako (eta zuzendaritza-taldeetako) zenbait kide ageri dira lehen lerroan zutik. Guraso oñatiarrentzako mezua da, antza.

Argazkiak zer pentsatua eman dio guraso talde honi, eta bidea zabaldu diogu hausnarketari. Izan ere, atez atekoaren kontua ez da Agenda 21eko kontu soila: erabat politizatuta dagoen auzia da gure herrian. Hala ere, eskola eta politika ez dira nahastu behar, gure iritzian. Onargarria da pertsona horiek, han-hemen kokatuta, argazki batean egotea beren ideiak defendatzen; penagarria da, ordea, pertsona horiek ikastetxeen ordezkari-plantak egiten agertzea argazki horretan. Arriskutsua, benetan! Kontsigna politikoak jarraitzen dituen irakasle batek zer-nolako hezkuntza eskain diezaieke ume eta gaztetxo oñatiarrei? Gerta daiteke, gainera, ikastetxe horietako ikasleen guraso asko ez egotea atez atekoaren alde.

Iruditzen zaigu eskolak beste bide bat hartu behar duela: pentsamendu kritikoa eta informazio anitza bideratu; praktika gogoetatsua eskaini, eta ideien eta iritzien trukea indartu. Azken xedea da ikasleek eurek eraikitzea ezagutza zenbait iturritatik edanda: iritzi kritikoa garatzea. Horretarako, nahikoa informazio jarri behar zaie eskura, eta ez iturri bakarrekoa.

Horrelaxe sortzen da kalitatezko eskola bat, eta zabaltzen da errespetuzko jarrera gizartean; begirada txarrik gabe, beldurrik gabe, herritarrak sailkatu gabe, pintadarik gabe, presiorik gabe...

## Elkartasuna ez da delitua

**Aiert Lizarralde, Jon Aranguren eta Igor Larrañaga**
(Oerlikon Balzers Coating Spain SAUko langileen asanblada)
Antzuola

Datorren otsailaren 4an Debagoieneko lau lagun, euren tartean gure lankide den Sebas Etxeberria, epaituak izango dira Madrilgo Auzitegi Nazionalean.

2011ko Korrikan preso politikoen argazkiak eramateagatik Pablo Ruz epailearen aurrean deklaratu ostean, bakoitzarentzat 15 hilabeteko kartzela-zigorra eta 8 urteko inhabilitazioa kargu publikotarako eskatzen da.

Epaiketa politiko eta zentzugabe berri honen aurrean gure babesa adierazi nahi diegu auzipetuei.
Era berean, antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

## Errauskailuak eta minbizia: demagogia

**Aintzane Oiarbide**
Bergara

Carlos III.a Osasun Institutuko ikerlarien "lan batek" errauskailuek minbizia eragiten dutela omen dio. Hau da ezker abertzalea erabiltzen ari den azken leloa.

Lan hori, bere jatorrizko hizkuntzan, ingelesez, irakurtzen badugu ez du inolako ikerketa epidemiologikorik aipatzen, hipotesiez hitz egiten du. 2002. eta 1993. urteak baino lehenagoko errauskailu eta industria mota desberdinez ari da, gaurko egoerarekin zerikusirik ez duten eraikuntzez. Minbizia bezalako gaixotasuna inolako arrazoirik gabe beldurra sartzeko erabiltzeak ez du izenik. Osasunerako Mundu Erakundeak ez du inolaz ere hipotesi hau babesten. Paris, Londres, Kopenhage, Viena edo Stockholmen hirigunean bertan eraikitzen dituzte errauskailuak. Itxuraz, Europako herrialde aurreratuenetako biztanleak desiratzen daude minbizia pairatzeko! Ezin da gezurrak bota, jendea beldurtu eta Europako errealitate honi bizkarra emanez, arrazoi absolutua izango balute bezala horrelako kanpainarik egin.

Oso argigarri izan daiteke Manuel Toharia fisikari eta ikerlariak idatzitako artikulua. *http://www.amiclor.org/index.php?option=com_content&view=article&id=129&Itemid=168.* Tohariaren hitzetan, ez dago inolako frogarik teoria hori babesteko. Minbiziarekiko erlazioari buruz dio errealitate zientifiko setatiak ez diela jaramonik egiten katastrofista hauei. Legedia oso zorrotza da errauskailuen kontrolei buruz. Ez dago horrelako kontrol zorrotzik etxeetako tximiniei, autoen ihes-hodiei edo tabakoari dagokienez.

Errauskailuen aurka dabiltzan bitartean, erretzaileak zigarroa lasai asko erretzen ari dira dioxina kantitate milaka aldiz handiagoa barneratuz. Errauskailuek erreketa ondo egiten badute, hau da, tenperatura altuaz, kontrolak eginez eta legedia betez, ez dute arazorik sortzen. Aldiz, zabortegietan (atez ateko sistemaren defendatzaileen eredua) zaborra erre egiten da, bere gisa, fermentazioaren ondorioz edo zaborra gutxitzeko erretzen dutelako. Erretze hau bai dela kaltegarriena. Hemendik sortzen diren substantziak oso arriskutsuak dira eta errauskailu baten tximiniak baino milioika aldiz gehiago direla dio Toharia zientzialariak.

**Jose Luis Korta** | Arraun entrenatzailea

# "Beti erakutsi didate lege onetik irabazitakoak balio duela, eta nik ere horretan sinesten dut"

- Aretxabaletako kiroldegian izango da bihar, besteak beste, spinning saioa egiteko
- Abonatuendako spinning saioan parte hartzeko izena emateko aukera dago oraindik

A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA

Jose Luis Korta (Orio, 1949) Aretxabaletako kiroldegian izango da bihar, zapatua, kirol instalazioak ezagutzeko (17:00), eta spinning klase batean parte hartzeko gonbidapena onartuta (18:00).

**Sarritan jasotzen dituzu horrelako eskariak?**

Bai; kiroldegietatik baino gehiago, gimnasioetatik eta ikastetxeetatik gehienetan. Telebistan agertzen naizenetik, orain gehiagotan, lehen arraunagatik bakarrik ezagutzen ninduten-eta. Deitu egiten didate, eta, emazteak esaten duen moduan, beti baietz esaten dut. Aretxabaletara Gabonetan etortzekoa nintzen, baina atzeratu beharra izan genuen. Kirolaren alde, ondo pasatzen eta pasarazten saiatuko naiz bihar ere.

**Ze asmo duzu, beraz, biharko.**

Aretxabaletako kiroldegia sekulakoa dela esan didate eta badut hori ezagutu eta probatzeko ilusioa ere. Goizean Kaikun entrenatuta, arratsalde-pasa joango gara, familia giroan, beste batzuetan egiten dugun moduan; besteak beste, ditudan bi ilobekin joateko asmoa dut. Saiatuko gara denok izerdi apur bat ateratzen, aspaldian nik neuk ez dut-eta askorik botatzen. Irakasleak esandakoa ahalik eta txukunen betetzen saiatuko naiz.

**Spinningean zer moduz moldatzen zara?**

Gustuko dut bizikleta, baina aspaldian alboratuta dut. Pentsa, bizikleta berria daukat aspaldian erosita, eta, lotsa ematen didan arren, oraindik estreinatu gabe dudala aitortu behar dut. Bizikleta estatikoa, berriz, garai baten asko erabiltzen nuen arraunerako entrenamenduetan. Spinninga ere probatuta dut, baina astoen moduan ibiltzen naiz; ez dakit ondo eta suabe egiten. Gimnasioan lagunekin elkarrekin jardutea gustuko dut, errepidean baino arrisku gutxiago daude, eta, gainera, neska polit asko joaten dira [Barre]. Ez duzu bazterrik jotzeko arriskurik.

**Bizikleta estreinatzeko astirik ez?**

Zaletasun eta konpromiso asko ditut; ezin guztiei heldu. Aurten golfean hasi naiz. Gustatzen zait, engantxatu egiten duela diote eta ni ere harrapatu egin nau; bereziki, kolpe eta kolpe artean, zulo eta zulo artean, asko ibiltzen delako dut gustuko. Horrez gainera, oilagorretan joateko ohitura ere badut; arraunean ere ibiltzen naiz, noski, nahiz eta azken horretan mutilek botatzen duten nik baino izerdi handiagoa.

**Garai baten ziklo-krosean ere ibiltzen zinen.**

Bai; gazteagoak ginenean, denera apuntatzen ginen. Saiatu egiten ginen, eta saiatzen denak gauza asko lortzen ditu. Ziklo-krosean, herri mailako hiru lasterketa egin nituen eta gogoan dut hirurak irabazi nituela. Hori bai, bizikletan baino, korrika gehiago egiten nuen.

**Kirola bai, baina sofan etzanda egotekoa ere bazara?**

Bai; gustatzen zait telebistara begira egotea. Sarritan hiru pelikula ikusten ditut batera, katerik kate saltoka ibiltzeko joera dut. Pena da iragarkiak denak batera jartzen dituztela. Besaulkian nagoenean, liburuak ez ditut sarritan eskuetan izaten.

**Bizikletara bueltatuz, azkenaldian Armstrong txirrindulari ezaguna denon ahotan dago eta baita aste honetan hasi den *Puerto Operazioa* -n ere; horiek guztiak, dopinarekin lotuta. Zer deritzozu?**

Kristoren lakra da hori. Txirrindulariengatik berba egiten den arren, kirol guztietan dago arazo hori. Zaila da horren kontra ezer egitea legeak aldatzen ez badituzte. Beste herrialde batzuetan zigortzen dituztenak hemen barkatu egiten dituzte; asko haserretzen naiz horrelako albisteak telebistan ikusten ditudanean. Edozelan ere, dopinarena ez da dugun lakra bakarra, beste arlo askotan ere badago: hortxe daude, besteak beste, kargu politikoek egiten dituzten lapurretak; bankuetan gertatutakoak... Kanpotik epaileak ekartzen ez badituzte, gauzak aldatuko diren esperantzarik ez dut.

**Zuk ere salatu izan dituzu dopin kasuak.**

Bai, ni ere gurutzada horretan nago eta hasieratik pentsatu nuen oso zaila izango zela; hala ere, kirolari bakar bat salbatzea lortuko banu merezi izango luke ahaleginak! Espainian dopinean droga kontsumoan baino diru gehiago gastatzen zela jakin nuenean, bereziki arduratu nintduen. Dirua erraz egiten duten banda kriminalen kontrolpean dago guztia; errotik apurtu behar da. Lege babes handiagoa dute legea betetzen ez dutenek betetzen dutenek baino.

**Zertan da une honetan *Operación Estrobo*?**

Salaketa partikularra jarri nuen. Sekulako kritikak jaso nituen, segituan: frogarik ez nuela eta horrelakoak. Frogak nik asko ditut, etxean dut-eta Guardia Zibilak eta Fiskalak egindako 3.000 orriko txostena. Hortxe daude zer egin zuten, zer erosi zuten... Politikariek beste alde batera begiratzen dute eta epaileei ere sekulako mendia jausi zitzaien gainera. Ez dakit noraino heldu-ko garen, baina aterako dugu aurrera. Nik gura dudana da bandera bat ekartzeko helburuarekin jendeak zer egiten duen eta nor dabilen erakustea. Iruditzen zait osasunak gehiago balio duela munduko bandera guztiek baino.

**Zer gomendio emango zenieke kirolari gazteei?**

Kirola egitea sanoa dela, baina ez dugula puntu horretaraino heldu beharrik erakutsi behar diegu gazteei. Osasunaren alde jokatu behar dugula eta tranpatiak beti tranpatiak direla! Beti erakutsi didate lege onetik irabazitakoak balio duela.

**Goazen mendi kontuetara ; aurten ere *El Conquistador del fin del mundo* saioan zaude.**

Bai; ez neukan gogo handirik joateko, iaz gaizki pasatu nuen, negar ere egin nuen. Etxean ez joateko esaten zidaten arren, azkenean, jendeak joateko eskatuta, animatu egin nintzen. Arraun denboraldiaren deskantsuan grabatu genuen eta oroitzapen politak ditut, jende asko ezagutzen duzu. Zazpigarren saioa dut; hastapenetan biziraupena oinarri zuen saioa bazen, gaur egun *reality*-a da, bete-betean. Eurek maneiatzen dute guztia.

**Zer on eta zer txar ekarri dizu saioak?**

Gauza politak egiten ditugula iruditzen zait, baina pantailan erakusten dena gero ez da horren erakusle izaten; manipulatu egiten dute, eta ez dut gustuko. Bestalde, jende asko ezagutzen duzu eta zu ere jende gehiagok ezagutzen zaitu, nahiz eta horrek ere baduen arriskua, esaten dituzunek kritika edo oihartzun handiagoa dutelako. Damutu ere egin izan zait horregatik saritan.

**Pentsatzen duzuna diozu.**

Bihotzak esandakoa disparatu egin behar dela uste dut. Bat-batekotasuna dugunok gauzak modu egokian esaten ez baditugu ere, aurretik joatea atzetik joatea baino hobea da. Arriskutsuagoa da birritan pentsatuta berba egiten duen jende zuria.

**Nolakoa da Korta?**

Bihotz onekoa, esango nuke. Orokorrean, jendea ona dela uste dut, baina, nire kontra egiten dutenean, defendatu egiten naiz. Elkarrekiko errespetua ezinbestekoa da.



Jose Luis Korta kirolaria Aretxabaletako kiroldegian izango da bihar. | ETB

**"Spinninga probatuta dut, baina astoen moduan ibiltzen naiz"**

**"Legeak aldatu beharko dituzte dopinaren lakra amaitu gura bada"**

**"Ez ditut gustuko telebistako saioan egiten dituzten manipulazioak"**

**"Bihotzak esandakoa disparatu egin behar dela uste dut"**




**erlaxatzeko eserlekua motorrarekin eta berogarriarekin opari**

**Davao sofa** 3 eserleku chaiselonguearekin. Neurria L288xP170xH81/98 zm. Tapizatuetan aukera zabala, ehun desberdinetan nahiz ekolarruan.
**Erlaxatzeko eserleku bat motorra eta berogarriarekin opari.**

**www.kibuc.com** jarrai gaitzazu

**KIBUC** Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 15 16 81

**KIBUC**
Azkenean gure etxean

# HERRIAK

ELGETA

# Intxortako frontea ere aro digitalerako prestatzen

## QR kodeak eta mugikorrerako aplikazioa 1937ko gertaerak zabaltzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Urtebetean bikoiztu egin da bisitari kopurua Intxortako frontearen kokalekuetan barrena Elgetan egiten diren bisita gidatuetan. Bisita horietan gidari lanak egiten dituen Iraitz Lazkano elgetarrak eman ditu datuak: "Iaz, 1.230 lagunek eskatu zuten bisita gidatua, eta bisitako batez bestekoa 21 lagun izan zen". Bide beretik jarraitzea da asmoa, eta 2013ko egutegia gertu dago. Horrez gain, 2013ak aro digitalerako saltoa ere ekarriko du.



Iraitz Lazkanok egindako lehen bisita gidatua, 2011ko urrian. | L.Z.

**Aplikazio berria ekainerako**

2013ko udal aurrekontuan egitasmoak 61.900 euroko diru-lerroa jaso du; inbertsioen ataleko kopuru handiena da. "Jarraitzen dugu pentsatzen gure herriarendako estrategikoa dela gerra zibilaren inguruan egin dugun ibilbide tematikoa, eta horrek bere diru-lerroa edukiko du", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. Iritzi berekoa da Patxi Basauri, Turismo burua: "Jende asko etortzen da, eta bultzatu egin behar dugu". Eusko Jaurlaritzak ere proiektua babesteko hautua egin du. Turismo sailetik 38.140 euroko dirulaguntza eman du gunearen bisita mugikorretik egiteko aplikazio berria sortzeko. "Eusko Jaurlaritzak Top esperientzien barruan sartu du Elgetako egitasmoa", esan du Erostarbek.

**Errekreazioa apirilean**

Apirileko urtemuga ere berezia izango da aurten. Herritarren parte hartzearekin frontearen errekreazioa egin gura du Udalak: "Belga inguruko lubakietan izango da errekreazioa; bertan gertatutakoak ekarriko ditugu gogora", esan du Erostarbek. "Gura dugu herritarrek parte hartzea; 60 bat lagun beharko ditugu. Laster zabalduko dugu izen-emate epea".

**Seinaleztapen berria**

Udalak, bestalde, seinaleztapen panelak ipini gura ditu. Ibilbidearen berri emango dute baita Espaloia kafe antzokian aurkitzen den erakusketa iraunkorraren kokapena adierazi ere. Helburua da memoria historikoaren inguruan egindako lana ahalik eta jende kopuru handiagoarengana zabaltzea. Interpretazio zentroa urte osoan dago zabalik —kafe antzokiko ordutegiarekin— eta sarrera doan da. Bisita gidatuen egutegia ere gertu dago —hilean bi—. Prezioak dira: 16 urtetik gorakoendako bost euro, eta 6-16 urte artekoendako bi euro.

### Aplikazio berria memoria ez ahazteko

Erakusketa iraunkorra, ibilbide tematikoa, bisita gidatuak, urteroko ekitaldiak... azken urteotan ahalegin handia egin da Intxortako frontean gertatutakoak argitara ekartzeko. Proiektuak presentzia du dagoeneko Facebook eta Twitter moduko sare sozialetan, baita Gipuzkoako museoan atari digitalean ere. Espaloiko Interpretazio zentroan dagoen QR kodeak, bestalde, ibilbidea nork bere kabuz egiteko aukera ematen du. 2013an, ordea, teknologia eta aplikazio berrietara salto berria emango da. Jaurlaritzaren babesarekin, bisitak mugikorraren laguntzarekin egiteko aplikazio berria garatuko du Udalak. Historypin aplikazioak ere erabilera berriak eskaintzen ditu. Gerra garaiko argazkiak aurkituko dituzue, besteak beste. Non eta noiz ateratakoak diren ere jasotzen da bertan.



Ibaizabal batailoiaren San Migel konpainia, Elgetan. | EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA

**IRAITZ LAZKANO**
BISITEN GIDARIA

### "Eskatzailearen beharretara egokitzen ditugu bisita gidatuak"

2011ko urrian hasi zen Iraitz Lazkano elgetarra Intxortako frontera bisita gidatuak egiten. 2011n 550 bisitari etorri ziren. Iaz, 2012an, halako bi.

**Bisitari kopurua gora doa?**

Bai. 2012an, 1.230 lagun izan ziren Intxortako frontea ezagutzen. 16 urtetik gorakoak 1.040 izan ziren; 6-16 urte bitartekoak 182; eta sei urtetik beherakoak, zortzi.

**Noiz etortzen da jendea?**

Zalantzarik gabe, jende gehien apiril aldean etortzen da, frontea jausi zen urteurrena gogora ekartzen dugunean. Ekitaldi bereziak egin ohi ditugu, eta nabaritu egiten da. Iaz, 200 lagun izan ziren 75. urteurrena zela-eta. Bisita gidatuak ere igande oro egin genituen.

**Nondik dator jendea?**

Bisitari gehienak bailarakoak edo ingurukoak dira: Debagoiena, Debabarrena... Durango aldetik ere etortzen dira, baita hiriburuetatik ere. Gutxi, euskal herritarrak. Bikote bakarra etorri zen iaz kanpotik, kantabriarrak ziren.

**Eskolendako ere antolatzen dira bisitak, ezta?**

Iaz, 14 ikastetxe etorri ziren. Gainera, Bergarako guraso elkarte bat 120 laguneko taldearekin, lau gazte asanblada, eta hiru euskara elkarte.

**Bisita bereziak ere egiten dituzue, ezta?**

Eskaera egonez gero saiatzen gara bisitarien beharretara egokitzen. Aste tartez egin daitezke edo iraupen laburragokoak... Eskatzailearen beharretara egokitzen saiatzen gara beti.





Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 25 98
www.arrasateoptika.com
arrasateoptika@euskalnet.net




Optometria konportamentala
•
Ukipen lente bereziak
•
Ikusmen terapia
•
Pertzepzio zailtasunak
•
Jatorrizko erreflexuak


Urtarrilaren 31tik otsailaren 28ra, zatoz
Gorbeiako
Pagotxen
bila
Izugarrizko beherapenak gai asko eta askotan.
Salgaiak bukatu arte bakarrik!
Adibidez:
DECATHLON
BIZIKLETA FREERIDE ROCKRIDER ER1
Lehen 1.299,95€
ORAIN 1099.95€
Carrefour
GIZONEZKOEN GALTZA TXINATARRAK
Lehen 25,00€
ORAIN 7,50€
merkal calzados
SPORT ZAPATILAK
NEURRIAK: 24-27
ADIDAS
Lehen 31,00€
ORAIN 15,50€
BRICO DEPÔT
BAINUGELAKO ALTZARIA
Lehen 86.95€
ORAIN 60€
CÓCTEL haurrak
2-12 URTE
HAURREN BAKEROAK
Lehen 20,99€
ORAIN 6,29€
CORTEFIEL
GIZONEZKOEN TRAJEA
Lehen 459€
ORAIN 179€
LOW COST
novia y fiesta
EZTEI SOINEKOA
Lehen 1.470€
ORAIN 850€
pimkie
JAKA BELTZA
Lehen 32,99€
ORAIN 12,00€
... eta beste asko
Aukera gehiago ikusteko: www.centrocomercialgorbeia.com
GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com
Carrefour
DECATHLON
Norauto
BRICO DEPÔT
merkal calzados
CIMER
SAMIRA
CÓCTEL haurrak
CORTEFIEL
Mr. Wok asian bistro
Carrefour Viajes

# Udalak herritarrengana joko du hiri hondakinen arazoari heltzeko

- Otsailaren 6tik 10era galdeketak bidaliko dituzte etxeetara; horiek betetzeko dei egin dute
- Hilaren 13tik aurrera, Gazte Bulegoa informaziorako gune izango da eguaztenero (18:30-20:00)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE
Arrasateko Udalak herritarrengana joko du hondakinen bilketa sistemaren gainean informazioa jaso eta, behin euren irizi eta kezkak jaso ostean, informazio eraginkorra ematen saiatzeko.

Otsailaren 13tik aurrera, Gazte Bulegoa izango da arrasatearron iritzi, iradokizun zein kexak jasotzeko gunea. Eguaztenero, 18:30etik 20:00etara. Herritarrekin bilera irekiak egingo dituzte; hasieran, labur azalduko diete atez atekoaren alde zergatik egin duten eta sistemak nola funtzionatzen duen. Gero, gaiaz hitz egingo dute, jendeak dituen galderei erantzunda. Era berean, arrasatearrek atez ateko bilketa sistemaren gainean duten iritzia jasotzeko, galdeketa bat prestatu dute eta hilaren 6tik 10era bitartean etxean jasoko dute herritarrek.

**Eskaerak, bulegoko postontzian**
Arrasatearrek hilabete inguru izango dute galdeketa horri erantzuteko; Gazte Bulegoaren atariko postontzian utzi ahalko dira idazkiak –anonimotasunean, noski–, martxoaren 8a baino lehen: "Herritarrak animatu gura ditugu galdeketak betetzera. Oso garrantzitsua da Udalarendako arrasatearrek gai honen inguruan zein ezagutza maila duten jakitea. Zerk duen lehentasuna eta zerk ez... Hori guztia kontuan izango dugu gero informazioa bideratzeko hutsune horiek betetzera", dio Josu Pereda Ingurumen zinegotziak. Udalak 15 egun hartuko ditu erantzunak lantzeko.

**"Ika-mikan ez gara sartuko"**
Bestalde, hondakinen gaia erabat politizatuta dagoela uste du Inazio Azkarragaurizar alkateak: "Zoritxarrez hondakinen problematikaren gaia guztiz politizatuta dago eta ondorioz, distortsionatuta. Badakigu jendeak galdera asko dituela eta nazkatuta dagoela, erantzunak jaso ordez, prentsan egunero batzuen eta besteen arteko eztabaidak irakurtzeaz. Bada, gure aldetik esan behar dugu ez garela gehiago sartuko jendea nahastu besterik egiten ez duten ika-miketan", dio. Era berean, Peredaren arabera, atez atekoa ezartzeko "pisuzko argudioak" ditu Udalak: "Agian ez dira erraz helarazteko argudioak, eta uste dugu herritarrak nahas-pila handia duela gaia politizatu delako. Benetan uste dugu informazioarekin ondo bidera daitekeen gaia dela".

Beraz, Gazte Bulegora "lasai asko" etor daitezela adierazi gura die Peredak herritarrei: "Horretarako gaude. Buruan dituzten galderak egin ditzatela eta euren iritzia adieraz dezatela inongo beldur eta konplexu barik".

**ESANAK**

**"Jendea nahastu egiten duten ika-miketan ez gara sartuko"**
INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

**"Informazioarekin ondo bidera daitekeen gaia dela uste dugu"**
JOSU PEREDA | INGURUMEN ZINEGOTZIA



Azkarragaurizar eta Pereda, Gazte Bulegoaren atarian. | JOKIN BEREZIARTUA





Haurra amarekin, iazko kalejira Iturriotz kalera heldu zenean. | JOSETXO ARANTZABAL

# Azken txanpa mozorro eta karrozak prestatzeko

## Herri bazkarirako txartelak erosteko azken aukera domekan: Iluntz, Basati, Kajoi eta Monten (20 euro)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Aurreko urteetan baino lehenago helduko dira aurten Aratusteak. Eta horrek, antza, eragin zuzena izango du arrasatearrengan, ohi baino denbora laburragoa izanik, koadrila batek baino gehiagok erabaki duelako aurten karrozarik ez egitea. Aratusteekin bat egiteko ohitura duten ostalari askok ere oraindik ez dute erabaki otsailaren 9rako zein 12rako taberna nola apaindu. Badirudi, beraz, aurten Aratusteak aurrekoetan baino apalago datozela.

Horren adierazle da herri bazkarirako 350 txartel saldu direla bakarrik: "Oraingoz, ez dago mugimendu handirik, baina ziur azken orduan jendea animatuko dela", dio Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k. Txartelok erosteko azken eguna domeka honetan izango da. Iluntz, Basati, Kajoi eta Monte tabernetan daude salgai, 20 eurotan.

Hutsik egingo ez dutenak SUDC elkartekoak dira: Aratuste-martitzenean 160 kiloko sardinatzarra erreko dute Herriko Plazan.

### EGITARAUA

**HILAK 8, EGUBAKOITZA**

**18:30** Arrasate Musikalen kontzertua Amaia antzokian.

**HILAK 9, ZAPATUA**

**12:00** Pregoia Biteri plazan. Ondoren kalejira.

**13:00** Sari banaketa Herriko Plazan.

**14:30** Herri bazkaria Uarkapen.

**19:30 eta 22:30** Mikel Hats taldearekin dantzaldia.

**HILAK 10, DOMEKA**

**19:30** *Full Monty* antzezlana Amaia antzokian.

**HILAK 12, MARTITZENA**

**17:00** Mozorro desfilea Herriko Plazan.

**17:00** Hipo eta Tomax pailazoen *Dinbi Danba* lana Amaia antzokian.

**17:30** Samasiku txaranga herriko kaleetan zehar.

**18:30** Debagoieneko XIII. Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpena. Pintxo dastatzea.

**19:30 eta 22:30** Egan taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

**21:00** Sardinaren hileta: Segizioa Zerrajeratik abiatuko da erdialdeko kaleetan ibili eta sardina Herriko Plazan erretzeko.

## Txotx denboraldiaz gozatzeko autobusak irtengo dira Arrasatetik, hilaren 9tik apiril amaierara arte

Monte tabernaren, Aizpurua autobusen eta Iparragirre, Ipintza eta Saizar sagardotegien ekimenari esker, txotx denboraldiaz gozatzeko autobus zerbitzua izango dute arrasatearrek otsailaren 9an hasi eta apirila amaitu bitartean. Bi aukera daude: menua eta garraioa gura dutenek 46 euro ordaindu beharko dute eta garraioa soilik nahi dutenek, 16 euro. Monten eman behar da izena asteburu aurreko eguazteneko 22:00ak baino lehen.

## Obrak direla-eta, aste bukaeran autoei txandaka pasatzen utziko zaie San Frantziskoko biribilgunean

Otalora kalean, San Frantziskoko biribilgune inguruan –Taupa tabernaren parean– Iberdrolarentzako lan batzuk egiten dihardu Construcciones Artzamendi enpresak. Hala, autoen zirkulazioa bideratzeko semaforoa jarriko dute aste bukaeran eta ibilgailuei txandaka pasatzen utziko zaie. Bihar 08:00etatik 18:00etara eta domekan 08:00etatik amaitu arte arituko dira lanean. Ahalik eta oztopo txikienak eragiteko lanak asteburuan amaituko dira.



Lanak Otalora kalean. | UBANE MADERA

## Kolonbia gai hartuta, otsailean domekero izango da zer ikusi gaztetxean, Arrasateko Askapenari esker

Arrasateko Askapenak antolatzen dituen *Zine metrallak* ekimenak Palestina izan zuen abiapuntu urtarrilean. Otsailean, berriz, Kolonbia izango da gaia. Otsailean zehar lau film ikusi ahal izango dira gaztetxean, domekero dokumental bat: domeka honetan, hilak 3, *La gente de la Universal*; hilaren 10ean, *Colombian dream*; hilaren 17an, *El Baile Rojo;* eta hilaren 24an, amaitzeko, *Sicario*. Dokumental guztiak 18:30ean hasiko dira.




Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Guk bezala, egin apustu, egin kiñu Euskal Eskola Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

### Markel Blancok Arrasateko errekorra ondu du 800 metrokoan

Markel Blanco atleta arrasatearra ondo entrenatzen dabil, eta lan horren fruituak batzen hasi da dagoeneko. Izan ere, joan den astean Arrasatekoak 1994a ezkero inork hobetu gabeko errekor bat ondu zuen, hain zuzen, Gabriel Saavedrak 800 metrokoan zuen marka. Blancok 1.56.43ko denbora behar izan zuen 800 metroak egiteko. Hurrengo erronka, berriz, Jose Ramon Petreñasek 1990ean ezarritakoa gainditzea izango da –1.500 metroko lasterketa 4.00.30ean.

### Elorrioren kontrako porrota zuzentzeko aukera du ARTk

Igor Isasiren mutilek etxean jokatuko dute ostera, eta joan den astean Elorrioren kontrako derbian jasotako porrotari buelta emateko aukera ezin hobea izango dute. Partidua amaitutakoan Isasik berak onartu zuen lan zaila izango dela: "Uribealdea aurrealdean dabilen taldea da, eta ez da erraza izango irabaztea. Baina ea Elorrioren kontrako partiduak utzitako zapore txarra kentzeko balio digun". Izan ere, amorratuta amaitu zuen Isasik.

### Dorletako Ama pilota txapelketan izen-ematea zabalik

Aurten ere Mauri Zubillagak federatuta ez dauden pilotariendako Dorletako Pilota Txapelketa antolatu du, eta datorren otsailaren 24a izango da izena emateko azken eguna. Pilotari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu, eta partiduak domeka goizetan jokatuko dituztea, hilean behin. Txapelketa martxoaren 3an hasiko dute, eta finalak Gatzagako jaietan izango dira, irailaren 8an eta 9an. Partiduak pilota goxoekin izango dira (605 72 40 96, Mauri).

### Herri Oihua eta Lucas Prest! taldeak gaztetxean bihar

Arrasateko gaztetxean kontzertua izango da bihar, zapatua, gauean, 22:00etan hasita. Taula gainean Barakaldoko Herri Oihua eta Eskoriatzako Lucas Prest taldeak izango dira. Bizkaitarrek metala egiten dute eta Durangorako atera zuten euren lehenengo lana, *Arjea* izenekoa. Hala, kolaboratzaile ezagun asko izan dituzte. Eurekin batera izango dira Lucas Prest! taldekoak. Eskoriatzarrek hamarkada bat beteko dute taula gainera hardcore eta punk doinuak eramaten.



Istar Dapena eta Jonathan Perez, abenduan, Mojategin. | X.U.

# Ikaslea dagoeneko hasi da errekorrak hobetzen

Istar Dapenak Gipuzkoan 1983an ezarritako marka bat gainditu du pertikaz

XABIER URZELAI | ARRASATE

Kirolean ez da ohikoa modalitate berean emakumezkoek gizonezkoak ezkutuan uztea, baina tarteka gertatzen da –eta ze beharrezkoa den, gainera–. Horixe gertatu zaio orain arte Istar Dapenari, ondoan zituen emakumezko atletek, Maialen Axpek eta Malen Ruiz de Azuak, eraman dituztela merezitako loreak.

Baina Istar Dapena Vega poliki-poliki bere bidea egiten dabil. Hala, joan den zapatuan marka ederra gainditu zuen Jonathan Perezen ikasleak: hain zuzen, duela 30 urtetik Fernando Cortesek zuen errekorra gainditu du Realeko atletak, pertikarekin 4.40 metroko saltoa eginda. Hala, Gipuzkoan 1983tik zegoen marka bat gainditu berri du Arrasatekoak; hor dute erronka atzetik etorriko diren gipuzkoarrek.

**Malenek gertu dauka helburua**

Bestalde, Malen Ruiz de Azuak gertu dauka aurtengo ametsa betetzeko behar duen gutxieneko marka. Arrasatekoak 3.95 metroko saltoa egin behar du udan egingo dituzten junior mailako Europako Txapelketan parte hartu ahal izateko, eta dagoeneko gertu dabil, Euskadiko Kluben Arteko Txapelketan 3,90 metroko saltoa egin zuelako.

**Ez zen errekor bakarra izan**

Txapelketa berean Arrasateko atleta gehiago izan ziren protagonista. Gizonezkoetan Jonathan Perez izan zen pertikarekin onena (4.65) eta luzera saltoan Iñigo Uribarrenek lan txukuna egin zuen (14.56). 1.500 metroko proban, berriz, Markel Blanco bigarren izan zen.



Irakurle Klubeko dinamizatzailea irakurleekin solasean. | ARRASATEKO UDAL BIBLIOTEKA

# Irakurle Kluba, ohitura onak sustatzen joateko

Bihar, zapatua, egingo dute hurrengo saioa, haur eta gurasoei irakurtzeko ohitura sustatzeko

X.U. | ARRASATE

Azaroa ezkero Arrasateko Udal Liburutegian Irakurle Klubeko saioak antolatzen dituzte, guraso eta haurrak bildu eta dinamizatzaile baten gidaritzapean irakurketa ohiturak sustatzeko.

**Guraso zein haurrendako**

Mari Gartzia da Irakurle Klubeko dinamizatzailea eta guraso zein haurrak elkarrekin gozatzeko helburuaz antolatzen dute ekimen hori. Hala, haurrek 6 eta 7 urte artekoak izan behar dute, eta Kulturaten eta Santa Marina auzoan burutzen dituzte irakurketa saio horiek, hilean behin. Hala, 2012ko neguan bi saio egin ostean, urtarrilean atseden hartu eta aurtengo lehenengo hitzordua zapatuan bertan izango da, otsailaren 2an, Kulturaten (11:00etatik 12:30ak arte).

Otsaileko hurrengo hitzordua, berriz, hilaren 15ean izango da, egubakoitzean. Saio hori, baina, Santa Marinan egingo dute, 18:00etan hasita. Eta oraindik badago saio horietarako izena emateko aukera: "Saio hauetan parte hartu ahal izateko aurretik gurasoek izena eman behar dute, eta batzuek azaroan izena eman arren, norbait gehiago jasotzeko gertu gaude", adierazi digute antolatzaileek.

**Martxoan ere bai**

Otsaileko bi saio horiez gainera, Irakurle Klubeko lagunek gertu dituzte martxorako hitzorduak: hilaren 15ean Santa Marinako liburutegian egingo dute saioa, 18:00etan hasita, eta martxoaren 16an, berriz, Kulturaten (11:00 -12:30).

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Fidel - Abokajarro | 5-1 |
| Ostantz - Haizeas | 6-6 |
| Dribling - Sonografos | 2-4 |
| Iluna - AT Betrayer | 2-14 |
| Iriztu - Aston Birra | 3-1 |
| Iluntz - Aldatz | Atzeratuta |
| Iluntz - Aldatz | Atzeratuta |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Sonografos | 25 | 9 |
| 2 | Iriztu | 22 | 8 |
| 3 | Abokajarro | 16 | 8 |
| 4 | Dribling | 15 | 8 |
| 5 | Ostantz | 15 | 8 |
| 6 | Haizea's Weah | 13 | 9 |
| 7 | Aldatz | 12 | 8 |
| 8 | Lasagabaster | 9 | 8 |
| 9 | Fidel & Discipulos | 9 | 8 |
| 10 | AT Betrayer | 7 | 8 |
| 11 | Iluntz | 7 | 7 |
| 12 | Aston Birra | 4 | 9 |
| 13 | Iluna Taberna | 0 | 8 |

**PARTIDUAK**

OTSAILAK 2, ZAPATUA

**10:00** Fidel & Disc.-Iluna Tab. / **Aldatz**

**11:00** Iluntz-Aldatz / **Iluna Tab.**

**12:00** Dribling-AT Betrayer / **Iluntz**

**13:00** Ostantz-Abokajarro / **Dribling**

OTSAILAK 3, DOMEKA

**10:30** Iluntz-Haizea's Weah / **Aston Birra**

**11:30** Lasagabaster-Aston Birra / **Iluntz**

**12:30** Iriztu-Sonografos / **Lasagabast.**

### Ligako oilarren arteko partiduak hamargarren jardunaldia ixteko

Aspaldian itxarondako partidua izango da domeka eguerdian (12:30); hain zuzen, hamargarren jardunaldia itxiko duena. Sonografos eta Iriztu izango dira aurrez aurre, sailkapeneko puntu kopuruak erakusten duen moduan, beste taldeekin alderatuz –oraingoz– maila bat gorago dauden bi taldeak. Iriztukoek partidu bat gutxiago jokatu dute, eta domekan dute bi taldeen arteko aldea txikitzeko aukera aparta. Jokoan hiru puntu baino gehiago dagoen partidu horietakoa izango da.

### Jardunaldi bikoitza izango du Iluntz taldeak

Joan den astean atseden hartu ostean oraingo asteburuan lanak pilatuko zaizkio Iluntz taldeari. Eurak dira, orain momentuan, 7 jardunaldi jokatuta partidu gutxien jokatu dutenak, eta sailkapenean 11. posturaino jaitsi dira. Bihar 11:00etan Aldatzen kontra jokatuko dute eta domekan, Haizea's Wearen kontra; biak ala biak, taularen erdian dauden taldeak.

# Berrogei urtez arrasatearrei kultura musikala barneratzen

- Urte berezia izango da 2013a Arrasate Musikalentzat, 40. urtemuga ospatuko baitu
- Juan Artzamendik sortutako musika eskola kontserbatorioa ere izan zen garai batean

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Arrasate Musikalek 1972an Metalurgica Cerrajera Mondragon enpresak utzitako pabiloian -egun Mankomunitatea dagoen eraikinean- hasi zuen bere bidea, eta ez da nolanahikoa izan egin duen ibilbidea. Urte asko pasatu dira, eta lekualdaketei eta beste makina bat gertaerari aurre egin behar izan diete 40 urteotan.

**Juan Artzamendi, kapitain**

Musika eskolaren historiari begiratuta, derrigor egin behar da Juan Artzamendiri buruz berba. "Hura izan zen Arrasate Musikalen bultzatzaile nagusia eta argi zeukan hasiera-hasieratik maila altuko musika eskola bat gura zuela". Hala esan digu Marta Izagirrek, egungo zuzendariak.

Gaztetan sortu zitzaion musikarekiko pasioa Artzamendiri; ezagutzen zutenek badakite gehien gustatzen zitzaiona konposatzea zela. Dena den, ilusio berezia egiten zion mundu guztiari musikarekiko zaletasuna transmitituko zion akademia bat sortzea.

Danok Abesbatzako zuzendaritzarekin batera akademia bat sortzeko ideia garatzen hasi zen 70eko hamarkadan; azkenik, 1972an Arrasate Musikal sortu zen. Juan Artzamendi bera izan zen lehenengo zuzendaria, eta hala jardun zuen 20 urtez, harik eta 1992an erretiroa hartu zuen arte. Orduan Jose Ramon Vitoria izendatu zuten musika eskolaren zuzendari eta 1995ean, Marta Izagirre, egun karguan dagoena.

**Eskolatik kontserbatoriora**

Zifra onekin estreinatu zen Arrasate Musikal; lehenengo urte hartan 330 ikasle eduki zituen. "Arrasatearren partetik oso erantzun ona" egon zela azpimarratu digu Izagirrek. Zenbakiek gora egin dute denborarekin, eta egun 594 lagunek dihardute bertan.

Baina ikasle kopurua bakarrik ez, Artzamendiren proiektua bera handituz joan zen denborarekin, eta, besteak beste, orkestra sortu zuen. Taldeak zenbait emanaldi eskaini zituen Arrasatetik kanpo, eta baita Euskal Herriko mugetatik at ere: Madrilen (1982) Santiagon (1982), Erresuma Batuan (1982), Italian (1985)...

Bestalde, musika eskola izatetik kontserbatorio izatera igarotzea lortu zen. Horrek hezkuntza arautua ematea ekarri zuen, eta ikasketak bertan amaitzeko aukera zegoen.

"Jende ugari etortzen da inguruko herrietatik ere". Halere, Izagirreren arabera, 1992an LOGSE sartzearekin erabaki zuten kontserbatorio izateari utzi eta arautu gabeko musika eskola izatera igarotzea. "Ikasle gehienak afizioagatik etortzen dira, ongi pasatu eta, musika tresna bat jotzen ikasteko, eta horrexegatik erabaki genuen urratsa ematea".

Ongi pasatzeko nahiari kasu egin eta "hezkuntza praktikoago bati lehentasuna ematen hasi" zen Arrasate Musikal, eta ondorioz, taldeak ugaritu ziren: Banda sortu zen, esaterako.

Gaur egun, Arrasate Musikalek Banda txikia eta handia, Orkestra gaztea eta sinfonikoa, Big Band, Perkusio taldea, talde mistoak eta dantza taldea ditu.

**Kultura mugimenduaren parte**

Urte hauetan guztietan Arrasate Musikaleko kideek garrantzia eman diote kalera irten eta herriko kultura mugimenduaren parte izateari; ikasitakoa praktikan ipintzea eta herritarrei gerturatzea, horixe helburua. Jaietan dela, edo data bereziren batean...

Egungo xedeetariko bat izango litzateke Arrasate Musikalek eta herriko bestelako mugimenduek (euskal dantza taldeek, esaterako) bat egitea. "Indarra emango liguke talde bezala, guztioi. Horrez gainera, leku berean egoteak ere lagunduko luke".



Arrasate Musikaleko Bandako kideak. | ARRASATE MUSIKAL



Arrasateko Musikaleko Orkestraren lehen emanaldia, 1976an. | ARRASATE MUSIKAL



Akademiako ekintzak. Umeak dantzan, Aprendices eraikinean. | ARRASATE MUSIKAL

**MARTA IZAGIRRE**
ARRASATE MUSIKALEKO ZUZENDARIA

## "Osasuntsu dago Arrasate Musikal, 600 ikasle inguru ditugu"



Z.V.D.M.

Ikasle izan zen aurrena eta 1985ean irakasle gisa hasi zen. 1995ean hartu zuen Arrasate Musikalen zuzendaritza Marta Izagirrek.

**Bost urte daramatzazue Monterronen.**

Guretzako oso esperientzia aberasgarria izan zen Aprendices eraikinean egotea. Sentimendu berezia geneukan tokiarekiko, eta penaz hartu genuen lekualdaketa. Bost urte daramatzagu Monterronen. Gauza on eta txarrak ditu; kokapen aldetik erdigunean egotea abantaila da eta goxotasun berezia dauka, egurra dela eta. Baina ez dago guztiz egokituta gure ekintzetarako: gela batzuetara joateko beste bitatik pasa behar da....

**Osasuntsu al dago Arrasate Musikal?**

Uste dut baietz. 34 irakasle daude, eta azken bi urteetan 600 ikasleren bueltan ibili gara. Pozik gaude herriarekin, musika hezkuntza kultura mailan garrantzitsua dela ikusi baitugu. Egoera zailetan ere etortzen da jendea, eta ez da atzerakadarik nabaritu. Bost urtetik aurrerako pertsonak etortzen dira, gehienbat 8-18 urte bitartekoak izanik. Azken urteetan, gainera, jende nagusi gehiago etortzen dela ikusi dugu.

**Nola ospatuko dituzue 40 urteak?**

Otsailaren 24an *Pedro eta Otsoa* eskainiko du Bandak Amaian. Maiatzerako ere jai bat antolatu gura dugu, herri mailan, kalean; jendea hurbil dadila eta zer egiten dugun ikus dezala. Eta San Juan inguruan ere zer edo zer egingo dugu ohiko kontuez gainera.

**"Sentimendu berezia geneukan Aprendicesekiko"**

# 200 atxikimendurekin aurkeztu zuten 'Berdegara' adierazpena

Ikuskizun batekin lagunduta aurkeztu zuten martitzenean Zabalotegin

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Hezkuntza, osasun, ingurumen, kirol eta sindikalgintza arloetako hainbat bergararrek sinatu dute, "modu pertsonalean", Berdegara adierazpena. Ekimena bultzatu duen Bergara Zero Zabor taldearen esanetan hondakinen arazoari "irtenbide egoki bat ematearen aldeko aldarri" izan nahi duen adierazpena da. Musika, dantza eta bertsoz lagunduta aurkeztu zuten martitzen iluntzean Zabalotegi aretoa beteta zegoela.



Zabalotegi aretoan martitzen iluntzean egindako ekitaldian batutako herritarrak. | JULEN IRIONDO

**"Errauskailua oso kaltegarria"**

Adierazpenak dio lehenengo mundu deituan "hondakin gehiegi" sortzen dela eta, horren aurrean, "herri aurreratu guztiak" jarraitzen ari diren bidea jarraitu behar dela: "Birziklapena", "eredu linealetik eredu zirkularrera pasatzea" eta zero zabor filosofia praktikara eramatea. "Seguru gaude denon edo ia denon konpromisoa dela birziklatzea. Etikoa, ekologikoa, justua eta naturala delako. Hori zela egin asmatzea da kontua. Ahalegintxo bat egiteko prest gaude? Seguru baietz. Gainera, horrela ez dugu erraustegia egiteko beharrik izango, ez Bergaran eta ez beste inon".

Erraustegiak osasunarentzat kaltegarriak direla dio adierazpenak: "Sinatzaileotako asko osasun munduko profesionalak gara eta jakin badakigu, ikerketa zientifiko guztiek hala erakusten dutelako, erraustegiak pertsonen osasunerako oso kaltegarriak direla; inork ez ditu bere etxe ondoan nahi. Birziklatuz gure osasuna zaindu, gure seme-alabei etorkizun hobea eskaini eta ingurumena gordeko dugu. Hezitzaileok ere Bergarako inguruak eta ingurumena zainduz heziko ditugu belaunaldi berriak".

Hondakinen arazoarendako irtenbidea "elkarrekin berba eginez, eztabaidatuz" eta "adostasun zabaletara helduz" iritsiko dela dio idatziak, eta "hondakinak kudeatzeko ezagutzen ditugun bilketa eredu eraginkorrak herrira egokituz".

*Berdegara*-ren logotipoa.

**Aurkezteko, ikuskizuna**

Adierazpena aurkezteko ikuskizuna egin zuten martitzenean Zabalotegin: Mikel Laskurainen esketxa, Berdegara logotipoaren aurkezpena, Osintxuko Musikara taldearen dantza, Azkaiter eta Setiren doinu eta ahotsak, bertsoak eta Jon eta Asier Altuna anaien ekarpena izan zituen saioak. Adierazpena Juan Martin Elexpuru idazleak irakurri zuen euskaraz eta Mireia Alberdi nutrizionistak gazteleraz.

# Korrikan presoen irudiak eramatearren auzipetuak

Astelehenean Auzitegi Nazionalera joango diren lau gazteei babesa erakutsi diete asteon

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Bergarako Amaia Osa, Sebas Etxeberria eta Iñaki Manuel eta Arrasateko Joseba Garitaonandia Auzitegi Nazionalera joango dira astelehenean. Epaituak izango dira duela bi urte Korrikan presoen argazkiak eramateagatik.

Auzipetuei babesa eskaintzeko agerraldi jendetsua egin zuten astelehenean Irizar jauregian. Bertan izan ziren, besteak beste, Bergarako eta Arrasateko alkateak. Auzipetuek salatu zuten beraiekin batera herri oso bat epaituko dutela: "Gure helburu bakarra presoen eskubideak onartu eta Euskal Herrira ekartzeko eskubidea aldarrikatzea zen. Bilbon urtarrilaren 12an ikusi genuen herri oso baten aldarrikapena dela guk korrikan egin genuena, horregatik nolabait herri oso bat epaitu nahi dutela uste dugu".

Gaineratu zuten epaiketa horrek Estatu espainolaren estrategi politiko bati erantzuten diola eta "nola edo hala presoen aldeko aldarrikapenak kaletik atera" nahi dituztela: "15 hilabeteko espetxe zigorra eta zortzi urteko inhabilitazioa ezarri nahi digute. Baina, epaiketak epaiketa presoen eskubideen alde lanean jarraituko dugu".



Astelehen iluntzean Irizar jauregian egindako agerraldi jendetsua. | ARRITXU BARRUSO

**Mozioa osoko bilkuran**

Udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran auzipetuek mozioa aurkeztu zuten epaiketa salatzeko. Mozioak aurrera egin zuen Gobernuaren babesarekin, PSE-EEren kontrako botoarekin eta EAJren abstentzioarekin.

EAJko zinegotzi Aintzane Oiarbidek adierazi zuen presoen argazkiak eramatea adierazpen askatasunaren barruan kokatzen dutela eta erabat "salagarria" dela epaiketa. Hori esanda, gaineratu zuen bere alderdiak uste duela Korrika bezalako ekimen bat, euskararen aldeko aldarrikapena izatera mugatu beharko litzatekeela eta litzatekeela aldarrikapen politikorik egin behar bertan. Azaldu zuen horregatik EAJ abstenitu egingo zela. Alkateak, bestetik, Gobernuaren babesa adierazi zien auzipetuei eta hurrengo egunetan egingo diren ekimenetan parte hartzeko deia egin zuen.

*Elkartasuna ez da delitua! Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean hainbat ekintza burutuko dira datozen egunetan. Gaur, egubakoitza, bertso saioa egongo da Zabalotegin, bihar 19:00etan eskualde mailako manifestazioa Bergaran eta astelehenean ere hainbat ekintza aurreikusten dira, tartean autobusa Madrilera.

Auzipetuek eskerrak eman nahi izan zituzten jasotako babesarengatik.

**Ezker Abertzalearen babesa**

Bergarako Ezker Abertzaleak, Gazte ZukGua prozesuak eta baita Arrasateko Udalak eta Arrasateko Sortuk ere, epaiketa salatu eta elkartasuna adierazi nahi izan diete Debagoieneko lau auzipetuei.

TXIPI
Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra
Aitor Zabaleta Agirre
Amillaga 5 behea
BERGARA
E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com
606 58 18 10 - www.txipi.com

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 · SS
BERGARA

# Guztia gertu dago urteko asteburu koloretsuenerako

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai, otsailaren 5etik

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Ohitura zaharrei jarraituz eguenean, hilak 7, 18:00etan Xamatz taldekoek Sorgin Dantza egingo dute. San Martin plazan, Barrenkalen, Simon Arrietan, Fraiskozurin eta Martinez de Iralan egingo dituzte geldialdiak. Herriko taberna askotan, bestetik, Aratusteetan hain ohikoak diren txerri-belarriak eta txarrankak eskainiko dituzte.

**Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

Dagoeneko urteroko hitzordu bilakatzen ari da Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Aratusteetan Bergaran eskaintzen duten ikuskizuna. Aurten ere ez dute hutsik egingo. *Sentitu, pentsatu, ekin!* ikuskizuna aurkeztera etorriko dira zapatuan, hilak 9. Sarrera sei euro ordaindu behar da eta otsailaren 5etik aurrera eskuratu ahalko dira. Bi bide daude horretarako. *www.bergara.net* helbidean erosi ahalko dira edo bestela kultura etxean (18:00etatik 21:00etara). Sarreraren bat saltzeke geldituko balitz zapatuan bertan pilotalekuko leihatila irekiko da 14:30ean.

Zapatu arratsaldean gero, Bonba Japoniarrak eta erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira egongo da. Gaztetxoenendako berriz, 18:30etik 21:30era Zabalotegin mozorro DJ jaialdia egongo da DJ Umbertorekin.



Pirritx, Porrotx eta Marimotos Eskoriatzan egindako ikuskizunean. | GOIENA

**70eko hamarkadara buelta**

Oxirondo azoka garai bateko *Potzua* diskoteka bilakatuko da zapatuan. Horixe da afarirako aurten aukeratutako gaia. Udalak herritarrei eskatu die 70eko hamarkadako jantziak eramatea. Sarrera 15 euro da eta mozorro onena sarituko da.

Aratusteekin amaitzeko martitzen arratsaldean karaoke eta DJ festa egongo da San Martin plazan, eta baita Musika eskolako gazteen bandaren kalejira.

### Aratusteetako kontzertuak 25 urte

**Berezia izango da aurtengo Aratusteetako kontzertua; 25.a izango da eta horixe da hain justu ere taularatuko dutena. Antzezlana 25 urte hauetan kontzertuak egindako ibilbidearen errepasoa izango da. Osoko bilkuren aretoan egin zen lehena, Novedadesen hurrengo dozena bat eta pilotalekuan azkenak. Urte horietan kontzertuetan parte hartu duten herritar asko taula gainera itzuliko dira. Beti bezala sorpresaz betetako gaua izango dela iragarri dute.**

# Hondakinen kudeaketak eztabaida eragin zuen, beste behin, bilkuran

A.B. | BERGARA

Asteleheneko ohiko osoko bilkuran, eskaera eta galderen tartean, hondakinen gaiak eragin zuen eztabaida. EH Bilduko zinegotzi Jaione Isazelaiak osoko bilkura monografikoan egindako adierazpen bat zuzendu nahi izan zuen. Bilkura hartan Isazelaiak EAJri egotzi zion Europan errauskailuen kontra bozkatu izana eta hemen, berriz, errauskailuaren alde egitea. Argitu zuen EAJk Europan babestu duena ez dela errauskailua izan, baizik eta 2020tik aurrera birzikla daitezkeen materialak ez erretzea. Hori esanda, gaineratu zuen 2020tik birzikla daitekeen materialik erre ezin bada ez duela ulertzen errauskailuak non duen lekua hemen. EAJk erantzun zuen esanez pasa den osoko bilkura monografikoan eztabaida ez zela izan errauskailuaren ingurukoa, bilketa sistemaren ingurukoa baizik, eta Aintzane Oiarbide zinegotziak adierazi zuen EH Bilduren arazoa dela ez daukatela zehaztuta bilketaren ostean hondakinen tratamendua nola burutuko den.

# Astelehenean bilerak hasiko ditu Udalak herritarrekin, hondakinez

Zozketa bidez aukeratutako hainbat atartetara hurbilduko dira "iritziak bertatik bertara jasotzeko"

A.B. | BERGARA

Herritarren artean hondakinen bilketarako sistemaren gaiak sortzen dituen zalantzak eta urduritasunak ikusita, Udalak herritarrekin bilerak egitea erabaki du euren iritziak bertatik bertara jaso ahal izateko.

Helburu horrekin, Udaleko eta Informazio Bulegoko ordezkariak herriko hainbat atartetara hurbilduko dira bertako bizilagunek hondakin bilketa selektiboari buruz pentsatzen dutena entzuteko. Bilerak astelehenetik eguenera egingo dituzte, otsailaren 4an, 5ean, 6an eta 7an, hain zuzen ere.

**Iritziak entzuteko**

Udalak argi utzi nahi du ekimen horren helburua ez dela "herritarrak atez ateko hondakin bilketa selektiboaren inguruan konbentzitzen saiatzea edo eztabaidan jartzea, gerturapen bat lortzea baizik". Hau da, "gaiaren inguruan guztiz aldeko edo guztiz kontrako jarrerak azaldu ez dituztenen iritziak eta zalantzak ere entzuteko aukera izatea" da Udalaren xedea.

Atarteetako saiootan jasoko diren iritziak oso aberasgarriak izan daitezke hondakin bilketa selektiboaren inguruan datozen asteetan egingo den parte hartze prozesurako.

**Zozketa bidez aukeratuta**

Bergaran 700 inguru atarte daude, baina guztietara era berdintsuan iristea ez da jasangarria, ez ahalegin ez kostu aldetik, Udaletik aurreratu dutenez. Horregatik, zozketa bitartez, lagin bat aukeratu dute.

Laginaren baitan sartu diren atarteetan bileren berri emango duen Udal-bandoa jarriko da eta atarte bakoitzeko arduradunarekin kontaktu zuzena bideratuko dela ere azaldu dute Udal iturriek, bertako bizilagunen parte-hartzea eskatzeko.

Saio horietako bakoitzera Udaleko bi ordezkari joango dira bizilagunekin batzartzera.

# Buruñao auzoan San Blas jaiak ospatuko dituzte, gaur hasita

A.B. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasi eta Santa Ageda egunera arte festa giroan murgilduta ibiliko dira Bergarako Buruñao auzoan. San Blas jaiak ospatuko dituzte eta bergarar asko izango dira, seguruenik, San Blas opilak bedeinkatzera Buruñaora gerturatuko direnak.

Gaur 20:00etan etxafuegoekin emango diete jaiei hasiera eta ondoren auzotarrentzat afaria egongo da. Nola ez, afalostean ez da erromeriarik falta izango dantzan egiteko.

**XXV. Mus Txapelketa bihar**

Mus-zaleek hitzordua dute bihar, zapatua, Buruñaon, 16:00etan. Izen-ematea 15:30ean zabalduko dute eta 15 euro ordaindu beharko da.

**Domekan egun handia**

San Blas egunean goizean goiz hasiko dute festa. 08:00etan etxafuegoak jaurtiko dituzte eta 11:00etan meza nagusia egongo da opilak bedeinkatzeko. Ondoren, auzoko elkartean salda eta txorizoa hartzeko aukera izango da. 11:30ean, Aranzadi Ikastola-Moises Azpiazu dantza taldeak ikuskizuna egingo du. Herri kirolekin amaituko da eguna.

Martitzenean, San Blas ermitako ermandadeko kideek bilkura egingo dute.






Pasa den urtean ere kantuan ibili ziren Alai Taldeko kideak. | ALAI TALDEA

# Ez da koplarik falta izango Santa Ageda bezperan Bergaran

Hiru eskoletako ikasleak, erretiratuak eta Alai Taldekoak ibiliko dira kantuan, besteak beste

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Han eta hemen Santa Ageda eguneko koplak entzun ahal izango dira gaur Bergaran. Urteroko hitzorduari huts egin gabe, San Joxepe elkarteko erretiratuak izango dira kantuan egitera irtengo diren lehenak. 10:30ean Goenkaleko komentuan egin dute hitzordua eta handik Mizpirualdera eta Mariaren Lagundira joango dira. Kalean ere hainbat geldialdi egingo dituzte, Bidekurutzetan eta Irala kalean, esaterako. Kantuan egin ostean Pertsa elkartean bazkalduko dute.

**Hiru ikastetxeak kalera**

Neska-mutikoek ere eztarriz sano dabiltzala erakutsiko dute. Aranzadi ikastolako ikasleak arratsaldean irtengo dira abestera, baita San Martin eskolakoak ere. Mariaren Lagundikoak, berriz, goizean eta arratsaldean irtengo dira.

Aranzadi Ikastolako gurasoak bestalde, azken hamar urteetan egin duten moduan kalejiran irtengo dira, 19:00etan.

Alai Taldeko kideak ere kantuan ibiliko dira urtero moduan 18:00ak eta 20:00ak bitartean, ohiko geldialdiak egingo dituzte.

## Jardunek antolatutako euskal dantzen ikastaroan parte hartzeko izena emateko aukera dago oraindik

Euskal dantzen ikastaroa urtarrilean hasi zen arren, Jardunetik adierazi dute otsailean hasteko aukera ere badagoela. Eskolak eguaztenetan izaten dira Zabalotegi aretoan 19:30etik 21:00era eta irakasleak Abarka taldeko Juantxo Urbieta, Janire Urbieta eta Jon Arrillaga dira. Jarduneko bazkideek 15 euro ordaindu behar-ko dituzte hilero eta gainontzekoek, 17 euro. Behin izena emanda, ikastaro osoa egiteko konpromisoa hartzen da. Izena emateko *jardunkultura@topagunea.com* helbidera idatz daiteke.



ANGIOLILLO LIBURUTEGIA

## Liburu aurkezpena eta solasaldia

Eguazten arratsaldean Iñaki Petxarroman kazetariak *Su haietatik, ke hauek* liburua aurkeztu zuen Irizar jauregian, Angiolillo liburutegia eta Bergara zero zabor taldeen eskutik. *Berria*-ko kazetariak adierazi zuen herri handietan ere posible dela atez ateko sistema jartzea, eta errauskailuak sortzen dituen gaitzen gaineko adibideak eman zituen.

ESKAINTZA
730 €
• Motorra, lau aldikoa
• Abiadura-kaxa, 2 + 1
• Zabalera, 92 zm
Potentzia: 6,5 ZP



OPARIA



Kupoi hau ekarriz gero,
% 10eko
DESKONTUA*
* Eskaintza baliagarria 2013ko apirilaren 30era arte

comercial BRUNET
www.comercialbrunet.com

Telleria, 2 • Labegaraieta
Tel.: 943 76 31 52 • Fax: 943 76 70 12
brunett@telefonica.net
BERGARA - GIPUZKOA

Jarrai gaitzazu:

# Laguntza teknikoak herritarren eskura

Aldundiko laguntza heldu bitartean, Udalarena izango du herritarrak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek hainbat laguntza tekniko erosi dituzte horien beharra duten herritarrei uzteko. Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrari laguntza hori helarazi bitarteko denbora tartean utziko dizkie Udalak laguntza teknikoak beharra dutenei.

Hiru ohe, zaurien kontrako hiru koltxoi, oherako hiru baranda-sorta, garabi bat, bainuontzirako jarleku birakari bat eta eskailerak igotzen laguntzeko beldar-eskailera bat. Horixe da Udalak erosi dituen laguntza teknikoen zerrenda. Horiez gain, Debagoieneko ospitale zaharrean zeuden 10 ohe artikulatu ere baditu. "Ohe horiek, baina, handiak eta astunak dira eta ezin dira edozein etxebizitzatara eraman. Horregatik erosi ditugu ohe artikulatu berriak, elektrikoak", azaldu du Gizarte Zerbitzuetako teknikari Esther Loibidek.

DATUA

**10**

MILA EURO

Gizarte Zerbitzuek 10.000 euro pasako inbertsioa egin dute laguntza teknikoetan.

### Aldunditik etorri arte

Laguntza teknikoa behar duen herritar batek Aldundiari egiten dio eskaera. Lehen, herritarrak erosten zuen beharrezkoa zuen laguntza, eta Aldundiak dirua ematen zion hori ordaintzeko. Udatik hona, baina, irizpideak aldatu egin ditu Aldundiak, eta bereak dituen laguntza teknikoak uzten dizkie beharra duten gipuzkoarrei, dirulaguntza eman beharrean. "Laguntza teknikoa behar duen herritarraren egoera urgentziazkoa dela baloratzen badu Aldundiak, berehala emango dio laguntza teknikoa, baina, bestela, itxaron zerrendan sartzen da. Egun, lauzpabost hilabete itxaron behar du herritar batek Diputazioko laguntza mota hori jasotzeko", azaldu du Loibidek.

Diputazioko laguntza etorri bitarteko epean erabiltzeko dira, hain zuzen ere, Udalak erosi dituen laguntza tekniko horiek. "Horrelako laguntzak behar dituztenak mendekotasun maila jakin bat duten herritarrak izaten dira, normalean, eta lauzpabost hilabeteko epea handia da. Ortopedia batzuek alokatu ere egiten dituzte laguntza teknikoak, baina horrek kostu bat ere badakar erabiltzailearendako. Beraz, tarte horretan Udalak utzitako laguntzak erabili ahal izango dituzte herritarrek. Diputazioko laguntza heltzen zaienean, berriro bueltatuko dute Udalekoa, beste herritar batek erabiltzeko", argitu du Gizarte Zerbitzuetako udal teknikariak.



Garabi baten eredua. | SETIC.ES

### Gizarte Zerbitzuetan eskaera

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak bere biltegian ditu erositako laguntza teknikoak, eta beharraren arabera ateratzen ditu batuta dauden kaxetatik. "Beharra duenak gure bulegoetara etorrita egin behar du eskaera, orain arte bezala. Mendekotasunaren balorazioa eskatuko diogu Aldundiari eta itxaron bitartean gure laguntzak erabil ditzake", dio Loibidek.



Errekalde eta San Lorentzo lotzen dituen pasabidea. | O.E.

## Errekalde eta San Lorentzo arteko tunela txukuntzen dihardute

O.E. | OÑATI

San Lorentzo eta Errekalde auzoak batzen dituen pasabidean asfaltatze lanak egin dituzte aste honetan. Asfaltatze lanekin batera, bertan diren uraren hartuneak zabaldu eta konponduko dituzte, sortu ohi diren putzuak ekiditeko. Argiteria berria jartzeko lanak egingo dituzte ondoren.

### Argiteria berria

Bigarren fase baten, argiteria berria jarriko da pasabidean. Argiteria LED teknologiaduna izango da, eta adimenduna; hau da, pertsonak detektatzen dituenean intentsitatez igoko da eta inor ez dabilenean oso maila baxuan egongo da.

Argiteria, pasabidean dagoen tunelean jartzeaz aparte, pasabide osoan jarriko da; hau da, estali gabe dauden guneetan ere argi puntuak jarriko dituzte. Izan ere, tunel barrua gutxi argiztatuta dago eta estalirik gabe dauden gainontzeko zatietan ez dago argi punturik. Egunak iluntzen duenean oso ilun egoten da gune hori, eta argiteria berriarekin arazo hori konpondu gura du Udalak. Argiteria lan horiek, baina, 16 aste barru egingo dituzte, gutxi gorabehera; hau da, apiril edo maiatz aldera.

Tuneleko eta Olakuako etxebizitza baten inguruko asfaltatze lanak Asfaltos Urretxuk enpresak egingo ditu 20.848 eurotan.


## "Berrogei urteko esperientziak bermearen ziurtagiria ematen digu"

Garraioan 40 urteko esperientzia duen enpresa familiarra da Ermuko Autobuses Barrio. Autobus zerbitzua behar duen talde edo norbanakoaren beharretara moldatzen da.





Bezeroak behar duen edozein bidaia prestatzen dute Autobuses Barrio enpresako kideek. Julio Barrio da gidarietako bat.

**Zer-nolako zerbitzua eskaintzen du Autobuses Barrio enpresak?**

Denetarikoa. Garrio nazionala, nazioartekoa, enpresa zein eskola garraioa eta edozein bidaia edo egunpasa orokor, adibidez.

**Sagardotegietara joateko planak ere bai?**

Bai, bai. Dagoeneko aurrekontu bat baino gehiago eskatu digute sagardotegiko irteerak egiteko. Eskaera jaso eta ahalik eta denbora laburrenean bidaltzen diogu aurrekontua bezeroari; egunean bertan, posible izaten bada.

Ezkon aurreko afariak, Errioxako upelategietara joateko irteerak, ezkontza egunak, koadrilen egun-pasak edota hiletak. Denetariko zerbitzuak egiten ditugu.

"Dagoeneko aurrekontu bat baino gehiago eskatu digute sagardotegiko irteerak egiteko. Ezkon aurreko afariak, Errioxako upelategietara joateko planak, ezkontza egunak, koadrilen egun-pasak edota hiletak. Denetariko zerbitzuak egiten ditugu eta ez dugu muga geografikorik"

**Zenbat lagunendako autobusak dituzue?**

Plaza kopuru askotariko autobusak ditugu, edozein taldetara egoki daitezkeenak. Eta autobusak Mercedes etxekoak dira, onak.

**Norainoko bidaiak egiten dituzue?**

Ez dugu muga geografikorik. Euskal Herri barruko bidaiak zein hemendik kanporakoak egiten ditugu; baita nazioartekoak ere, behar izanez gero.

**40 urteko esperientzia duzue.**

Bai, eta esperientzia hori berme handiko zerbitzua eskaintzen dugun ziurtagiria ere bada. Gure lana profesionala da, tratu pertsonalizatua eskaintzen diogu bezeroari, eta kalitatezkoa.

**Debagoieneko bezerorik izaten duzue?**

Bai, bai. Oñati, Aretxabaleta, Bergara eta Arrasateko koadrila askok deitu izan digute. Esperientzia ona dugu Debagoieneko jendearekin.





Sagardotegiak - Upategiak - Ezkontzak - Txangoak
Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Tel.: 943 17 15 01 / 659 87 89 89
e-posta: *info@autocaresbarrio.es* • *http://www.autocaresbarrio.es*



Aste honetan egin duten aurreneko saioa, Uxue Alberdirekin. | PILI IRAZABAL

# Irakurle taldeak, liburutegian, Pake Lekun eta gaztetxean

Bi martxan dira dagoeneko eta liburutegikoan izena eman daiteke jada

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

Bitxia eman dezakeen arren, orain arte herrian izan den irakurle talde bakarra ez zen ez euskarazkoa ez gaztelerazkoa, ingelesezko liburuen gainean jarduten duena zen –*oinatibookclub@gmail.com*–. Ba hiru talde berri sortuko dira orain denbora tarte laburrean –Udal Liburutegian, Pake Leku jubilatuen elkartean eta Antixenako gaztetxean–, euskarazkoak –liburutegian gaztelerazkoa ere sortuko dute–.

Funtzionatzeko modua bera izango da kasu guztietan: taldeko kide denek liburu bera irakurriko dute, eta hilean behin egingo dute hitzordua lana komentatzeko. Liburuko ale bat baino gehiago beharko direnez, ondo dator jakitea Udal Liburutegiak baduela modua ingurukoetako izenburu bereko aleak eskatu eta irakurleen eskura jartzeko.

### Tertulixan taldea

Hala deituko da liburutegiko irakurle taldea. Otsailean izango da izen-ematea, martxoan irakurriko dute aurreneko lana eta apirilean egingo dute lehenengo saioa.

Euskarazko eta gaztelerazko taldeek bakoitzak bere dinamizatzailea izango dute, "liburuaren testuingurua azalduko duena edo egileari buruz zerbait esan", Arantzazu Ibarrondo Liburutegiko arduradunaren arabera, eta hortik aurrera solasaldia. Jendea izena ematera animatzen du Ibarrondok: "Ez da derrigorra izango taldean berba egitea ere; literaturarekin gozatzeko, ikasteko eta harremanak sortzeko lekua izango da". Edonorentzako ekimena ei da, "irakurle onentzako eta ez direnentzako". Tarteka, gainera, liburuaren egilea ere ekarriko dute kultura etxera.

### Pake Lekun eta gaztetxean

Aurreko egubakoitzean egin zuten gaztetxean irakurle taldearen lehen saioa, eta astelehenean Pake Lekun. Jubilatuen elkartean, gainera, irakurritako *Aulki jokoa* liburuaren egilea, Uxue Alberdi, bertan izan zen –normalean hala izango ez den arren–. Zazpi lagun batu dira oraingoz, eta otsailaren 19an egingo dute hurrengo saioa. Josu Zabaletak euskaratutako Andrej Longo italiarraren *Hamar* izeneko lanaz jardungo dute, 18:30etik aurrera.

Ordu berean hasiko da gaztetxeko hurrengo saioa ere, otsailaren 22an –egubakoitzetan egingo dute–. Karmele Jaioren *Ez naiz ni* lana komentatuko dute.

# Antzerkirako eta zinemarako gonbidapena du Elkar Hezik

**O.E.** | OÑATI

Gorakada antzerki taldearen *Munduari itzulia* antzezlanera joateko eta *Gartxot* filma ikusteko gonbidapena egin gura die herritarrei Elkar Hezi ikastetxeak asteburu honetarako.

*Munduari itzulia* antzezlanarekin, munduari bira emango dio ikusleak 60 minutuan. Horretarako, musika eta antzerki-baliabideak erabiliko dituzte Fogg pertsonaiak bisitatu zituen herrialde exotikoak ezagutzeko. Hori egiteko, aktore musikariak eta txotxongiloak egongo dira Santa Anako oholtza gainean. Maletak ere ikusiko dira, trenez, itsasontziz, elefante gainean edota diligentziaz bidaiatu ahal izateko.

Antzezlana zapatuan da, 17:00etan, Santa Ana antzokian, doan, eta 3 eta 11 urte arteko ume eta gurasoendako da.




*Munduari itzulia*-ko kartela. | GORAKADA




*Gartxot* filmaren kartela . | LABUTACA.ES

### 'Gartxot' berbagai

Otsailaren 5erako, berriz, Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordik zuzendutako *Gartxot* filmaren emanaldia antolatu dute zinema aretoan. Emanaldiaren ostean, gainera, aukera egongo da zuzendari artistikoarekin, Mikel Louvellirekin, filmari buruz berba egiteko. Filma ikusita, historia landu dute Elkar Heziko ikasleek eta goizean Louvellirekin egoteko aukera izango dute. *Gartxot* martitzenean botako dute, 19:30ean, zinema aretoan. Doan da.

# Garapen iraunkorraren alde dihardute Txantxiku ikastolan

**O.E.** | OÑATI

Ingurumenaren errespetua eta garapen iraunkorra ardatz hartuta, hiru ardatz nagusi ari dira jorratzen azken hilabeteotan Txantxiku ikastolan: argindarraren kontsumoa murrizteko plana, menu begetarianoaren aldeko aukera eta zaborraren kudeaketaren programa.

Argindarraren kontsumoaren diagnosia egin zuten joan den ikasturtean Txantxiku ikastolan, eta, hortik abiatuta, hobekuntza plana jarri dute martxan. Batetik, argiteria aldatu egingo dute ikastolako gela eta eremu gehienetan. Bestalde, irakasle eta langileek argindar kontsumoa gutxitzeko sentsibilizazio saioak jasoko dituzte otsailean.

Bestalde, astean behin, jaki ekologikoz egindako menu begetarianoa eskaintzen dute jantokian, dietista batek planifikatuta, gainerako menuak bezala.

### Zaborraren kudeaketa

Eskola Agenda 21 ekimenaren barruan, zaborren kudeaketaren programa jarri dute martxan, beste ikastetxeetan bezala, Arazi izeneko enpresaren aholkularitzapean. Txikienek *Etxeko hondakinak aztertzen* atala landuko dute. LHkoek herriko kaleetan, saltokietan, lantokietan zaborrak nola kudeatzen diren aztertuko dute. BHkoek, bestalde, zaborrak kudeatzeko dauden aukerak.



Txantxiku ikastolako Ingurumen batzordeko ikasle batzuk. | TXANTXIKU IKASTOLA

# Lide Osinaga doa Errege Kopa ikustera

Lide Osinagaren argazkiak irabazi du, originaltasunagatik, Sustrai argazki lehiaketa. Hauxe saria: otsailaren 7tik 10era Gasteizen jokatuko den saskibaloiko Errege Kopako partidu guztiak doan ikusteko bi bonu. Zorionak!



ARATZ LOSADA

H★★★ arantzazu
arantzazuko santutegia hotela - hotel santuario de arantzazu
Otsailaren 2tik aurrera,
berriro zuekin.



www.hotelsantuariodearantzazu.com
Tel.: 943 78 13 13 • OÑATI

## Gaztelekuaren izen berrirako proposamenak jaso gura dituzte

Gaztelekuaren ekipamendua adin tarte zabalago bati zabaldu gura zaio, eta Gazteria Herrijorran prozesuan landu den puntuetako bat da izen berria jartzea gaztelekuari. Horrela, herritarrei egin diete gonbidapena izen berriak proposatzeko. Otsailaren 23a da izenak bidaltzeko azken eguna, eta helbidea hauxe: *gazteria.oinati@gmail.com*.



Duela bost urteko ekitaldian zuhaitz bat landatzen. | JESUS URMENETA

# Angel Fernandez izango dute gogoan, heriotzatik 30 urtera

Garaiko hainbat mugimendutan ibilitakoa, lehergailu bat zerabilela hil zen Iraultzako kidea

JULEN IRIONDO | OÑATI

Domekan beteko dira 30 urte Angel Fernandez hil zela. Iraultza erakunde armatuko kide zela, Gasteizen, enpresa batean lehergailua jartzeko asmoa zutela, esku artean zerabilela lehertuta, hark eragindako zaurien ondorioz hil zen. Besteak beste, nuklearren kontrako mugimenduan, EMK alderdian, Zer Xabilau? udal kandidaturaren bultzatzaile, gaztetxearen sorreran eta mugimendu feministan ibilitakoa, Fernandezen izaera nabarmentzen dute San Martingo etxe okupatuko kideekin batera hura gogoratzeko asteburu honetako ekintzak antolatu dituzten garaiko lagun taldekoek.

### EGITARAUA

**GAUR, HILAK 1**

**18:00** Angel Fernandezen kartelen eta lanen erakusketa Antixenako gaztetxean.

**20:30** Mahai–inguru–afaria: *Gaztetxeak, borroka antinuklearra eta iraultza*, gaztetxean.

**DOMEKAN, HILAK 3**

**11:00** Gitarra saioa, San Martingo zuhaiztian.

**12:00** Salda eta txorizoa bertsolariekin, plazan.

Marrazketarako zaletasuna ere ba omen zuen Fernandezek, eta ibili ohi zen mugimendueta-rako egindako zenbait kartel eta bestelako lanak erakutsiko dituzte egitarauaren barruan antolatu duten erakusketan. Hiruzpalau egunez egongo da ikusgai Antixenako gaztetxean, 1980an Lemoizen kontra Debagoienean egindako bizikleta martxa bateko bideoarekin batera.

**Antixenan ekintza gehiago**

Aurrez aipatutakoez aparte, Bizi Toki hezkuntza alorreko ekimenari buruzko hitzaldia egingo dute bihar, zapatua, 16:00etan gaztetxean, bultzatzaileekin.

# Musika, dantza, pailazoak eta txokolate jana, Inauterietan

J.I. | OÑATI

Gaurko –egubakoitza– Eraso eta Sharon Stoner taldeen kontzertuaren ostean (ikus Kultura saila), Inauterietan murgilduko da, bete betean, herriko kultura egitaraua.

Hurrengo egubakoitzean, hilak 8, disko festa izango da gaztelekuan, Oihan Vegarekin. Sarrera doan izango da.

Zapatuan, berriz, dantza izango da kalez kale, herritarrekin, aurten Oñatin propio prestatutako ikuskizunarekin. Goizean 11:30ean hasiko dira Olakuan, eta arratsaldean 17:30ean Kiroldegian. Oñatiko musikariek, Inauteriko lantaldeak eta Oñatz dantza taldeak gidatuko dute saioa. Amaiera ekitaldia 20:00etan izango da, plazan.

**Domekan, Luzaidekoa**

Hurrengo egunean, 11:00etan, musika bandaren emanaldia izango da, Santa Ana antzokian. 18:30ean hasita, berriz, Luzaideko Inauteriak egingo dituzte Oñatz taldekoek kalez kale. Txistulariekin eta musika eskolakoekin egingo dute kalejira.

Inauteri Martitzenean –hilak 12–, berriz, hau izango da egitaraua: Kiki, Koko eta Moko pailazoak gaztelekuan, 17:00etan; Misio Taldearen txokolatada solidarioa plazan, 18:00etan; txorimaloak, 18:30ean; eta Alaiki taldearen erromeria, 21:30era arte, 18:00etan hasita.



Aurtengo Inauterietarako dantzen entsegu bat. | OÑATZ




Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

SANER

Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako

Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

# Austeritatea oinarri duen aurrekontua onartu du Udalak

- 8.643.000 euroko udal aurrekontua onartu dute
- Zorpetze maila ez igotzea izan da helburua
- Inbertsioak egiteko diru gutxi izango da aurten ere


Udalak egokitu eta txukundu gura duen Murubideko pilotalekua eta ingurua. | MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 28, onartu zuen udalbatzak 2013ko Udalaren aurrekontua: 8.449.918 euro; iazkoarekin alderatuta ia %7 gutxiago. Aurrekontu osoa (Urats Gain zaharren egoitza kontuan hartuta), ostera, 8.642.996 euro da.

Bilduko zazpi kideen aldeko botoekin onartu zuten. Aralar abstenitu egin zen eta EAJko bi zinegotziek aurka bozkatu zuten. PSE-EEko zinegotzia ez zen izan.

### Berdintasunaren alde

Errealitate ekonomikoa kontuan hartuta egindako aurrekontua dela iragarri zuen Ana Bolinaga alkateak, "Udalaren zorpetze maila ez handitzeko" helburuarekin. Ildo politikoak zipriztindutako aurrekontua dela ere esan zuen: "Burujabetza, batetik, eta eraldaketa politikoa eta soziala, bestetik, lortzeko helburuarekin".

Euskara Sailari dagokionez, transmisioa sustatu gura dute, batez ere gazteei begira; izan ere, azken inkesten arabera, oso gazte gutxik egiten dute euskaraz. Era berean, kultur ekitaldietan eta zineman euskararen presentzia handiagoa izatea da asmoa; hala, botako diren lau filmetik bat euskaraz izango da.

Kultura arloaren kasuan erronka garrantzitsuena Arkuperen kudeaketa da Bildurendako. Horrez gain, hiru helburu nagusi zehaztu dituzte: euskararen eta emakumearen presentzia bermatzea jaietan; kultura plazara eramatea; eta kultura batzordearen egonkortasuna lortzea.

Enplegua da udal ordezkarien kezketako bat eta 111.091 euro bideratuko dituzte horretara. Mankomunitatea gertatzen dabilen enplegu planaz gain, Udala bere aldetik ere badabilela berea egiten iragarri dute.

Etxebizitza alorrean, etxe kaleratzeen gaineko protokoloa daukate onartuta, eta bertako proposamenak abian jartzeko asmoa daukate; horretarako dirutxo bat gordetzea proposatu dio Kaleratzeak Stop taldeak. Gainera, alokairua bultzatu gura dute, hutsik dauden etxeei ondasun higiezinen gaineko tasa berria aplikatuta. Arlo honetarako 14.323 euro jarri dituzte.

Berdintasunaren alde lan egiteko asmoa ere badute, eta Uda-

### 2013KO UDAL AURREKONTUA

| | 2013 (eurotan) | 2012 ALDEAN |
|---|---|---|
| Zor publikoa | 1.389.312 | +%1,10 |
| Adiministrazio orokorra | 1.086.565 | -%7,33 |
| Gobernu organoak | 331.916 | +%22,44 |
| Familia eta elkarbizitza | 446.186 | +%4,73 |
| Informazio eta balorazio prog. | 235.320 | -%21,25 |
| Ur hornikuntza eta banaketa | 397.263 | +%0,11 |
| Hondakinen kudeaketa | 576.664 | +%22,01 |
| Kale garbiketa | 382.854 | +%5,35 |
| Parkeak eta lorategiak | 144.608 | -%27,75 |
| Kirolak, aisialdia | 118.805 | +%21,77 |
| Kultur etxea | 256.404 | -%38,71 |
| Ingurumena | 122.842 | -%15,12 |
| Enplegu sustapena | 111.091 | -%20,48 |
| Hezkuntza | 268.374 | +%2,95 |
| Euskara | 158.392 | -%0,38 |
| Jaiak | 171.525 | +%2,80 |
| Gazteria | 154.485 | +%4,97 |

## Inbertsio garrantzitsuenak

**ORO AUZOKO BIDEA**
Oro auzora doan bideak konpondu beharra dauka aspalditxoan. 2012ko aurrekontuan aurreikusi zituzten lanok, baina orduan kiroldegian sortutako aparteko ordainketa batzuk egiteko erabili behar izan zuten dirua. Aurten helduko diete lan horiei eta 151.000 euroko aurrekontua izango dute.

**MURUBIDEKO FRONTOIA**
Murubideko pilotalekua eta inguruak egokitu eta txukuntzeko asmoa dago. Lehenengo, pilotalekuaren inguruko urbanizazioa konpontzea da Udalaren asmoa, ez dagoelako oso egoera onean. Eta gero, dagoen diruak esango du zer egin daitekeen. Proiektua oraindik ez daukate eginda, baina hainbat ideia dituzte; tartean, pilotalekua estaltzea, "baina hori diruak esango du", diote Hirigintzako kideek. Bertara bideratu duten kopurua 130.441 euro da.


Belorrietako espaloia. | M.A.

**BELORRIETAKO ESPALOIA**
Belorrieta auzoan, errepidearen beste aldean, Deba ibaiaren bazterrean dagoen espaloi zatia oso hondatuta dago. Harlauza asko apurtuta daude eta paseoan ibiltzen diren lagunendako ez da batere erosoa. Lan horiek lehentasuna dutela erabaki du Udalak, eta 60.000 euro bideratu dituzte.

**KIROLDEGIKO KONPONKETAK**
Kiroldegia martxan jarri zenetik hainbat konpondu beharreko antzeman dituzte, eta horiei heltzeko 90.000 euro aurreikusi. Konponketa horien artean daude solariumean sortzen den elektroestatika eremuaren arazoa konpontzea; saskibaloi kantxako paretetan profil batzuk jartzea, dagoen pladurra ez apurtzeko; eta kantxa horretako sabaian sarea jartzea.

**Ana Bolinaga** | Alkatea

## "Etorkizunera begirako erabakiak hartuz egin da"

Egoera ekonomikoa kontuan hartuta egindako aurrekontua dela jakinarazi du alkateak, "erreala eta austeritatean jarraipena" duena.

**2013ko aurrekontua ia %7 jaitsi da iazkoarekin alderatuta. Udalaren zorpetze maila ez handitzea eta austeritatean jarraitzea izan dira asmoak?**

Udalaren zorpetze maila handia da: 7.970.442,13 eurokoa. Norberaren etxeko kontu ekonomikoak balira errealistak eta funtzionalak izan beharko lukete, lehentasunak zehaztuz, etorkizunera begirako erabakiak hartuz.


M.A.

**"Herritarrek botere politikoa berreskuratu behar dute"**

**Burujabetza eta eraldaketa politiko eta soziala bilatzen duen aurrekontua egin gura izan duzue. Zergatik?**

Hego Euskal Herrian estatu espainolak indarrez bere eredu ekonomiko, politiko eta soziala inposatzen digu. Burujabetza politikoa berreskuratzea eta gure bidea egiten hastea ezinbestekoa da. Sistema kapitalista erro-errotik eraldatu beharra daukagu krisia betikook sufritzen dugulako. Ez dago krisirik banketxeetan, multinazionaletan, monarkiaren jauregian edota klase sozial pribilegiatuen etxeetan; krisiak aberasten ditu herritarren eskubideak suntsitu egiten diren heinean. Bildu eraldaketa politiko eta sozialaren aldeko urratsak ematen ari da, ordenantza fiskaletan gehien daukatenek gehien ordaindu dezaten neurriak aplikatuz, etxe-kaleratzeen kontrako akordioak gauzatuz, zero-zabor filosofiaren aldeko urratsak emanez, herria itotzen duten azpiegitura erraldoiak ekidinda, eta berdintasuna eta justizia sozialaren aldeko erabaki politikoak hartuz. Posible da mundu hobeago bat, sinesten dugulako egingo dugu.

**Zeintzuk dira lehentasunak aurrekontu horretan?**

Nazio-eraikuntza; herritarren parte hartzea; berdintasuna; euskararen erabilera sustatu, batez ere gazteengan; etxe-kaleratzeen kontrako politika; eta lan kontratazio maila eutsi.

**Inbertsioetan zeri emandiozue garrantzia?**

Kiroldegiko konponketei, Oroko bideari, Murubideko frontoia eta inguruei eta Belorrietako erreka bazterreko espaloiari.

**Parte-hartze prozesu bat ere egin zen herritarrekin; zein garrantzi izan du horrek?**

Izugarria. Herritarrek botere politikoa berreskuratu behar dute, hor dago justizia sozialaren oinarria; lau urtean behin bozkatzea eta gero herritarrei bizkarra ematea ez da demokratikoa, iruzurra baizik.

**Oposizioaren kexa izan da enplegu planik ez izatea. Zer diozu?**

Aurpegi galanta dutela deritzot. 14.243.000 euroko makro-proiektua (kiroldegiaren kostua)onartu zutenean nora begira egon ziren? Aurreikusi zuten inoiz enplegu planik? Zergatik ez zuten 14 milioi euro horretatik erdia, herena edota milioi bat enplegu planean inbertitu? Miopia politikoa eta handikeria nagusi direnean Udalak itotzen dira betikoak aberastuz. 2013. urterako enplegu plana egiten ari gara. Ez dugu gura herritarrak engainatzerik. Udalek ez daukate maniobratzeko espazio handirik eta are gutxiago dugun zorpetze mailarekin. Erabakiak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzan hartu behar dira, ea zer egiten duen EAJk.



lak hartutako erabakietan berdintasun ikuspuntua jasotzea izango da erronka nagusietako bat. Hala, emakumearen presentzia bermatu eta sustatu gura da, kirolean, esaterako –Emakumeen Bira txirrindulari lasterketa etorriko da–. Bailarako emakume taldeen arteko elkarlana ere sustatuko dute. Gainera, "Aretxabaletak ez du indarkeria matxistarik onartzen" esaldia jarriko dute herriaren sarreran eta irteeran. Eta berdintasunaren inguruko jarduerak antolatzeko 20.000 euro bideratu dituzte.

Migrazio politika sustatzeko asmoa ere agertu dute. Hala, harrera plana egitea izango da helburuetako bat. Bestealde, hirugarren munduko herrialdeetara bideratzeko 30.000 euro aurreikusi dituzte.

**Gazteen inplikazio bila**

Ingurumenari dagokionez, "ingurumen osasungarri baten aldeko politika" bultzatuko dute: Zero zabor programa, ingurumenarekiko sentsibilizazioa... Horren barruan dauden ekintzetako batzuk dira: Zuhaitz Eguna, Aste Berdea, Tupper kanpaina eta Deba ibaia garbi.

Kirolean, ostera, hausnarketa burutu gura da eskola kirolaren esparruan, zerbitzua biziberritze aldera. Eta emakumeen kirol praktika sustatu.

Gazteriaren kasuan babeserako eta prebentziorako gizarte politikaz gain, gazteen inplikazioa bilatu gura dute, "autonomoak, askeak eta gizartean inplikatuak" izan daitezen. Ia %5eko igoera izan du partida horrek, zerbitzuek igoera izan dutelako eta 154.485 euro bideratu dituzte.

Gizarte Zerbitzuetan herritarren bizi kalitatea hobetu gura da, arrisku egoeretara eta marjinaziora bultzatzen duten arazoei aurrea hartuz. Hala, Prebentzio eta gizarteratze programarako 69.420 euro daude.

Eta hezkuntzaren kasuan batzorde eraginkor bat martxan jarri, euskal curriculuma bultzatu eta unibertsitatearekin eta Lanbide Eskolarekin elkarlanak sustatzea dituzte helburu.

**Inaxio Garro**

Aralarko zinegotzia

## "Helburu barik eta irizpide barik"

"Agintaldia aurrera doan arren, Gobernu taldeak jarraitzen du Gobernu-programa barik, helburu barik eta irizpide barik. Hori guztiori garbi geratu da aurrekontuen zirriborroarekin. Aurrekontuek buztinezko hanka luze bat dute. Izan ere, Zainduzen salmentak eta udal-ondasunen artean dauden garaje eta etxebizitza batenak erabat baldintzatzen dute aurrekontua. Bestetik, proposatzen diren partida batzuekin ez gaude ados, batzuk soberan daudelako; beste batzuk, ordea, faltan. Adibide bakarra: enplegua. Non nahi enplegua sustatzeko ekimenak bultzatzen ari direnean, langabezia tasa izugarri igotzen ari denean, hemen ez dago enplegua bultzatzeko politika aktiborik. Azken momentuan, "Enplegua sustatzeko kontratazioak" izeneko partida berri bat zabaldu da, 15.000 eurorekin. Aralarrek ez daki zertarako ote den.



M.A.

Beste behin ez da inongo ahaleginik egin inorekin ezer adosteko. Aldundian, Jaurlaritzan, udal askotan alderdi gehienak ados jartzen direnean, gobernu honek ez du erakutsi ezer adosteko. Elkarlanean jardun beharrean, gehiengoan oinarritu du bere jokabidea, oposizioa gutxietsiz. Bukatzeko, harrituta gaude lehenago oposizioan eta orain gobernuan dauden udal-ordezkarien jarrerarekin. Lehen aurrekontuak aztertzeko hiru aste ez zen nahikoa, eta orain behartzen gaituzte aurrekontuen zirriborroa entregatu eta hamar egunera osoko bilkurara ekartzera. Euren lehengo exijentzietatik, bakarra ez dute orain betetzen".

**Mikel Uribetxebarria**

EAJko zinegotzia

## "Gastuek gutxituz joan behar dute"

"Ez gatoz bat 2013rako planteatu den aurrekontuarekin. Gaur egun Udalak daukan egoerak gastuen kontrol zorrotzagoa eskatzen du. Sarreren eta irteeren arteko oreka iaz saltzerik lortu ez ziren udal lokal batzuen salmentan oinarriturik dago, diru sarreretan salmenta hori aurreikusi delako. Hori oso zaila izango dela jakinik, gure proposamena izan da herritarren ongizaterako guztiz beharrezkoak diren gastuak identifikatu eta mantentzea eta bestelako gastuak gutxituz joatea".

**Ekintza konkreturik ez**

"Bestalde, zaborraren kudeaketa dela-eta Mankomunitatera bideratu den partida 100 mila eurotan handitu da. Igoera horren zergatia ez dugu ulertzen, Aretxabaletan, 2013an, hondakinen kudeaketa berdinarekin jarraitu behar dugula kontutan izanik. Ezin dugu gehiago ordaindu zerbitzu berbera jasotzeagatik.



M.A.

Garapen ekonomikoari eta enplegu sustapenari dagokionez ekintza konkretuak faltan botatzen ditugu.

Bukatzeko aurrekontuaren onartze prozesuaren aurrean ere gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Ohikoa den bezala, neurri batean aurrekontuak herritarrekin eta Udal batzordeetan lantzen joan direla ez dugu ukatuko. Baina Bilduren baitan azken zirriborroa gertatu ondoren, gainontzeko talde politikooi ez zaigu ekarpenak egiteko astirik eman, eta adostasunak bilatzeko borondate gutxi azaldu du".

PAUSOKA

Pausoka Haur Eskola, Belorrieta 8, 20550 ARETXABALETA Tel.: 943 77 03 77



ZEURIA

ZEUENA

GEURIA...

PAUSOZ PAUSO ELKARREKIN

0tik 3 urtera

PAUSOKA HAUR ESKOLA

udal zerbitzua

ETORRI ETA EZAGUTU!

IZEN-EMATE EPEA ZABALIK: URTARRILAREN 28TIK OTSAILAREN 8 ARTE

BULEGO ORDUTEGIA: 09:00 - 14:00 / 16:00 - 18:00

Aretxabaletako Udala

# Eguerdian hasita girotuko du Txapel Txinek jaia bihar

## Itxura berriarekin agertu da, eta jairako gogotsu; Aratusteak iragarriko ditu, eta sariak banatu

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Artaxoako (Nafarroa) klinikatik etorri berri da Txapel Txin; zelan etorri, gainera! Itxura berria duela agertu da astean, eta biharko ospakizunerako deialdia egin: "Jantzi txapela guztiok eta girotu dezagun herria!".

Koadrilek Kultura Sailarekin batera antolatutako jaia da Txapel Txin eguna, eta, egitarauak arratsaldeko hitzorduak jaso arren, eguerdi inguruan txikiteoari ekingo diote Txapel Txinek eta koadriletako kideek.

**Torrada lehiaketa**

Arratsaldeko ekitaldia, ostera, torrada lehiaketarekin hasiko dute (18:30); etxean egindako torradak (8 bakoitzak) jasoko dituzte Herriko Plazan. Ondoren (19:00), Begira talde bizkaitarrak eskainitako *Txirla beltzaren piratak* ikuskizunarekin kalejira izango da. Eta gero (20:00), Aratusteetako pregoia egingo du Txapel Txinek. Sariak ere banatuko ditu: txapel dotoreenari –50 euro– eta torrada goxoenei –lehenengoari, 100 euro eta Torratxin txapela; bigarrenari, 50 euro; eta hirugarrenari, 30 euro–. Bukatzeko, txistorra mokadutxoa, torradak eta sagardoa izango dituzte plazan elkartutakoek.



Txapel Txin itxura berriarekin eta lagunak alboan dituela zapatuko egitaraua aurkezten. | MIRARI ALTUBE

# Gipuzkoako Txirrindulari Federazioaren batzarra

## Aretxabaletako Txirrindulari Batzordearen lana eskertzeko datoz bihar Arkupera

**M.A.** | ARETXABALETA

Gipuzkoako Txirrindulari Federazioak gurean egingo du ohiko batzar orokorra. Bihar, zapatua, 40 bat lagun elkartuko dira Arkupen (10:45).

Eduardo Soto presidenteak gidatuko du batzarra eta landuko dituzten gaien artean hauek daude: 2012ko aurrekontua itxi eta 2013koa onartzea; 2012an egin diren kirol ekitaldien laburpena eta 2013an egingo direnen aurkezpena; 2013ko egutegia; eta 2013an izango diren lehiaketako arauak eta arau teknikoak onartzea.

**Lana eskertu**

Abuztuaren 16an –Andramari jaietan– Leintz bailarako txirrindulari lasterketak 75 urte beteko ditu. Hori horrela, Gipuzkoako Txirrindulari Federazioak herriko antolatzaileek egin duten lan bikaina eskertu gura du. Horregatik egingo dute batzarra gurean; bukatutakoan, bazkaltzera joango dira.

### Ibarra kiroldegia ezagutu eta spinning saioa eskainiko du Jose Luis Korta kirolariak bihar

Jose Luis Korta kirolari eta *showman* ezaguna etorriko da bihar, zapatua, gurera. Ibarra kiroldegia ezagutzeko ordu erdi inguruko bisita gidatua izango du lehenengo (17:00), eta ondoren, spinning saio bat gidatuko du (18:00).

Ekintza biak daude herritarrei zabalik. Bisitan edonork parte har dezake eta spinning saioan, kiroldegiko abonatuek bakarrik. Horretarako, aurrez eman behar dute izena, telefonoz deituta (943 039 842) edo mezu bat bidalita *(info@ibarrakiroldegia.com)*.

### Alizia Stürtze historialariak neguko jaien gaineko hitzaldia eskainiko du martitzenean Kurtzebarrin

*Neguko jaiak: paganoak ala kristauak* izenburuarekin, neguan ospatzen diren hainbat jairen gainean –tartean Aratusteak– jardungo du Alizia Stürtze historialari ezagunak martitzenean, hilak 5, Kurtzebarri eskolako liburutegian (17:00).

Eskolako Euskara Zerbitzuak antolatu du eta gaia oso interesgarria dela iritzita irakasleak, gurasoak eta interesa duten herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

# Auzoko egitasmoa jarriko dute abian gaur, Loramendik gidatuta

## Egubakoitzetan elkartuko dira udaletxe zaharrean

**M.A.** | ARETXABALETA

Azken asteotan hainbat galdera egin dizkigu Auzoko egitasmoak. Eta han eta hemen ikusi ditugu hainbat hizkuntzatan idatzitako esaldiak. Jakin-mina piztu ondoren, ibilbideari ekingo dio gaur Auzokoren bueltan elkartutako taldeak.

**Elkartzeko tresna, euskara**

Aretxabaletak 6.900 bat biztanle ditu, eta herritarren %26,82 euskal mugetatik kanpo jaiotakoak dira. Gainera, herrian bertan jaiotako hainbat euskaratik urrun bizi dira. Hori guztia jakinik, euskaratik urrun bizi diren herritarrak eta euskaraz bizi direnak harremanetan jartzeko asmoarekin abiaraziko dute Auzoko, euskara guztien arteko kohesio eta komunikazio hizkuntza izanda.

Auzoko egitasmoarekin *auzotarrak* –euskaraz bizi diren herritarrak– eta *auzokideak* –euskarara hurbildu nahi dituztenak– elkartuko dituzte. Loramendi Elkarteak hartu du horren ardura, Udalarekin lankidetzan, eta Larraitz Arandok gidatuko du. Taldea gaur, egubakoitza, hasiko da lanean, eta egubakoitz guztietan elkartuko da udaletxe zaharrean (15:00).

Talde horrek ateak zabalik ditu edonorendako, euskaraz bizi direnendako eta euskarara hurbildu gura dutenendako: "Jatorri ezberdinetako hiztunen artean harremanak sortzea du helburu, eta herritar guztiendako proiektua da", argitu du Arando dinamizatzaileak, eta gaineratu: "Gure herriko aniztasunaren aberastasunarekin gozatzea da kontua, horregatik talde horretara ezin duenak etorri ere asko egin dezake kalean".

Hori horrela, herritarrak animatu gura dituzte egitasmoa ezagutu eta taldera hurbiltzera.

## OHARRAK

**ODOL ATERATZEA**

Arabako odol bankuko kideek odol ateratzeak egingo dituzte osasun etxean, astelehenean, hilak 4 (16:30-20:00). *Lagun bat ekarri* kanpaina jarri dute, abian odol emaile bakoitzak senide, lagun edo lankide bat odola ematera animatzeko.

**KANDELERIO EGUNA**

Parrokiako kideek Kandelerio eguna ospatuko dute bihar, otsailak 2; meza esan eta kandelak bedeinkatuko dituzte. Mezak dira: monasterioan (09:00) eta parrokian (19:00).

**SAN BLAS EGUNA**

San Blas eguna ospatuko dute parrokiako kideek etzi, domeka. Meza esan ostean jakien bedeinkapena egingo dute: Agustindarren monasterioan (09:00) eta parrokian (11:30).

**HITZALDIA**

Kuku Mikuk antolatuta *Errespetuzko komunikazioa* berbaldia izango da astelehenean, elkartearen egoitzan (17:30).

## NIRE USTEZ

**OIER ETXEBARRIA**



# Elkartasuna

Azken urteetan gutxi entzun dudan hitza da *elkartasuna*. Bizi dugun egoeraren inguruan artikulu eta erreportaje luzeak daude, baina beti zuloa beltza dela, tunelaren bukaeran argia ikusten dela, sistemaz aldatu behar dela esaten digute.

Zer da, baina, sistemaz aldatzea? Begira diezaiogun urtetan beste herrialde batzuei laguntzeko egin dugunari; oraindik asko hobetu beharrean daude, baina beste herrialde batzuekiko elkartasun pertsonal handia izan dugula, daukagula eta izan behar dugun dudarik ez daukat. Ez al da hemen beharretan daudenei ere laguntzeko momentua heldu? Ez al dugu ikusten asko direla beharrean dauden horiek, eta gero eta gehiago direla?

Dirua pilatzea bizitzaren helburu izan beharrean, dirua, bizitza duina posible egiten duen erreminta gisa hartzeko ordua heldu da. Norberak bizitza duina badauka, zergatik ez beste batzuei doaneko mailegu gisan edo bueltarik izango ez duen laguntza eman? Mikrokredituak edo beste aukerak aztertu eta hemen ere martxan jarri beharko ditugu, ezta?

Beldurrak jota gaude, eta, badaezpada ere, etorkizuna ziurtatzeko dirua pilatu nahi dugu; baina gaur egun dauden arazoen aurrean begiak itxi behar al ditugu? Ez al dute gure familiartekoek, lagunek, auzokoek bizitza duina merezi?

**"Etorkizuna ziurtatzeko dirua pilatu nahi dugu"**



Urtea amaitu aurretik amaitu gura dute Zaldibar antzokia. | GOIENA

# Zaldibar antzokiarendako da inbertsioen diru gehiena

## Aurtengo aurrekontu proiektua onartu dute asteon Udal Gobernuaren babesarekin: 5,2 milioikoa da

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak aurtengo aurrekontuak onartu zituen eguazteneko ezohiko osoko bilkuran. 5,2 milioi ingurukoak dira kontuak; iaz baino 200.000 euro gehiago. Udal Gobernuaren aldeko botoarekin atera zuten proiektua aurrera; oposizioko hiru taldeek kontra bozkatu zuten.

Beñat Herce alkateak proiektuaren xehetasun nagusienen berri eman zuen. Aurrekontuak "zuhurra" izaten jarraitzen badu ere, joan den urtean "larregikoa" izan zela, eta aurten inbertsioak egitea aurreikusi du Udal Gobernuak. Garrantzitsuena Zaldibar antzokia da; urtea amaitu aurretik amaitu gura dute kultura ekipamendu berriarekin. 190.000 euro aurreikusi dituzte horretarako.

Eskohitza prozesu parte-hartzailearen harira, eskoriatzarrek gehien bozkatutako inbertsio proposamen artean dago Zaldibar; hain justu, ekipamendua laugarren geratu zen, eta eraikinaren ingurua urbanizatzea, zazpigarren. Horren harira, azaldu zuen aurtengo inbertsioetarako finantziazioa Santa Mariñeko hiri lurren aprobetxamendutik datorrela, eta hortaz, ezin dela nahi denerako erabili; esaterako, puntu gehien jaso zuen erdiko kalea asfaltatzeko proiektuarendako. Honakoa esan zuen: "Diru hori bakarrik erabili ahal da herriko ondare kulturala eta historikoa berreskuratzeko, ekipamendu komunitarioak hobetzeko edo hiri lurrak erosteko etorkizunean etxebizitzak egiteko. Inbertsio posible guztietatik Zaldibarrek bakarrik betetzen du eskatutakoa".

### Errepidea asfaltatzea

Dena dela, aurrekontuan aurreikusita ez badago ere, beste hainbat inbertsio egiteko asmoa dutela azaldu du. Iazko aurrekontuaren likidaziotik lortzen den diruarekin egingo dira. Esaterako, erdiko errepidea konpontzea, erdialdea oinezkoendako egokitzea, ur-hoditeria aldatzea eta autobus geltokia Gorosarri plaza parean jartzea proiektu bakar batean batu dutela esan zuen, baita aurrekontua egiteko proiektua onartuta dagoela, eta udaberrirako esleituta izatea espero dutela.

### "Gezurrezko" aurrekontua

Esan bezala, proiektua ez zen oposizioko zinegotzien gustukoa izan. Aitor Urrutia zinegotzi jeltzalearen ustez, "gezurrezko" aurrekontuak dira, urtea aurrera joan ahala aldatzen joango direlako. Honakoa adierazi zuen: "Ez dute errealitatea islatzen, sartuta ez dauden partida asko daude-eta; horietako bat izan daiteke Goienarena berarena. Koadratzeko egiten dute, eta benetako aurrekontua jakingo da likidazioa egiten denean, eta soberakinen berri dugunean. Kreditu aldaketekin joango dira aldatzen".

Jose Luis Cantero zinegotzi sozialistaren ustez, ostera, "antisozialak eta kontinuistak" dira; herritarren beharrak kontuan hartzen ez dituztela ere salatu zuen. Erdiko errepidearen arazo larria nabarmendu zuen; horren harira, ohartarazi zuen "zerbait" gertatu arte ez dela konponduko. Bestalde, atez atekoari 23.000 euro ematea kritikatzearekin batera, etxegabetzeen arazoarendako 1.000 euro eta Udalbiltzarendako, ostera, 6.000 euro bideratzea salatu zuen.

Ezker Anitza-IUko Juan Luis Merinoren ustez, "guztiz alderdikoak" dira. Gizarte arloari dagokionez, etxegabetzeen harira sortu den partida "txikia baina esanguratsua" nabarmendu zuen bitartean, gogorarazi zuen Eskoriatzan 244 langabe badaude ere, inbertsioak kultura arlora bideratuko direla. Honakoa esan zuen: "Ez dira oso sozialak, eta, hortaz, asko hobe daitezke".

**DATUA**

**%3**

ALTUAGOA

**Horixe da joan den urteko aurrekontuarekin alderatuta aurtengoak duen igoera**

# Eskoriatza Garbiaren mozioa atzera bota dute

## Bosgarren edukiontzia jartzeko neurriak hartzea eta kontsulta egitea eskatzen zuen plataformak

M.B. | ESKORIATZA

Eguaztenean egindako osoko bilkuran luze egin zuten berba hiri hondakinen gainean. Eskoriatza Garbia plataformak aurkeztutako mozioa gai zerrendan zegoen aurreikusita, eta osoko bilkuren aretoan plataformako hamar bat kide elkartu ziren eztabaida bertatik bertara jarraitzeko. Josu Ezkurdiak eta Rafa Salidok bozeramaile lanak egin zituzten udal ordezkarien aurrean; mozioaren berri eman zuten, bi puntuz osatuta zegoena: joan den urteko ekainean atez ateko sistema jartzeko akordioa ezeztatzea eta horren ordez bosgarren edukiontzia jartzeko neurriak hartzea, batetik. Eta herritarrei kontsulta egitea zaborra biltzeko sistema aukeratzeko, bestetik.

Puntuka bozkatu zuten. Lehenak PSE-EEko eta EAJko zinegotzien babesa jaso zuen, Bilduko lau ordezkarien eta Ezker Anitzakoen kontrako botoa eta Bilduko Arantza Iregiren (EA) eta Elizateetako zinegotziaren abstentzioa. Bigarrenak EAJren eta Ezker Anitzaren aldeko botoa, Bilduko lau ordezkarien kontrakoa eta PSE-EEren, Bilduko Iregiren eta Elizateetakoen abstentzioa lortu zuen. Hortaz, biak atzera bota zituzten.

Esan bezala, luze jardun zuten. Mozioa aurkeztu ostean, Ingurumen zinegotzi Igor Ezpeletak hartu zuen hitza. Plataformaren "borondate ona" eskertzearekin batera, sistema "derrigorrezkoa" eta "pertsonalizatua" izatearen beharra azpimarratu zuen, besteak beste, herritarren "kontzientziazio eta parte-hartze mailagatik". Jarraian, Aitor Urrutia jelkideak egin zuen berba. Plataformari duen babesa nabarmentzearekin batera, mozioak aurreikusitako eskariekin bat egin zuen. Gainera, atez atekoak birziklagarria ez den materialari irtenbiderik ez diola ematen, eta errausketa-instalazioaren harira, Bilduri leporatu zion "beldurraren kultura" zabaldu gura izana.

### Parte-hartze prozesua irailean

Beñat Herce alkateak erantzun zuen "uda ostean" martxan jarriko den "kalitatezko" parte-hartze prozesuan "informazio osoa" eskainiko dela. Eta hilero egiten den Garapen batzorde informatibora gura duten dokumentazioa eta ekarpenak aurkezteko gonbita egin zion plataformari. Bestalde, Ezker Anitza-IUko Juan Luis Merino "topalekuak" lortzearen alde agertu zen, eta "zentzu eta zorroztasunean oinarritako adostasuna" beharrezkotzat jo zuen.

Plataformako kideek gogorarazi zuten 1.240 eskoriatzarren babesa dutela, eta lan egiten jarraituko dutela.

# Muguruzaren azken lana gaur gauean Inkernun

M.B. | ESKORIATZA

Iñigo Muguruzaren azken proiektua zuzenean ezagutzeko aukera egongo da gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan. 23:00etan hasiko da *Lurra* izeneko emanaldi akustikoa; betiko moduan, debalde da.

Carlos Txap Osinagak Bonberenean grabatutako CD singlea aurkeztu zuten iaz ekainean Ane Gartziak (Ahotsa), Iñigo Muguruzak (gitarra akustikoa), Carlos Zubikoak (baxua) eta Ander Larrañagak (perkusioa). Muguruzaren talde guztietan moduan, hitz konprometituak ditu proiektu horrek, lur eta inguruarekin, eta baita sistema "suntsitzaile eta eroarekin" berba oso kritikoak ere.




Kontzertuaren kartela. | AITZORROTZ

## 13:00ak arte eman daiteke izena bigarren eskuko mozorro azokan

Aratusteen harira jaialdia antolatu du herriko guraso talde batek gaurko, 18:00etatik 19:30era. Besteak beste, bigarren eskuko mozorro azoka egingo dute. Udaletik azaldu dute edonork parte har dezakeela eta baldintza bakarra dela izena aurrez ematea. Interesatuak gaur, 13:00ak arte, apunta daitezke 943 71 46 88 telefono zenbakian edo *gazteria@eskoriatza.net* postan. Azokarekin batera txokolate-jana, aurpegi margotzea eta torrada tailerrak izango dira.

## San Blas opilak egiten ikasteko ikastaroa dago astelehenean

Domekan izango den San Blas egunaren bueltan, arrautzaz, irinez, azukrez, gurinez, legamiz eta anis esentziaz egindako opilak egiten ikasteko ikastaroa gertatu dute astelehenerako. Erretiratuen elkarteko sukaldean egingo dute saioa, 18:00etan. Interesa dutenak herriko kultura etxera joan daitezke, 943 71 46 88 zenbakira deitu edo *aintzane@eskoriatza.net* helbidera idatzi. Izena ematearekin batera bost euro ordaindu beharko dira.

# Mozorroak, dantzak eta protagonistak gertu daude

Sorgin-dantza 14 dantzarik egingo dute Aratuste-domekan Herriko Plazan

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Konturatu gabe ate joka ditugu aurtengo Aratusteak. Antzuolarrak hasiak dira dagoeneko mozorroa prestatzen. Baina Aratusteetako domeka berezia da antzuolarrendako. Izan ere, Oinarin dantza taldeak urtean behin kalera ateratzen duen sorgin-dantza ikusteko aukera izango da. Eta dantza honekin batera, Antzuolako Aratuste festa berezia egiten duten pertsonaiak kalera irtengo dira: Hartza, Hezitzailea eta Tximinoa.

"Eremu zabal batentzako egitaraua prestatu dugu; izan ere, umeek ere dantza egiten dute helduek bezala", azaldu digu Eider Mendia Oinarin taldeko kieak. Ehunetik gora herritar batuko ditu aurtengoan ere Aratusteetako hitzorduak. 54 haur inguru ikusiko ditugu dantzan. Sorgin-dantza egiten, aldiz, herriko 14 dantzari ikusiko ditugu.

Bigarren dantza taldean, ordea, 20-24 lagun inguru arituko dira. Eta musikariei dagokienez, bi talde ibiliko dira dantzariei lagun eginez herriko kaleetan barrena. "Herriko koadrilak ere mozorrotzera animatzen dira eta giro bikaina eta koloretsua bermatua dago", dio.

Indarra hartzen ari den eguna dela azpimarratu digu Mendiak. "Herri mailan askoz jende gehiago mozorrotzen da eta eguna indartu egin da. Bazkaria egiten dute koadrilek; sekulako jai giroa sortzen da herrian". Hala, goizeko hamarrak aldera irtengo dira kalera dantzariak: talde bat, sorgin-dantza eginez, Hartzarekin, Tximinoarekin eta Hezitzailearekin batera Kalegoi aldera joango da. Beste dantza taldea, berriz, Aratuste giroko dantzak eginez, Kalebarren aldera joango da.

Hala, guztiek herriko kale guztietan dantza egin ostean, elkartu egingo dira salda beroa hartzeko eta sabela berotzeko. 12:30 inguruan Herriko Plazan. Hantxe, dantzari txikiekin elkartuko dira. Talde bakoitzak dantza ezberdinak dantzatuko ditu. Eta festari bukaera borobila, aldiz, sorgin-dantzak emango dio.



Hartza, herritarren begiradapean. | JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

**100**

PARTE-HARTZAILE

100 herritarrek baino gehiagok hartuko dute parte Aratuste-domekako festan.

**Txikitxoak ere mozorrotuta**

Otsailaren 8an, barikuan, 16:00etan, eskolako patioan txokolate eta torrada jana egingo dute.

Gero, 17:30ean Korri, Xalto eta Brinko pailazoak Torresoroan izango dira gaztetxoen zain.

**Gaztetxeko egitaraua**

19:00etan *poteo* musikatua eta 21:30erako afaria antolatu dute. Mozorrotuta joateko gonbidapena egin dute. Ondoren, *playback* saioa egingo dute.

**Erretiratuen festa**

Aratuste-martitzenean urteroko festa egingo dute herriko erretiratuek. 17:00etan, merienda eta kina egingo da. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute otsailaren 5ean eta 6an, 16:00etatik 18:00etara.

Pertsonako 4 euro kobratuko da. Bada, mozorrotuta joateko dei egin dute.

# 28 antzuolar '8 Miliak' lehen mendi lasterketan

Otsailaren 17an, domekan, egingo da lehen aldiz Antzuolan mendi lasterketa proba

**M.A.** | ANTZUOLA

Dagoeneko 200 lagunek eman dute izena *8 Miliak* lasterketan. Parte-hartzaileen kopurua bete den arren, Aritz Saidi Kirol zinegotziak azaldu digu 300 partaidera zabaltzea erabaki dutela. Izena emateko aukera oraindik *kirolprobak.com*-en.

Eta zozkatu dira 8 dortsalak: Ugaitz Iturbe, Gurutz Zabalo, Eneko Iturbe, Patxi Kortabarria, Izar Urteaga, Jon Aranguren, Kike Reboreda eta Iker Irizar dira irabazleak.

**Herri osoarendako festa**

Mendi lasterketa 10:30ean hasiko da, Herriko Plazatik Irimora bidean. Bitartean, giro goxoa jartzen saiatuko dira herrian pintxoak eta salda banatuz, besteak beste. Korrikalariak lasterka dabiltzan bitartean, 11:00etan haurrentzako plastikozko motortxoen lasterketa ez lehiakorra egingo da.

**Azkena edo lehena, onenak**

Proba herrikoia gertatu nahi izan da eta ez da denbora mugarik ezarriko. Horregatik, berdin dio zein den bakoitzaren gaitasuna eta denbora. Lasterketaren leloak dioen moduan: *Azkena edo lehena, heltzea onena!* "Kirolaz modu aktiboan gozatzeko ekintza antolatu nahi izan da eta herrian giro polita sortuz urteroko gure agendetara gehitzeko hitzordu bat eratu nahi izan dugu", azaldu digu Aritz Saidik.

**Ez da zirkulazioa etengo**

"Zirkulazioa ez da moztuko, printzipioz, baina erregulatuko dugu; horregatik, aldez aurretik barkamena eskatu nahi diegu herritarrei sor daitezkeen eragozpenengatik".

**LASTERKETAN IZANGO DIREN ANTZUOLARRAK**

- Jon Aranguren
- Andres Arbulu
- Harri Arin
- Josu Bareño
- Josu Errasti
- Goretti Fernandez
- Luis Franco
- Jon Gurutz Gadoy
- Alfonso Gonzalez
- Auritz Guridi
- Eric Haas
- Iban Herzog
- Iker Irizar
- Eneko Iturbe
- Jon Iturbe
- Ugaitz Iturbe
- Jon Kortabarria
- Patxi Kortabarria
- Iker Larrea
- Gurutz Larrea
- Gorka Manso
- Xabi Mondragon
- Unai Narbaiza
- Kike Reboreda
- Josu Toledo
- Unai Uribesalgo
- Izar Urteaga
- Gurutz Zabalo

## Alberdik eta Agirrek jantzi dute txapela

Txomin Alberdik eta Iñaki Agirrek jantzi dute Atzuolako Mus Txapelketako txapela, Ima Beristain alkatearen eskutik. Bikote irabazlearekin batera Euskal Herriko txapelketan parte hartuko dute Larrea-Murua, Sergio-Jabi eta Alonso-Alonso bikoteek. Otsailean Seguran jokatuko da lehen kanporaketa.



JESUS KORTABARRIA

## San Blas eta Santa Ageda ospatuko dira herriko auzoetan

San Blas eguna domekan da, baina zapatuan ospatuko dute, Basalde auzoko San Blas ermitan. Meza egingo dute eguerdian. Ondoren, txorizoa eta salda egongo da barrua berotzeko; eta, trikitilariek lagunduta, gorputza mugitzeko aukera ere izango da.

Eta astelehenean, otsailaren 4an, Santa Ageda dugu. Galartza auzokoek Santa Ageda eguna otsailaren 10ean ospatuko dute Santa Ageda ermitan. Otsailaren 4an, astelehenean, kintoak kantuan aterako dira goizeko seietan eta baserriz baserri kantuan ibiliko dira; gero, erdigunera ere jaitsiko dira.

## OHARRAK

**IKASTAROA**

Fandango eta arin-arin ikastaroa 11:00etan, bihar, zapatua, Gaztetxean.

**FUTBOLA**

Preferente mailako partidua: Antzuola-Anaitasuna, 16:00etan Eztalan zapatuan.

**PILOTA**

Eskolarteko pilota txapelketa izango da bihar. Hauek partiduak: Benjaminak: Antzuola 2 vs Plaentxi A eta Antzuola 3 vs Aranzadi B.

**TXISTULARIEN DIANA**

Herriko kaleetan barrena, domekan, goizeko hamarretan txistularien diana izango da.



Santa Agedarako entseguak Kultur etxean egin dituzte, giro ederrean. | JOKIN BEREZIARTUA

# Dena gertu Santa Ageda batze herrikoienerako

Baserritar jantzita irteteko dei egin diete antolatzaileek herritar guztiei

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Dena dago gertu aspaldiko Santa Ageda batzerik herrikoienerako. Bizente Goikoetxea abesbatzak, Santa Ageda bezperak beste bueltа ematea beharrezkoa zuela ikusi zuenean, nekez espero zuen ekimenak halako arrakasta izango zuenik. Entseguetan 40 bat lagun aritu dira giro ederrean abesten: "Kantuak ondo entseatuta daude. Nahiko errepikakorrak dira, di-da batean hartzeko modukoak", adierazi du Bittor Kortabarria abesbatzako presidenteak. Horregatik, entseguetara joaterik izan ez dutenei dei egin diete bihar parte har dezaten.

**Eguraldiari aurre egin behar**

Ekimenak ez du eguraldia lagun izango, negu garaiko eguraldian sartuko gara bat-batean: zaparradak egun osoan zehar eta tenperaturan, egun batetik bestera, hamar gradu jaitsiera. Beldurra sortu du parte hartzaileengan: "Hala ere, animatuta gaude, eguraldiarena ez da horrenbesterako", uste du Manex Agirre bertsolariak. Era berean, antolatzaileek dei egin dute baserritar jantzita irteteko: "Jantzia osorik ez duenak osagarriren bat behintzat eraman dezala", dio Kortabarriak. Egun osorako plana egin dute: 10:15ean suziriak botako dituzte eta lehen zita 10:30erako egin dute Bizente Goikoetxea plazan. Matxain kaletik abiatuz, honakoa izango da ibilbidea: Solareaga, Ametzu, Maskaiño, Ibabe, Araneko Errota, Arane, Goiko Errota eta, 13:30ak aldera, Iturrietara bazkaltzera. Bazkalostean Arragako baserrietan hasiko dira eta handik beherantz egingo dute: Basagoitia, Errota Berri eta Zalgo, besteak beste. Gero, Ibarrara jaitsiko dira azken saioa egiteko, 18:00ak aldera. Eguna borobiltzeko, mokadutxoa egingo dute Kultur etxean.

**DATUA**

**40**

BAT HERRITAR GUTXIENEZ

**Entseguetan 40 bat lagun aritu dira. Hala ere, deialdi irekia izango da biharkoa.**

## Betiko koplei, bertsoa eta doinu berriak

**Biharko egun handia prestatzeko lau entsegu egin dituzte; nahikoa izan direla dio Bittor Kortabarriak. Saio horietan Santa Agedako betiko koplak doinu berriekin entseatu dituzte, bateragarriak dira–eta. Gainera, talde osoak leloa abesten duen bitartean bertsolariek bat-batean abestuko dute. Beraz, saio bakoitzak freskotasun puntu nabaria izango du.**

# Zuiako Koadrilak euskara teknikarien alde egin du

Aguraingo Koadrilarekin batera (Bildu), teknikari horien "funtsezko papera" aldarrikatu dute

J.B. | ARAMAIO

Zuiako eta Aguraingo koadrilek euskara teknikariak mantentzeko aurrekontu partidak aurreratu dituzte, Arabako Diputazioak "bere konpromisoa" bete arte. Era berean, gainontzeko koadrilei dei egin diete minimo batzuk adostu eta programa hori sendotzeko. Araba osoan euskara teknikarien presentzia bermatzea da helburua.

Bilduko Gustavo Fernandez eta Lierni Altunaren arabera, teknikari horiek "funtsezko papera" jokatzen dute euskara sustatzeko orduan: "Udal ezberdinetako ahaleginak koordinatu eta bitartekoak konpartitzen dituzte. Udalek, bestela, ezin dute bakarrik eta euren kabuz programak garatu edota teknikariak izan".

**Iaz, heren bat gutxiago**

Hala ere, finantziazioan arazoak daude: "Diputazioak finantziazioa eta bitartekoak murriztu ditu, arrazoirik gabe eta ondorioei erreparatu gabe. Iaz, Aldundiak euskararekiko ekarpena heren batean murriztu zuen eta geratzen zen apurra erdira murriztu nahi dute. Horrez gain, diru-laguntzak jasotzeko deialdia egiteko data ez dute zehaztu", salatu dute.

Era berean, egonkortasuna eskatu dute datozen urteotan teknikarien lanpostu horiek bermatu ditzaten: "Hainbat urtetan toki erakunde ezberdinetatik euskararen alde eraikitzen joan den azpiegitura bertan behera uzteko PPren saiakera da honakoa", gaineratu dute.

## Aratusteetako bazkarirako txartelak otsailaren 5era arte egongo dira salgai, herriko tabernetan

Aramaion otsailaren 9an izango da Aratusteetako egun handiena. Udalak eta ATGAk –Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada– elkarlanean antolatu dute egitaraua: triki-poteoa, bazkaria, kalejira, mozorro lehiaketa, txokolate-jana, umeendako tailerra eta Ttek elektrotxaranga taldearen emanaldia egongo dira. Herri bazkarirako txartelak otsailaren 5era arte egongo dira salgai herriko tabernetan, 15 eurotan. Martitzenean, hilak 12, Aratusteetako tailerra egongo da haurrendako, ludotekan (17:00).

## Eski irteera antolatu du Orixol elkarteak otsailaren 16 eta 17rako; izena emateko azken eguna, hilaren 7a

Orixol elkarteak eski irteera antolatu du Formigal, Astun edo Candanchura. Otsailaren 15ean irten eta hilaren 17an bueltatuko dira. Izena eman behar da hilaren 7a baino lehen, honako kontu korrontean dirua sartuz: 3035 0161 28 1611005178. 150 euro da prezioa –bazkideek 140– eta horren barruan sartuko dira bi gau, bi gosari, zapatuko afaria, autobusa eta forfaitak. Zapatuko zein domekako bazkaria norberaren kontu, eta eskiatzeko materiala ez da prezioan sartzen; estazioan bertan alokatu ahal izango da.

**Paula Amilburu** | Bertsolaria

# "Bizitzako saiorik onena egin nuen kanporaketan, inongo zalantza barik"

Elosuko kanporaketan onena izan ostean, Arabako txapelketako finalerdietarako sailkatu da zuzenean

J.B. | ARAMAIO

Ezusteko ederra eman zuen Paula Amilburuk (Aramaio, 1993), Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketan, Elosun. Antolatzaileen arabera, "merezimendu osoz" lortu zuen puntuazio altuena eta beraz, final erdietarako txartela.

**Saioaren aurretik ez zenuen itxaropen larregi. Nola uler daiteke, bada, onena izatea?**

Ez dakit zer gertatu zen, ez dakit zertan asmatu nuen eta zertan kale. Orain pentsatzen jarriz gero argi daukat bizitzako saiorik onena egin nuela kanporaketan, inongo zalantza barik.

**Bizitzako onena diozu. Zergatik?**

Agindutako lanen aurrean ondo ikusi nuen nire burua. Ideiak azkar etorri zitzaizkidan eta ideia horiek ohi baino hobeto antolatu nituen nire buruan. Errimak ere nahiko ongi irten zitzaizkidan. Urduri hasi nintzen baina gero asko lasaitu nintzen.

**Puntuazio altuena zurea zela jakitean, zer sentitu zenuen?**

Emaitza publiko egin aurretik banekien irabazi nuela. Viñasprek esan zidan, epaimahaikoak eskuan zuen paperean ikusi egiten zelako. Poztasuna baino sorpresa izan zen; oraindik ez dut asimilatu.

**Zorion hitzak helduko ziren gero...**

Bai, jende askok zoriondu ninduen. Ezagutzen ez ninduen bat baino gehiago etorri zitzaidan egin nuen saioa asko gustatu zitzaiola esanez. Gainera, ume batzuk eskatu zidaten eurekin argazki bat ateratzeko. Argazkilari batekin ere egon nintzen.



Amilburu, Elosuko saioan. | A.B.TX.

**Finalaurrekoa non jokatuko duzu?**

Ez dakit, baina Aramaion izatea gustatuko litzaidake. Finalerako ez naizela sailkatuko oso argi daukat eta beraz, oso lasai joango naiz. Hori bai, saio on bat egiten saiatuko naiz.

## Arriolabengoa eta Agirre orain

Gaur jokatuko da hirugarren kanporaketa, Aguraingo Aitxuri elkartean (21:00). Han egongo da Andere Arriolabengoa aramaioarra. Bihar Laudion jokatuko da laugarren kanporaketa, Basalarrina elkartean (21:00). Eta, lehen fasea amaitzeko, domekan jokatuko da azken kanporaketa; han hasiko du ibilbidea 2011ko txapeldunak, Manex Agirre aramaioarrak. Lantziegoko Irader tabernan izango da saioa, 14:00etan.

ELGETA

# Aurten ere haurrek irekiko dituzte Inauteriak... eta gero gerokoak

Gaztetxeak afaria eta dantzarako erritmo brasildarrak proposatu ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetan ere mozorroen eguna hurbiltzen doa. Otsailaren 8an, barikua, ospatuko ditugu Inauteriak. Herri Eskolako neska-mutikoak izango dira mozorrotzen lehenak. 15:00etan mozorro desfilea egingo dute, eta jarraian dantzak eta jokoak herriko plazan. Eguraldi txarra bada, ekitaldia pilotalekuan egingo dute.

Eskolakoen ekitaldia amaitutakoan, 16:00 aldera, guraso elkarteak txokolate beroa eta bizkotxoak banatuko ditu, eta 16:30ean, ludotekako eta gaztelekuko hezitzaileek umeendako jokoak egingo dituzte. Festak Espaloian jarraituko du: Amaia Txintxurretak DJ emanaldia egingo du, 17:30etik 20:30era.



Elgetako neska-mutikoak, iaz, Inauteri festan. | L.Z.

**Gaueko ekitaldiak**

Iluntzerako gaztetxeak txikiteoa antolatu du. Afaria ere antolatu dute; prezioa hamar euro da, eta interesatuek Haizea tabernan eman behar dute izena otsailaren 6a baino lehen. Afalostean dantzarako aukera izango da, izan ere Samba Dzanga taldeak girotuko du Inauteri gaua gaztetxean. Zumarraga-Urretxuko taldea da eta erritmo brasildarrak jorratzen dituzte.

**Santa Ageda bezpera**

Astelehenean, otsailak 4, Santa Ageda bezpera dugu. Herri Eskolako neska-mutikoak koplak abestera irtetekoak dira. Eguraldia lagun bada, 15:00 aldera abiatuko dira eskolatik, eta irakasleen laguntzarekin herriko gune ezberdinetan egingo dute kantuan.

### INAUTERIKO EGITARAUA

**OTSAILAK 8**

**15:00** Eskolako haurren desfilea eta emanaldia.

**16:00** Txokolate jana guraso elkartearen eskutik.

**16:30** Jokoak ludoteka eta gaztelekuko hezitzaileen eskutik.

**17:30-20:30** Mozorro festa Espaloian Amaia Txintxurreta DJarekin.

**19:00** Txikiteoa gaztetxetik abiatuta.

**21:30** Afaria gaztetxean.

**23:30** Kontzertua gaztetxean. Samba Dzanga taldea.

# Areto futbol txapelketa eskatu dute haurrek

L.Z. | ELGETA

Herriko neska-mutikoek haurrendako txapelketa antolatzeko eskaera egin dute. Udala prest agertu da txapelketa antolatzeko —egutegia egin, sailkapena eraman, partiduak antolatu, frontoia eta materiala lotu...—, baina gurasoen laguntza eskatu du partiduen ardura hartzeko —ateak ipini, epaile lanak egin, markagailua kudeatu...—. Txapelketa jokatuko da, baldin eta ardura hori hartzeko gurasorik agertzen bada.

**Saskibaloi saio irekia**

Aurreko barikuan egiteke gelditu zen haurrendako saskibaloi saio irekia gaur, otsailak 1, egingo da, 18:30etik 19:30ra. Aitor Gorostiza elgetarrak gidatuko du saioa gimnasioan.

# Auzo-konposta egin gura duten herritarrei izena emateko deia

L. Z. | ELGETA

Elgetako Udalak 9.000 euroko diru-lerroa onartu du, 2013ko aurrekontuan, herrian auzo-konposterako guneak egiteko. "Guneen kokalekua zehazten hasi aurretik garrantzitsua da horretarako prest dauden herritarrak zenbat diren eta zein kaletan bizi diren ezagutzea", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Auzo-konposta egin gura duten herritarrak udaletxera etorri eta izena ematera animatu gura ditugu", esan du Erostarbek.

**Hiru izenemate soilik**

Udalak emandako datuen arabera, 2012an etxez etxe izena emateko Udalak banatutako eskuorrietan hiru lagunek bakarrik eman zuten izena. Udaletik, hondakin organikoak herrian bertan kudeatzeak duen garrantzia azpimarratu dute, eta gogoratu dute ordenantza fiskaletan dagoeneko jasota dagoela organikoa kudeatzen duten herritarrek hobariak izango dituztela zaborraren kuotan.

**Parte hartzeko bi aukera**

Hondakin organikoak kudeatzeko konpostagailuak behar dira. Hala, etxean bertan ipintzeko eskaera egiten duten herritarrei konpostagailu indibiduala banatuko diete. Aldiz, lorategi edo orturik ez duten herritarrek auzo-konposta egiteko aukera izango dute. "Herrian zehar auzo -konposta egiteko guneak aurrera eramango dira. Udalaren aurreikuspena da Gipuzkoako Foru Aldundiak inbertsioan laguntzea".

**Ikastaroa otsailean**

2005a ezkero, 44 konpostagailu banatu dira Elgetan; horietatik 26 iaz, 2012an. Udalak jakinarazi du beste zortzi lagunek egin dutela eskaera eta aurreikusita dagoela ikastaroa otsailean egitea.

### FUTBITO TXAPELKETA

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Jaitxo - Intxorta's Crew | 13-2 |
| Bajaon-Gaztiak | 2-4 |
| Txapela-Tzibaz United | 10-5 |
| Naste Borraste-Astuan Villa | 2-16 |

**ZAPATUKO PARTIDUAK**

**16:30** Naste Borraste - Jaitxo. **Intxorta's Crew.**

**17:30** Bajaon - Bandoleira. **Gaztiak.**

**DOMEKAKO PARTIDUAK**

**10:30** La Kokotxa - Intxorta's Crew. **Astuan Villa.**

**11:30** Astuan Villa - Txapela. **Jaitxo.**

## Elgetako bost pianista izan dira asteon Arrasaten egindako Debagoieneko piano emanaldian

Arrasate Musikalek antolatuta Debagoieneko pianisten emanaldian egin zen eguaztenean Arrasateko Amaia antzokian. Aurten lehen aldiz Elgetako musika eskolako bost ikasle emanaldi horretan izan dira: Lorea Gallastegi, Kattalin Otxoa, Egoitz Mañarikua, Maialen Alkorta eta Mikele Arkarazo. Emanaldian izan ziren 7 eta 16 urte bitarteko eskualdeko beste 30 ikaslerekin batera. Elgetarrak gustura itzuli ziren Arrasatetik. Entrenamendu polita izan zen Andoaingo emanaldiaren atarian.

### OHARRAK

**BISITA GIDATUA**

Domekan, 10:00etan, Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua egingo da. Izen-emateak 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 telefonoan.

**KANTSATZEKE TALDEA**

Eguaztenean, otsailak 6, 19:00etatik 20:00etara, txartelak tramitatzeko hitzordua kultura etxean.

**ATHLETIC ZALEAK**

Elgetako Athleticen lagunarteak Facebook orrialdea sortu du *Intxortako Lehoiak Elgeta* izenarekin.

**'PETER PAN' MUSIKALA**

Bergarako musika eskolako kideek bi emanaldi egingo dituzte bihar, zapatua, Espaloian. Sarrera 12-15 euro da.

**DANI MATEO**

Agortuta daude zapaturako sarrerak. Otsailaren 24an izango da bigarrena. Sarrera 16-18 euro da.

LEINTZ GATZAGA

# Herritarren ekarpen asko jaso ditu Udalak parte-hartze prozesuan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

2013ko udal aurrekontua gertatzeko parte-hartze saioa egin zuen Udalak herritarrekin batera joan den egubakoitzean. 20 bat lagun eta sei zinegotzi elkartu ziren kultur etxean eta iritziak eman zituzten, ekarpenak egin eta eztabaidarako tartea ere izan zuten. "Oso gustura geratu ginen prozesuarekin, hurrengorako egarri puntua geratu dela ere esango nuke", zioen Eugenio Otsoak.

**Inbertsioetarako 5.000 euro**

Lehenik, Udalak gertatutako aurrekontua aurkeztu zien Otsoa alkateak, 396.895 eurokoa. Eta ondoren talde dinamikari ekin zioten. "Diru askorik ez dagoela kontura daitezen gura genuen eta proiektuetarako laguntzek kanpotik etorri beharko dutela", argitu zuen Otsoak.

Hori horrela, lehentasunak ezartzea ezinbestekoa da, eta hainbat lan zerrendatu zituzten: Gaztainuzketa eguneratzea; gatz museoa indartzea; karobiak auzolanean egokitzea; herria txukuntzea; bolatokia ixtea; eta pilotalekuko aurrealdeko horma txukuntzea.

Herritarrek ere egin zituzten ekarpenak; tartean, autoei olioa aldatzeko lekua eskatu zuten.

Inbertsioetara 5.000 euro bideratu dituzte aurrekontuan: "Asko ez da, baina asko egin dezakegula horrekin uste dugu", jakinarazi zuen alkateak. Udal aurrekontua otsail erdian onartuko dute, seguru asko.




Eugenio Otsoa alkatea aurrekontua aurkezten. | IMANOL SORIANO

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




URTARRILEKO SARIEN ETA PROMOZIOEN

# IRABAZLEAK

ZORIONAK, GUZTIOI!

# FIDELTASUN SARIAK

**Goiena Kluba** osatzen duzuen 4.000 bazkideon artean,
**AISIA DEBA** hotelean egonaldiak zozketatu ditugu.
Hona hemen, urtarrileko saridunak.

### Bi pertsonarentzako gaua ostatuan, Buffet-gosaria eta zirkuitu termala




**Juan Arriaran Aranburu** (Arrasate)

**Julio Zalama** (Arrasate)



**Maria Dolores Plazaola Uribeetxeberria** (Leintz Gatzaga)

### Bi pertsonarentzako relax gastronomikoa (SPA zirkuitua eta bazkaria)




**Jone Garzia Agirre** (Oñati)

**Maia Mondragon Etxaniz** (Antzuola)



**Mikel Nin Laskurain** (Bergara)

# HILEROKO ZOZKETA

Hileko zozketek, berriz, honako irabazleak izan dituzte.

**ARRIKRUTZ KOBETARAKO BI SARRERA**

- IRADI BELATEGI FERNANDEZ (Arrasate)
- LORETO ANDUAGA (Aretxabaleta)
- MIREN AREJOLALEIBA AGIRREZABAL (Oñati)
- JOSE MENTXAKA AGIRREAURRETA (Bergara)
- IÑAKI ARRONDO AGIRRE (Bergara)

ARRIKRUTZ oñatiko obak



**PAMIELAKO LIBURUAK**
**Esteban Barandiaran Fernandez De Jauregi** (Arrasate)

**ERREMEIXUAK DVDA**
**Mikel Urrutia Zumelaga** (Arrasate)

**PENDRIVE BAT**
**Blanca Lasa Balzategi** (Arrasate)

**NAIROBITARRA JOKOA**
**Xabier Mugartza Aiastui** (Arrasate)




Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
Tel.: **943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

TXIRRINDULARITZA

# "Dokumentalak sufritzen dabilenari txispa ematen badio, helburua beteta"

- 'Informe Robinson' saioan protagonista izan da Irizar
- Sare sozialetan oihartzun zabala izan du 'Bizipoz'-ek







Dokumentaleko bi une. Goian Oñati aldean bizikletan; behean, semeekin. | C+

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Martitzen gauean Markel Irizarren etxekoak Gabonetan moduan elkartu ziren mahairen bueltan. Lehenengo afaltzeko, eta gero, telebistaren inguruan denok, *Informe Robinson* saio barruan *Bizipoz* izeneko dokumentala ikusteko: "Une polita izan zen, astearte normal baten denok elkartu ginelako. Eta ohartzen zara gertuan gaudela denok, elkarrekin afaltzen eta gero telebista ikusten, eta konturatzen zara halako detaile txikiak direla bizitzan balio dutenak".

Ez zen, baina, edozein astearte. Hilabete gutxi batzuk lehenago Canal+ telebista kateko ezezagun batzuk sartu zitzaizkien etxera, barruraino, eta elkarrekin egin zituzten hainbat egun: "Ez da erraza ezagutzen ez dituzun pertsona batzuekin etxeko intimitateak partekatzea, umeak tartean egonda, baina emaitzean pentsatzen nuen, lan horrek jende askori lagunduko diola, eta horrek guztiak merezi izango zuela". Hala, eguaztenean bertan twitter-etik ehunka mezu jaso zituen, zoriontzen, eta baita eskerrak ematen ere: "Bistan dago bizitza ez dela beti arrosa kolorekoa. Lehenago urte gogorrak bizitakoa naiz, eta lanak hori batzen du apur bat". *Bizipoz*-en, baina, mezua positiboa da, eta jendeak eskertu egin du hori, askorendako lagungarria delako: "Mezu bereziren bat edo beste jaso dut, esaterako, epilepsia krisiak izaten dituen mutil batena, eta dokumentala ikusteak indarra eman diola. Azken baten, sufritzen dabilen jendeari *Bizipoz*-ek txispa apur bat ematen badio, helburua beteta".

> ESANAK
>
> **"Mezu asko jaso ditut egunotan, eta batzuk bereziak izan dira"**
>
> MARKEL IRIZAR | ZIKLISTA

### Gertukoak, protagonista

*Bizipoz* 25 minutuko dokumentala da, Irizarrekin eta haren gertukoenekin osatutakoa, Arrasate eta Oñatiko inguruetan, eta baita Gipuzkoako beste txoko batzuetan ere. Markelen ama, emaztea, osaba, etxeko txikiak, lagun asko eta baita taldekideak ere: "Horiek dira nire ingurukoak, gertukoak, nahiz eta jende asko falta den hor. Ez dakit, esaterako, dokumentalak erakusten duen ze gertukoa dudan osaba Txus, niretako anaia modukoa delako. Eta esaterako, pozgarria da Andy Schleck edo Fabian Cancellara moduko taldekideak nitaz berba egiten ikustea, horrek hunkitu egiten nau. Suposatzekoa da amak, edo emazteak, zutaz berba ondo egingo dutela, baina ez dakizu besteek ze iritzi izango duten zutaz".

### Ingelesera itzuli

*Informe Robinson*-eko lantaldeak egindako lana ingelesez titulatzea da hurrengo pausoa: "Horretan ari gara orain. Canal+ katekoek irudien eskubideak utzi dizkigute, eta asmoa da *Bizipoz* dokumentala ingelesera itzultzea eta nire webgunean zintzilikatzea. Gero, polita izango litzateke lan horrek nazioartean oihartzuna izatea, eta horrela, jende gehiagorengana heldu ahal izatea".

Oñatikoak ez du lanaren oihartzunaz askorik gozatuko, Qatarrerako bidean da-eta.

## Otsailean, Alberto Iñurrategi

Bistan da Michael Robinsonek gustua hartu diela bailara honetako kirolariei. 2012an egindako azken erreportajeetako batean azaltzen zen Maider Unda, *Las chicas de Londres* izeneko dokumentalean, eta urtea Markel Irizarrekin hasi dute C+ katekoek.

Otsailean, berriz, Alberto Iñurrategi izango da *Informe Robinson*-en, duela egun gutxi egon dira-eta, astebetez, Aretxabaletako inguruetan saioa grabatzen. Iñurrategirekin, besteak beste, 14 zortzimilakoen gainean egingo dute berba, gaur egun alpinismoak hartu duen norabideaz, eta etorkizunean dituzten proiektuez ere jardungo dute. 18 minutuko elkarrizketa oinarri hartuta askotariko irudiak erakutsiko dituzte; tartean, Vallejorekin eta Zabaltzarekin eskalatzen.



Alberto Iñurrategi, grabaketako une batean. | BASQUETEAM

FUTBOLA

**Aitor Fernandez Abarisketa** | Vila-realeko atezaina

# "Taldekideek egindako harrerak harritu nau, jende oso zabala dago hemen"

Athleticeko harrobiko atezaina titular postuagatik borrokatzeko asmoaz joan da Castello aldera



Aitor Fernandez. | X.U.

**X.U.** | ARRASATE

Aitor Fernandezi (Arrasate, 1991) egun batetik bestera aldatu zaio bizitza. Athleticek utzita, Barakaldon urte ona egiten ibiltzetik, bat-batean, Marcos Senna edo Farinos moduko jokalariekin entrenatzera pasa da. Eguaztenenko entrenamendu saioaren ostean izan ginen Arrasatekoarekin

**Zer moduz?**

Oso ondo. Gaur [Eguaztena] entrenatu naiz lehenengoz taldekideekin, eta oso harrera ona egin didate, bat gehiago izan naiz.

**Deserosoa izango da hotelean bizitzea...**

Bai, pare bat egun baino ez ditut egin, eta dagoeneko nekatuta nago. Ea lehenbailehen aurkitzen dudan pisu bat.

**Egun batetik bestera, zela aldatzen den futbol jokalarien bizitza...**

Ba bai. Barakaldon pozik nenbilen jokatzen, aurreko urteetan lesio batzuk tarteko ezin izan dudalako nahi beste jokatu. Aurtengo helburua minutuak batzea zen, jokatzea, eta orain Vila-realera etortzeko aukera suertatu zaidanean, ezin ezetzik esan.

**Zelan hartu zaitutze Vila-realen?**

Ba, egia esan, oso ondo. Oso jende zabala dago hemen, oso-oso zabala. Bestalde, harrituta geratu naiz hemengo kirol instalazioak ikusita, izugarriak dira.

**Deigarria da gabonetako merkatuan Vila-realek zenbat fitxaketa egin dituen, zortzi bai. Jakinda, gainera, harrobia zaintzen duen taldea dela.**

Horrek erakusten du talde honetan zelako presioa dagoen. Vila-realen helburua Lehenengo Mailara bueltatzea da, eta halakoetan normala da fitxaketak egitea.

**Ligan 8. postuan dago Vila-real, eta bi puntura dituzue igoera faseko *playoff*-ak. Beste talderen batendako ez da sailkapen txarra, baina ez zuena moduko taldearendako.**

Azken baten, aurtengo ligan Vila-real da talde guztiek mendean hartu nahi duten taldea, erreferenteetako bat gara eta kontrarioak etortzen dira urteko partidu onena egiteko asmoaz. Horrek exigentzia maila igo egiten du. Dena dela, taldean badago kalitatea goian egoteko.

**Denboraldi erdian iritsi zara taldera, eta beste bi atezain daude. Halakoetan ez da izaten erraza titular postuagatik borrokatzea.**

Ez, baina horretarako etorri gara, titular postuagatik borrokatzera. Ea zorte apur bat dugun, eta lekua egiten dugun.

**Amaitzeko, zelan baloratzen dituzu Athleticen egindako urteak?**

Athletic oso garrantzitsua izan da niretako, asko zor diot talde horri, besteak beste, eurei esker nagoelako gaur hemen. Orain, baina, Vila-realen tokatzen da dena ematea.

TXIRRINDULARITZA

## Aretxabaletan egingo du urteko batzarra Gipuzkoako Federazioak

2013ko abuztuaren 16an, Andramari jaietan, Leintz Bailarako Txirrindulari Lasterketak 75 urte beteko ditu. Hori dela-eta, Gipuzkoako Txirindulari Elkarteak, urte hauetan herriko antolatzaileek egin duten lan ona eskertu nahian, urteko batzar orokorra Aretxabaletan egitea erabaki du. Eta bihar, zapatua, izango da batzar hori, Arkupeko zine aretoan. Iazko errepasoa eta 2013ko hitzorduak izango dituzte, besteak beste, berbagai.

SASKIBALOIA

## Zenbaki ikusgarriekin hasiko du Natra Oñatik bigarren itzulia

Oñatiko saskibaloi taldeak jokatutako hamar partiduetatik bederatzi irabazi ditu. Eneko Blancoren mutilek zenbaki horiek batu dituzte lehengo itzulian, eta bihar, zapatua (20:00), Easo Pastas Arruabarrenaren kantxan hasiko dute bigarren itzulia. Mondragon Unibertsitateak, bestalde, azken bi partiduetan puntu bakarragatik galdu izana lehenbailehen ahaztu nahi du bihar, zapatua, Askartza mendean hartuta; Leioan izango da partidua (18:00).



Bikuña eta Arriaran, baloiagatik lehian, iaz. | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

# Aretxabaletak eta Aloña Mendik derbia jokatuko dute Ibarran etzi

X.U. | ARRASATE

Ligako 20. jardunaldiak Aretxabaleta (37) eta Aloña Mendi (23) batuko ditu Ibarran (domeka, 16:30). Goiko postuengatik borrokan Albistegiren mutilek puntu bakarra eskuratu zuten joan den astean, baina zorionez, Real Unionek (40) makalaldia erakutsi zuen etxean, Berioren kontra 2-2 eginda. Bistan dago kategoria honetan hankamotz gutxi dagoela, eta edonork eman dezakeela ezustea, baita talde indartsuen aurrean ere.

**Liderra sendo, oraingoz**

Bazirudien, azken emaitzak ikusita, Hernani (43) indarra galtzen hasita zegoela, baina joan den astean Lagun Onaki 4-0 irabazita, liderrak kolpea eman du mahai gainean.

Aretxabaletaren domekako kontrario Aloña Mendik, berriz, lasaitasun postuerara egin du salto, joan den astean Aurreraren kontra arnasa hartuta (1-0). Eta arnasa hartu du, baita ere, Lutxo Iturrinoren Mondrak (21). Mojategin garaipen garrantzitsua eskuratuta, bihar hirugarren sailkatu Oiartzunen zelaira joango dira. Azkenik, Ostadarren kontra estropozu egin ostean, Bergara (32) azken sailkatu Aurreraren zelaira joango da bihar, joan den astekoa konpontzera.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKUMEZKOEN BI. MAILA**
Mondra-Osasuna
Domeka. 16:00. Mojategi.

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEZK.**
Arizmendi-Tolosa
Domeka. 12:00. Ibarra.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**
Aretxabaleta-Tolosa
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aurrera-Bergara
Zapatua. 15:30. Markina.
Aretxabaleta-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Ibarra.
Oiartzun-Mondra
Zapatua. 16:15. Karla Lekuona.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Antzuola-Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**
Dunboa Eguzki-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:30. Irun.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Arizmendi-Ikasberri B
Zapatua. 15:30. Ibarra.
Bergara B (atsedena).

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 17:30. Azkoagain.
Bergara-Ostadar
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Amaikak Bat-Mondra
Zapatua. 16:30. Deba

**GAZTEAK, IGOERA FASEA**
Aretxabaleta B-Trintxerpe
Domeka. 19:00. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Eraso
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

**KADETE GIZONEZKOAK**
Anoetako-Arizmendi Eskoria.
Zapatua. 09:15. Donostia.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Atez Ate Usurbil-Soraluce
Zapatua. 18:00. Oiardo Kir.
Escolapios-Ford Mugarri
Zapatua. 19:20. Bilbo.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**
Ereintza-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Errenteria.

**GIPUZKOAKO TXAPELK.**
Donibane-Izarraitz Aloña Me.
Domeka. 11:30. Pasaia

**BIGARREN MAILA**
Talleres Ondo-Bergara
Zapatua. 17:45. Legazpi.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Easo Pastas-Natra Oñati
Zapatua. 20:00. Donostia.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Askartza-MU
Zapatua. 18:00. Leioa.

**GIPUZKOAKO TXAPELK.**
Soraluce Bergara-Take Orbela
Ostirala. 21:30. Labegaraieta
MU A - Hernani
Gaur. 20:00. Musakola..

**SENIOR BIGARREN MAILA**
Donibasket-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Pasaia.

**SENIOR HIRUG. MAILA**
MU B-Astigarraga
Zapatua. 17:30. Musakola.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Cafes Aitona-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

**GAZTEAK, FEDERAZIO SARIA**
Bergara-Leizaran
Domeka. 12:30. Labegaraieta.
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK**
ART-Uribealdea B
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**PILOTA**

**ARETXABALETA**
Aretxabaleta -Eskoriatza
Egubakoitza. 19:30. Udal pilotal.
Eskuz binaka nagusiak

**ESKORIATZA**
Eskoriatza-Intxurre
Egubakoitza. 19:00. Udal pilotal.
Kadeteak eskuz binaka.

**BERGARA**
Bergara-Gazteleku
Egubakoitza. 19:30. Udal Pilotale.
Eskuz binakako kadeteak.

**ARRASATE**
Arrasate-Eibar
Egubakoitza. 21:00. Uarkape.
Eskuz binakako nagusiak.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

**ESKOLA ARTEKO A MAILAKO, AMATEUR ETA FEDERATU MAILAKO TXAPELKETA**
zapatua. 10:00etan hasita
Bergarako Agorrosin kiroldegian.



# KULTURA

# Korrika aurreko beroketa

- Martxoaren 20tik 21erako gauean iritsiko da lekukoa Debagoienera
- Musika eta pailazoak, datorren astean bertan, Korrika Kulturalean



Korrikaren irudia. | AEK

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Korrika badator! Urrutira, baina dagoeneko antzematen da euskararen aldeko lasterketa herrikoiaren etorrera, baita Debagoienean ere. Andoainen hasi eta Baionan amaitu, martxoaren 14a eta 24a artean izango da Korrikaren 18. aldia, eta 20tik 21erako gauean pasako da gure herrietatik. Hilabete eta erdi pasatxo falta da, beraz, egun handirako, baina haren iragarle den Korrika Kulturala bertan dugu dagoeneko: datorren astean bertan ekintzak izango ditugu, Arrasaten eta Bergaran.

Astelehenetik domekara, adibidez, *Zuzeneko instanteak* izeneko erakusketa egongo da ikusgai Arrasateko Kulturaten –17:30etik 20:30era–. Musika argazki erakusketa kolektiboa da, *musikazuzenean.com* atari digitaleko kideen lanez osatua.

Erakusketa honen bueltan, musikarekin lotutako beste hainbat saio ere izango dira astean zehar. Martitzenean, otsailak 5, solasaldia egingo dute Kulturaten bertan, Napoka Iria talde eibartarreko kide Miren Narbaiza eta Ander Muxikarekin. 19:30ean hasiko da.

Eguenean eta egubakoitzean, berriz, zuzeneko saioen txanda izango da. Hilaren 7ko Kooltur Ostegunak ekimeneko kontzertua Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan joango da. Tooth talde gernikarra etorriko da gaztetxera –22:00etan, 5 euroren truke–, iaz kaleratutako izen bereko diskoa aurkeztera. Gaur egun hirukotea da Tooth, "eta post-hardcorea da gehien atsegin duten giroa. Dut eta Lisabö oso presente daude, adibidez, beraien kantuetan", diote Kooltur ekimenaren antolatzaileek.

Egubakoitzeko emanaldiak, berriz, Arrasateko bi tabernatan izango dira, Taupan eta Iluntzen. Aurrenekoan, 20:30ean hasita, Petti bakarlari nafarra ariko da; eta beste nafar bat, Joseba Irazoki, Iluntzen, 22:00etan. Bigarren saioaren amaiera aldera batera joko dute Pettik eta Irazokik.

### Pirritx eta Porrotx Bergaran

Bergaran Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen saioa izango da Korrika Kulturalaren barnean datorren astean egingo dutena. *Sentitu, pentsatu, ekin!* ikuskizunarekin etorriko dira Udal Pilotalekura zapatuan, hilaren 9an. Bi saio egingo dituzte, 15:30ean eta 18:00etan, eta sarrerak *bergara.net* helbidean eta kultura etxean –otsailaren 5etik aurrera, 18:00etatik 21:00etara– ahalko dira erosi, 6 euroren truke. Gehienez sei sarrera eskuratu ahal izango dira pertsonako, eta oraindik geratuko balira emankizun egunean ere jarriko lituzkete salgai leihatilan, 14:30etan.

### Jinkanarako epea, luzatuta

*Lekukoaren bila* jinkanarako, bestalde, urtarrilaren 28an bukatu zen izena emateko epea, baina luzatu egin dute, otsailaren 10era arte, hain zuzen ere. Bada, pista eta proba jolas horretan parte hartzeko, taldea osatu –zortzi lagun gehienez– eta AEKren edozein euskaltegitan eman behar da izena. Korrikaren azken egunean Baionan jokatuko den finala irabazten duen taldeak bidaia bat izango du sari.

### Korrikako materiala

Korrikako materiala –arropa eta osagarriak– eskuratzeko hainbat bide daude Debagoienean: AEKren euskaltegietan eta Arrasateko Eroskin; bestalde, Kutxa Ibiltaria Kulturaten izango da otsailaren 4tik 11ra, 17:30etik 20:00etara, zapatuan izan ezik. Bertan probatu ahal izango da materiala, eta, gainera, aukeratutakoa etxera bidaltzen dute gero.

Bestalde, Korrika Laguntzaile egiteko ere badago oraindik aukera, 12 euroren truke. Euskara elkarteen egoitzetan egin daiteke eta, ez dagoen herrietan, kultura etxean ere bai.


Petti, agertoki gainean kantuan. | GOIENA


Tooth taldeko kideak. | KOOLTUR OSTEGUNAK


Joseba Irazoki, gitarrarekin. | GOIENA

## Kultura etxean egin daiteke Korrika Laguntzaile, euskara elkarterik ez duten herrietan

### KORRIKA DEBAGOIENEAN

| LEKUA | ORDUA |
| --- | --- |
| Elosua | 11:56 |
| Bergara | 12:56 |
| Antzuola | 01:29 |
| Deskarga | 02:01 |
| Udana | 03:37 |
| Oñati | 04:30 |
| Zubillaga | 05:07 |
| Elorregi | 05:22 |
| Arrasate | 05:41 |
| Aretxabaleta | 06:06 |
| Eskoriatza | 06:30 |
| Leintz Gatzaga | 07:17 |
| Muga | 07:37 |

ITURRIA: KORRIKA

### 'Zuzeneko instanteak'

*Musikazuzenean.com* atari digitaleko kide diren lagunen –argazkilariak, afizioz– lanekin osatutako erakusketa da. 2011n eta 2012an zuzeneko kontzertuetan ateratako 40 argazki, 20 argazkilarirenak; tartean daude, adibidez, Josu Txintxurreta eta Arnaitz Eraso debagoiendarrak. Erakusketa interaktiboa da, audio-gune eta guzti.


Numen. | JOSU TXINTXURRETA

# Erakustaldia egin zuten piano-jole gazteek Amaian

## Musika eskoletako piano ikasleek urteroko hitzordua izan zuten ikasitakoa erakusteko


Bergarako Musika Eskolako ikasleak. | J.B.

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Eskualdeko piano-jole gaztetxoen eguna izan zen eguaztenekoa. Debagoieneko musika eskoletako ikasleek Arrasaten jo zuten, Amaia antzokian, familia eta lagunen aurrean. Eskoletan ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten antzokiko agertoki handian.

Oholtza gainera 7 eta 16 urteko 35 ikasle igo ziren, Arrasate Musikalek antolatuta. Batzuk lasai eta beste batzuk urduriago, akatsen bat edo beste tarteko, baina txukun jardun zuten musikari gaztetxoek. Hain zuzen ere, Aretxabaletako, Bergarako, Oñatiko, Eskoriatzako eta Arrasateko musika eskoletako ikasleak igo ziren jotzera, eta baita Elgetakoak ere; aurten Arrasateko jaialdian lehen aldiz parte hartu zuten.

### Artista txikiak

Erraztasun edo zailtasun handiagoarekin, ordubete pasatxo iraun zuen emanaldiak eta ikasleek banaka eta binaka jo zituzten piezak, ezagun eta herrikoiak asko, Bach ala Tchaikovskyrenak kasu. Txikienek pieza laburrak jo zituzten eta nagusiagoek, pasarte luzeagoak. Helburuetako bat, izan ere, ikusleen aurrean eta agertokian jotzen ohitzen hastea da. Arrasatekoa urteroko hitzordu bihurtu da. Urduritasunik ez, baina atzo ez zeuden urduri neska-mutikoak, guztiak zeuden pianoa jendaurrean jotzeko irrikaz, ondo entseatuta.

> **DATUA**
>
> **36**
>
> IKASLE
>
> 7 eta 16 urte bitarteko 36 ikaslek hartu zuten parte eguazteneko jaialdian.

### Hurrengoa, Andoain

Atzoko jaialdia, etxekoen eta lagunen aurrean eskoletan ikasitakoa erakusteko aukera izateaz gain, izan zuten, baita ere, entrenamendu ukitua.

Andoainen otsailaren 23an piano lehiaketan parte hartuko dute atzo jo zutenek. 800 piano-jolerekin batera egingo dute, gainera.




Ipintza

Ipintza baserria / Santio Zaharra 12
ASTIGARRAGA / 688 81 17 24
*ipintza@ipintza.com / www.ipintza.com*

**Eskaintza**
- Astigarraga erdigunean.
- Egunero zabalik, igande gauetan izan ezik.
- Urte osoan sagardoa txotxetik.
- 150 pertsonarentzat lekua.
- Eserita.
- Aparkalekua.
- Sagardo botila salmenta.
- **"Tolare" sagardotegia**



EGIN TXOTX!
sagardotegietan



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

**Eskaintza**
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- **"Tolare" sagardotegia**



Unzueta

Zabola z/g / ARAMAIO
945 44 50 95
*www.unzuetasagardotegia.com*

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 31 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74 / *www.rzabala.com*

**Eskaintza**
- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan ere zabalik.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **"Tolare" sagardotegia**

# Amerikarrak txundituta Belcebluesen musikarekin

## Bart, lehiaketako bigarren kanporaketa izan dute, eta diskoak barra-barra saldu dituzte dagoeneko

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

Bergarako Belceblues taldea Memphisen (AEB) da egunotan; hango musika jaialdi entzutetsuan parte hartu du asteon. Udan Hondarribian izan zen *Road to Memphis* lehiaketa irabazita lortu zuten bergararrek bluesaren jaioterrirako txartela.

Bart parte hartu dute lehiaketako bigarren kanporaketan, eta, gure edizioaren itxieran oraindik emaitza ez jakin arren, oso pozik ziren euren musikak izan duen harrerarekin. Lehen saioan, txalo zaparradekin erantzun zieten eta aulkitik altxatu ziren ikusleak. Euskaraz kantatzeak eta tronpeta erabiltzeak bereziki txunditu dituzte amerikarrak: "Asko izan dira zoriondu eta euskal kulturaren gaineko interesa erakustera etorri zaizkigunak", dio Oihan Vega taldekideak.


Bergarako Belceblues taldea Memphisen da egunotan. | OIHAN VEGA

### Amerikarren onespena

Belceblueskoen esanetan, ezagun da amerikarrek asmatutako musika dela bluesa, eta maisuki erakutsi dute hori lehiaketan.

Bergararrak, baina, ez dira atzean geratu, Vegaren esanetan: "Oso maila altua dago munduko txapelketa honetan, eta gure burua ere maila horretan ikusi dugu. Ez gara tokiz kanpo sentitu, integratuta baizik". Talde bat gehiago izan direla gaineratu du Vegak, eta horrek indar handia eman diela, munduko onenen artean daude -eta. Iritzi berekoa da Ibon Larrañaga: "Euskal Herriko bluesa ontzat eman dute AEBetan, onartu egin gaituzte", dio, pozarren.

> **ESANAK**
>
> **"Euskal Herriko bluesa ontzat eman dute Memphisen"**
>
> IBON LARRAÑAGA | BELCEBLUES

Asier Elortza abeslariak momentuz egindakoagatik harro daudela dio, eta harridura sortu dutela, lehiaketako sorpresa izan direla gaineratuz. Gille Sanz bateria-joleak ere biziki eskertu du Ameriketako zaleek erakutsitako hurbiltasuna: "Izugarriak izan dira ezagutzen ez genituen eta guregana zertan gerturatu ez zuten zaleengandik jaso ditugun zorion-agurrak".

Lehiaketa, baina, Belcebluesek bizi duen ametsaren zati bat besterik ez da, oraindik badituzte -eta egun batzuk Ameriketako abenturaz gozatzeko.


Sharon Stoner taldeko Olade eta Ibarrondo estsegu lokalean. | MAIDER ARREGI

# Sharon Stoner eta Eraso Oñatiko gaztelekuan gaur

**A. A.** | OÑATI

Euskal Herriko rock doinu gogorrekin gozatzeko proposamena egin du gaurko Oñatiko gaztelekuak. Taularen gainean bi talde izango dira, 22:30ean hasita: Oñatiko Sharon Stoner eta Zarauzko Eraso. Sarrerak 5 euroren truke.

### Stoner eta rock metaleroa

Oñatiarrek iaz kaleratu zuten *Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak* –taldearen hirugarren lana– izango dute herriko zein kanpoko zaleen gozamenerako emanaldiaren ardatz. Ikur dituzten abesti pisutsu eta melodia zirraragarriekin igoko da, bada, hirukote txantxikuarra, beste behin, herriko agertokira.

Garrasirik gabe gogortasuna islatzeko modu asko daudela erakutsiko dute zarauztarrek. 90eko hamarkadaren erdialdean abiatutako taldeak bost lan ditu kalean. Azkena, *Ez gara hilko;* adituen esanetan, bizirik sentitzeko apustu sendoa. Aro berri bati hasiera eman dion lan horretako kantuak, gitarra sobera astindu bako abesti indartsuak eta mezu landuak dituenak ekarriko ditu, besteak beste, Erasok Oñatira.

# 'Peter Pan' ikuskizuna Elgetako Espaloian bihar

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

Gabonetan Bergarako Musika Eskolak herrian arrakastaz estreinatu zuen *Peter Pan* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Elgetako Espaloia antzokian. Bi emanaldi egingo dituzte: 16:00etan eta 19:30ean.

Sarrerak 15 eurotan daude eskuragarri: Bergarako Musika Eskolan; Pikuperen bulegoan; Espaloian; eta *www.espaloia.com* atarian.

### Aurrekoetatik ikasgaia ikasita

Valen Monux ikuskizuneko zuzendariaren esanetan, estreinaldiko urduritasunak atzean utzita, eta herrian egindako emanaldiek izandako harrerak eta jasotako animoak bultzatuta, indarberrituta doaz Elgetara: "Errodajea egindа dugula nabarmen igartzen dugu, eta dugun ilusioa estreinaldirako geneukana bestekoa da; gogotsu gaude ikusleak berriz ere liluratzeko prest".

Elgetako Espaloiak dituen ezaugarriak kontuan hartuta, ikusleak apenas igarriko dituen moldaketa batzuk egin behar izan dizkiete dekoratuei eta musikariak ere ezkutatu egin behar izan dituzte. Hala ere, Monuxen esanetan, Elgetako antzokiak baditu, aurreko agertokiarekin alderatuz, hainbat abantaila: "Frontoia beharrean antzokia izanik soinu kalitatea askogatik hobea da eta ikaragarri igarriko da. Horretaz gainera, ikusleak gertuago izango ditu taularen gainean izango diren artistak".

> **Bergarako grabazioaren DVDa salgai**
>
> Goienak eta Bergarako Musika Eskolak elkarlanean argitaratu dute iaz abenduaren 30ean Bergarako Frontoian egin zuten *Peter Pan* ikuskizunaren grabazioa jasotzen duen euskarria.
>
> Aipatutako DVDa, 12 eurotan, dagoeneko salgai dago. Honakoak dira DVDa eskuratzeko tokiak: Goienak Aretxabaletan eta Arrasaten dituen egoitzetan; Bergarako Musika Eskolan; eta bihar, Elgetako Espaloian egingo dituzten emanaldietan.



DVDaren azala. | IÑAKI ITURBE


Itziar Atientza eta Iker Galartza aktoreak *Gauerdian* lanean. | TANTTAKA

# 'Gauerdian' antzezlana Amaian izango da domekan

**A.A** | ARRASATE

40 urte gertu dituzten Bobek (Iker Galartza) eta Helenak (Itziar Atienzak) modako lokal batean elkar nahi gabe ezagutuko dute. Hortik abiatuko da domekan, Amaia antzokian, 19:30ean Tanttaka antzerki taldeak taularatuko duen komedia.

Labetik atera berri duten lana da; urtarrilaren 18an Tolosan estreinatuta, bosgarren emanaldia da Arrasatekoa.

### Istorio konbentzionala

Itziar Atientza aktorearen esanetan, kontatzen dena baino gehiago, kontatzeko modua da lanaren ezaugarria: "Egitura ez lineala du, istorioa saltoka kontatzen dugu; zuzenenean publikoari kontatzen diogu, baina lasai, ez dugu inor taularen gainera igoarazten".

Atientzaren esanetan, Amaia antzokira domekan hurbiltzen diren ikusleek ondo pasatuko dute, kontakizunarekin bat egin eta identifikatuko direlako, batetik, eta, era berean, barre algarak bermatuta izango dituztelako. Aktoreak ere gogotsu dira domekarako; Arrasateko publikoa oso kritikoa dela-eta, Arrasatera gustura etortzen direla gaineratu du.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Zarugalden, 60 zenbakian, etxebizitza errentan ematen da. Igogailua, logela bat, bainugela bat, sukaldea eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 00 94

**Oñati.** Errekalde auzoan, 90 metro koadroko etxebizitza errentan ematen da. Igogailua, hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. 634 42 14 82

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Onatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu telefono zenbaki honetara: 652 77 87 15

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasatear arduratsua alokairuko etxe bila Arrasaten. 677 48 39 17

**Arrasate.** Bikote euskaldun eta arduratsua etxebizitza ekonomiko baten bila Arrasateko erdigunean. 615 73 89 13

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. 671 84 71 71

**Etxebizitza bila.** 500-600 euroko pisu bila. Urgentea da. Arduratsuak. 722 28 84 39

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza bat osatzeko lagun bat behar da, Nafarroa etorbidean. 635 70 79 69

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko logela ematen da errentan. 185 euro gehi gastuak. Deitu 699 11 45 14 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdialdean. 120 euro gastuak barne. 943 77 13 02

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 657 55 81 15 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. 610 82 02 17

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxebizitza osatzeko Uribe auzoan. 610 78 46 50

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan, Ibargarai kalean. Maniobrarik egin gabe erraz sartzeko modukoa. Deitu telefono honetara: 679 74 00 61

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan, Zubiaurre kalean. Handia, bi kotxe sartzeko modukoa. 679 74 00 61

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

### 304. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Lokala errentan hartu nahi dugu Aretxabaletan. Lagunekin egoteko lokal bat bilatzen ari gara. Prezioa negoziatzeko prest gaude, 400 euro inguru. 688 60 24 78 edo 634 46 47 07

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Haur Hezkuntza ikasi duen 23 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Deitu 688 88 39 57 telefonora.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska gertu garbiketak egiteko. Orduka edo astean egun batzuetan. Maite. 696 88 93 73

**Arrasate edo Bergara.** Emakumea gertu lanerako, orduka, nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan zein tabernan. Deitu 673 47 53 74 telefonora.

**Arrasate eta inguruak.** Emakumea gertu umea edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile titulua daukat eta esperientzia ere bai. Mariaje. Deitu 943 25 05 72 edo 658 70 56 94 zenbakira.

**Arrasate.** Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Deitu 943 79 60 89 telefonora.

**Arrasate.** Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. 699 54 17 27

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu nengoke. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674 93 20 47

**Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta.** Haur hezkuntza ikasten dabilen 22 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. Umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok telefono zenbaki honetara deitu: 680 17 33 61

**Bergara.** Arratsaldetan nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Esperientziaduna. Deitu 610 34 97 88 telefonora.

**Bergara.** Emakumea prest arratsaldez, orduka, lan egiteko. Deitu 650 62 12 94 edo 943 76 19 52 telefonora.

**Bergara.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan lan egingo nuke. Tituluduna eta euskalduna naiz. 680 77 06 46

**Bergaran, Antzuola edo Zumarraga.** Bikotea, esperientziaduna eta erreferentziaduna, garbiketak eiteko gertu: atari, bulego, taberna, elkarte eta abarrak. Merke. Ordutegi arazo barik. 634 91 81 73 edo 943 76 66 24

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile tituludun 20 urteko neska lanerako prest. Esperientzia dut begi klinikan, geriatrian eta traumatologian. Helduak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest. 676 91 55 14 edo 657 79 45 17

**Debagoiena, Zumarraga edo Legazpi.** 6 urteko eskarmentua duen mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu: garbitu, oheratu, pasiatu, sukaldatu zein ospitalean egon. Egun osoz, erdiz edo orduka. Asteburuetan ere bai. Ordutegi arazo barik eta berehala hasteko gertu. Deitu 685 42 72 80 edo 943 76 66 24 zenbakietara.

**Debagoiena.** Dendatan, tabernatan zein nagusiak zaintzeko gertu nago. 634 16 78 71

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu, nagusiak zaindu edo etxeko garbitasun lanak egiteko. 688 69 07 28

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, euskalduna, haur heziketa tituluduna eta eskarmentu handikoa, umeak zaintzeko gertu. Arantza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 30 62

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut et esperientzia handia. 672 96 08 22

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 674 93 20 47

**Debagoiena.** Mutila gertu asteburuetan lan egiteko. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaitzeko. Ospitalean gauak egiteko gertu nago. Baita asteburu edo egunez ere. Atariak garbitzen ere lan egingo nuke. 699 60 91 90

**Debagoiena.** Emakumea lan bila: ume zein nagusiak zaintzen, tabernatan edo etxeak garbitzen. Autoa daukat. 67 20 00 86

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketa lanetan. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Eraikuntzan, garbiketan zein mekanika lanetarako gertu nago. Deitu 671 26 74 74 telefonora.

**Debagoiena.** Eritzaintza laguntzaile tituludun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. 686 404 203

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentziak dituen neska lanerako gertu: nagusiak zaindu edo atari, etxebizitza, taberna eta abarrak garbitzen. Egun osoz, erdiz, orduka edo egun solteak ere bai. Ordutegi arazo batik eta berehala hasteko moduan. 634 91 81 73 edo 943 76 66 24

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. 602 07 12 06

**Debagoiena.** Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. Deitu 649 52 86 54 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan bila dabil. Garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. Egunez edo gauez. Elikagaiak manipulatzeko karneta daukat. Berehala lanean hasteko moduan. 622 77 60 65

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko: peoi lanak eta abar. 651 55 36 29

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: nagusiak zaindu, banaketak, mekanikari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 06 66 71

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: sukaldari laguntzaile, eraikuntzako peoia, garbiketa industrialak edota etxeko lanak egiten. 688 86 04 02

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: iturgin, igeltsari, hondeatze-makinarekin eta tailerretan lan egin izan dut. Nagusiak ere zain ditzaket orduka. 600 30 82 93

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Deitu 695 73 87 95 edo 943 71 53 74 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 678 98 54 64

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldea eta garbitasuna. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaintzen edo taberna edo atarien garbiketa lanetan. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusi zein umeak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta baita legezko paperak ere. 671 64 35 10

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziekin. 634 28 16 34

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onak dituena, lanerako gertu. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 34 76 22

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Nagusiak zaintzen lau urte eta erdiz aritua eta umeak zaintzen urtebetez. Garbiketan edo jatetxean laguntzen ere lan egingo nuke. Orduka, egunez edo gauez. 600 30 82 93

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Nagusiak zaintzen lau urte eta erdiz aritua eta umeak zaintzen urtebetez. Garbiketan edo jatetxean laguntzen ere lan egingo nuke. 600 30 82 93

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Zortzi urteko esperientziaduna. Orduka edo egunez nagusiak zainduko nituzke. Garbiketak ere bai. Autoa daukat. Deitu 688 29 99 85 edo 634 40 64 65 zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko, nagusiak zaintzen. Arratsaldez edo gauez. Legezko paperekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 99 11 85

**Debagoiena.** Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jatetxeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta baita garbiketak egiten zein dendari jarduteko. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbiketa lanak egin edo dendan baten lan egiteko ere. Orduka edo etxean bertan bizi izateko gertu. Astean zehar edo asteburutan. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska, klinika laguntzaile tituluduna, lanerako prest. Nagusiak zaindu zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 02 96 edo 688 80 27 01

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Geriatriako titulua daukat. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako nagusiak edo umeak zaintzen. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziaduna. 722 14 42 86

**Haurrak zaintzeko prest.** Umeak zaintzeko prest nago, euskalduna eta esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 90 40 10

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Barrenkale 90 $m^2$, 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 $m^2$, 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 $m^2$. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 $m^2$. 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 $m^2$. 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 $m^2$, 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 $m^2$. 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 $m^2$. 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
